

•eus
Jakin 258

herria kultura hizkuntza iraila-urria
2023

Gizarte mugimenduak elkargune berriak

MARI LUZ ESTEBAN

AMAIA AGIRRE

MARGARET BULLEN

IXONE FDEZ DE LABASTIDA

ANDERE ORMAZABAL

JOSU LARRINAGA

NEREA ZULUAGA

IÑAKI BARCENA

MADDI GALDOS

JOSU AMEZAGA

MADDALEN EPELDE

MARINA SAGASTIZABAL

NOEMI BERGANTIÑOS

IKER IRAOLA

JULEN ZABALO

MARTA LUXÁN

MARTA BARBA

MIREN GUILLÓ

EGUNEN GURPILEAN

MAIALEN AKIZU BIDE GAIN

JOANES IGEREGI SANTAMARIA

CIRA CRESPO

Jakin^{•eus}**258**
herria kultura hizkuntza iraila-urria
2023



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joanmari Larrarte

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi • Joxe Azurmendi

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

ERREDAKZIOA

Haritz Azurmendi • Oihana Iguaran

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre • Xabier Eizagirre • Idurre Eskisabel
Patxi Juaristi • Joanmari Larrarte • Imanol Murua
Andoni Olariaga • Olatz Osa • Gexan Sors

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 Andoain
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAHIA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Andoain. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: 0211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

7

ZUZENDARIAREN HITZAK

9

GAI NAGUSIA Gizarte mugimenduak:
elkargune berriak

- 13** Gizarte mugimenduen arteko aliantzak krisi globalaren testuinguruan
Mari Luz Esteban

Azken hamarkadotan gizarteak bizi izan duen krisiari erantzun asmoz, Euskal Herriko gizarte mugimenduen artean sortu diren aliantzak eta ekimen komunak aztertzeko EHUko lantalde zabal batek garatu duen ikerketaren emaitza nagusiak aurkezten dira.

- 27** Emakumeen Etxeetako fenomenoaren garrantzia Euskal Herrian
Amaia Agirre Miguelez • Margaret Bullen
Ixone Fernandez de Labastida Medina

2003tik aurrera Hego Euskal Herrian zabalduz joan diren Emakumeen Etxeetako fenomenoak aztertzen da. Emakumeen Etxeen ezaugarriak eta politika moduak, aliantzak eta mugimendu feministaren eta erakundeen arteko harremanak uztartzen dira.

- 41** Euskal ekologisten erronkak: aniztasuna eta eraginkortasun politikoa
Andere Ormazabal Gaston • Josu Larrinaga Arza
Nerea Zuluaga Mauri • Iñaki Barcena Hinojal

Euskal Herriko mugimendu ekologistak azken hamarkadan bizi izandako bilakaera aztertzen da, ondorengo dimentsio haue-
tan arreta jarritz: antolaketan, aliantzetan, tokiko erakundeekin
dituzten harremanetan eta aniztasun eta genero ikuspegian.

- 57** Korrika: gizarte subjektuen bilgune
Maddi Galdos Areta • Josu Amezaga Albizu
Korrikaren 2019ko edizioan lekukoaren eramaile izan ziren 4.455 eragileen analisi kuantitatiboa egiten da, horien ezaugarri batzuk aztertuz.
- 75** Euskal herritartasunaren inguruko korapiloak herri mugimenduetan
Maddalen Epelde Juaristi • Marina Sagastizabal
Noemi Bergantiños • Iker Iraola Arretxe
Julen Zabalo Bilbao
Herri mugimenduek euskal herritartasunaz pentsatzen dutenera hurbiltzen da, zenbait mugimendu sozialetako kideri gai horiez galdetu ostean. Izan ere, ez dago euskal herritartasun ofizialik, baina bai hura lortzeko nazio mugimendu indartsu bat.
- 89** Pandemia eta gizarte mugimenduak.
(Des)aktibazioak, egokitzapenak eta presentzialtasunaren politizazioa
Marta Luxán Serrano • Marta Barba Gassó
Miren Guilló Arakistain
2021ean gauzatutako *Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian* inkestaren bidez identifikatutako prozesuak eta aldaketak jasotzen dira eta, horietatik abiatuta, zenbait hausnarketak eta galdera berri plazaratzen dira.

EGUNEN GURPILEAN

- 105** Kultura
Maialen Akizu Bidegain
- 111** Glokalia
Joanes Igeregi Santamaria
- 118** Historia
Cira Crespo

KONTRAZALA Dom Campistron

Ekainaren 22an eta 23an, *Gizarte mugimenduak: erronka berriei elkargune berriak* Jardunaldia antolatu zuen JAKINEk Usurbilen, UEU eta Usurbilgo Udalarekin batera. Gai horren inguruan osatu da zenbaki hau. Saio horien bideoak Jakin.eus webgunean daude ikusgai:



Usurbilgo Udala

Zenbaki honek Usurbilgo Udalaren laguntza jaso du

SOCIAL MOVEMENTS: NEW INTERSECTIONS

Alliances between social movements within the context of the global crisis

The lecturer in Social Anthropology, Mari Luz Esteban, presents the main results of research conducted by a wide-ranging working group at the University of the Basque Country (UPV/EHU) in order to analyse the common alliances and initiatives that have emerged among the social movements in the Basque Country, with a view to responding to the social crisis of recent decades. [Mari Luz Esteban](#)

The importance of the *Emakumeen Etxeak* phenomenon in the Basque Country

Amaia Agirre Miguelez, Margaret Bullen and Ixone Fernandez de Labastida Medina, members of AFIT (Feminist Anthropology Research Group), analyse the phenomenon of the *Emakumeen Etxeak* (Women's Houses) that have opened in the South Basque Country since 2003. [Amaia Agirre Miguelez](#) • [Margaret Bullen](#) • [Ixone Fernandez de Labastida Medina](#)

Challenges facing Basque ecologists: plurality and political effectiveness

The lecturers and researchers, Andere Ormazabal Gaston, Josu Larrinaga Arza, Nerea Zuluaga Mauri and Iñaki Barcena Hinojal, analyse the evolution of the Basque ecologist movement in recent decades, focusing on its organisation, relations with other local administrative bodies, and plurality and gender standpoints. [Andere Ormazabal Gaston](#) • [Josu Larrinaga Arza](#) • [Nerea Zuluaga Mauri](#) • [Iñaki Barcena Hinojal](#)

Korrika: meeting point for social entities

Maddi Galdos Areta and Josu Amezaga Albizu, members of the NOR research group, analyse some features of the 4,455 social agents who ran in the 2019 edition of *Korrika*. [Maddi Galdos Areta](#) • [Josu Amezaga Albizu](#)

Bonds regarding Basque nationality in popular movements

The lecturers in Sociology, Maddalen Epelde Juaristi, Marina Sagastizabal, Noemi Bergantiños, Iker Iraola Arretxe and Julen Zabalo Bilbao, focus on the view of popular movements regarding Basque nationality. Indeed, Basque nationality officially doesn't exist, although there is a strong national movement in favour of obtaining it. [Maddalen Epelde Juaristi](#) • [Marina Sagastizabal](#) • [Noemi Bergantiños](#) • [Iker Iraola Arretxe](#) • [Julen Zabalo Bilbao](#)

Pandemic and social movements. (De)activation, adaptation and politicization of presentiality

The lecturers and researchers, Marta Luxán Serrano, Marta Barba Gassó and Miren Guilló Arakistain, bring together the processes and changes identified in the survey *Social Movements in the Basque Country during the Pandemic* (2021). A range of thoughts and new questions are raised by these. [Marta Luxán Serrano](#) • [Marta Barba Gassó](#) • [Miren Guilló Arakistain](#)

News today

This gathers together cultural information focusing on the present from various areas and perspectives. This year we shall be closely following culture, globalization and history matters. This section draws on various specialists: Maialen Akizu Bidegain, Joanes Igeregi Santamaria and Cira Crespo. [Various authors](#)

Gizarte mugimenduak izan genituen aztergai ekaineko Usurbilgo Jakin Jardunaldian, eta gai bera aletu dugu zenbaki honetan. Herritarren parte hartze soziopolitikoaz ari gara finen, hau da, boterearen banaketaz eta hiritartasunaren izaera eta ahalmenaz.

2018tik, EHUko lau ikerketa talde –NOR, AFIT, Ekopol eta Parte Hartuz– gizarte mugimenduen eta parte hartze politikoaren gainean ikertzen ari dira, eta kaleratu dituzten azken ikerketek akuilatuta antolatu genuen Jakin Jardunaldia eta osatu dugu monografiko hau. Zergatik? Badelako Euskal Herriaren ezaugarri bat gizarte mugimendua –edo herri ekimena edo gizarte zibil autoeratuia, edonola deitzen diogula– eragile garrantzitsua izatea azken hamarkada luzeetan herrigintzan. Gizarte mugimendu askotarikoa eta militantea dugu, eta eremu horretatik ekimen asko landu dira, proposamen asko egin eta eragin politikoa bideratu. Ezingo genuke egungo euskal gizartea azaldu gizarte zibilaren ekimenik, indarrik, protestarik eta ekarpenik gabe.

Baina, gizartea nola, gizarte mugimenduak eta horiek eta herri erakundeen arteko harremanak aldatuz eta eraldatuz doaz. Badakigu gure gizartea, Mendebaldeko gizartea oro har, azken hamarkadetan asko, ikaragarri aldatu dela: gizarte harremanen desinstituzionalizazioa edo suntsiketa joera; muturreko krisi ekologikoa; muturreko zaintza krisia; lan baldintzen prekarizazioa eta lan eskubideen galera eta horren ondorioz gizarte desberdinkeria areagotzea; eta demokrazia instituzionalari buruzko ezkortasuna zabaltzea. Esan dezakegu gure garaiaren ezaugarri nagusia krisi guztiak larriagotu izana dela.

Egoera horretara eraman gaituen mundu gero eta globalizatua goa eta neoliberalagoa gizarte mugimenduen kontrakoa dela esan dezakegu, eta, aldez, esku artean dugun krisi sistemikoan inoiz baino beharrezkoagoa dela eskubideen defentsa eta, beraz, gizarte mugimendu indartsuak egotea.

Euskal Herriak baditu bere ñabardurak, eta aipatu ikerketa horietan hainbat ondorio interesgarri azaldu dira: tartean, Euskal Herrian gizarte mugimenduak osasuntsu daudela eta jendea mobilizatzeko

eta instituzioak astintzeko modu berrien sorrera etengabea dela. Badiara beste ondorio esanguratsu eta propio batzuk ere: gizarte mugimendu zenbaitetan, ez guztietan, gazteen presentzia txikia izatea eta, beraz, belaunaldien arteko lekuko aldaketa zaila izatea; liberatuen eta profesionalen presentzia areagotu izana, horrek izan ditzakeen alde on eta txarrekin; mugimendu mistoetan, feminismoaren papera esanguratsua dela eta dagoeneko alboraezina; mugimenduen arteko aliantzen eta elkarlanaren aldeotasun handia dagoela; mugimenduen eta erakundeen arteko harremana esanguratsua dela, nahiz eta batzuetan estua izan –feminismoan, esate batera– eta bestetan ez –demagun, ekologismoan–; eta gizarte eta kultur aniztasuna mugimendu gehienetan auzi bat dela, baina migrazio, etnia eta jatorri kulturalera mugatzen dela eta ez direla kontuan hartzen adina, klasea, hizkuntza, ideologia, sexualitatea, erlijioa eta beste.

Mari Luz Esteban antropologo ezagunaren artikulua jartzen dio abiaburuko markoa monografiko honi, eta bertan ideia giltzarri interesgarri bat agertzen du: gurean ohikoak diren ‘herri mugimendu’ edo ‘herrigintza’ terminoek gizarte bat ehuntzeko egitasmoek hitz egiten dutela, baina, aldi berean, euskal gizarteak jasan izan duen desjabetze prozesu politiko, kultural, generoko eta etnikoek ari dela eta horiek salatzen eta borrokatzen ekimen baliagarriak direla, deskolonizazio epistemikoari keinu iradokitzailea eginez. Hortxe ikergai garrantzitsu bat. Hortik aurrera, Emakumeen Etxeen fenomenoak, ekologismoa genero, aniztasun eta aliantza dimentsioetan, Korrika subjektuen bilgune gisa hartuta, euskal herritartasunaren ezaugarritzea eta pandemiaren eragina aztertu dituzte hamazazpi adituk.

Jakín Jardunaldian, garrantzi berezia izan zuten antolatutako genituen bi mahai inguruek, mugimenduen arteko harremanak lantzeko baliagarri izan baitziren: batetik, elkar ezagutzeko, eta, bestetik, intersektionalitatearen begiradapean, elkarren arteko botere harremanak eta emantzipazio aliantzak mahai gainean jartzeko. Ekarpen garrantzitsua egin zuten Leo Bueriberik (antiarrazismoa), Iraia de la Torre (euskalgintza) eta Maider Avaristok (feminismoa), mahai batean, eta Joanes Igeregik (ekologismoa), Ana Mezok (pentsionisten mugimendua) eta Aitzol Gil de San Vicentek (gazte mugimendua), beste mahaietan (ikus www.jakin.eus/bideoak/2023-gizarte-mugimenduak/31).

Ohi bezala, zenbakia itxiz, Cira Crespo, Joanes Igeregi eta Maialen Akizu ditugu. Akizu, gainera, azken aldiz. Hiru urte ondoren eta ekarpen eder, mamitsu eta kontuan hartzekoak egin ondotik, honako hau duelako azken artikulua, eta zer artikulua! Esker erraldoi bat baino ez zaigu geratzen hari eskaintzeko.

GIZARTE MUGIMENDUAK: ELKARGUNE BERRIAK

- 13** Gizarte mugimenduen arteko aliantzak
krisi globalaren testuinguruan
Mari Luz Esteban
- 27** Emakumeen Etxeetako fenomenoaren
garrantzia Euskal Herrian
Amaia Agirre Miguelez • Margaret Bullen
Ixone Fernandez de Labastida Medina
- 41** Euskal ekologisten erronkak:
aniztasuna eta eraginkortasun politikoa
Andere Ormazabal Gaston • Josu Larrinaga Arza
Nerea Zuluaga Mauri • Iñaki Barcena Hinojal
- 57** Korrika: gizarte subjektuen bilgune
Maddi Galdos Areta • Josu Amezaga Albizu
- 75** Euskal herritartasunaren inguruko
korapiloak herri mugimenduetan
Maddalen Epelde Juaristi • Marina Sagastizabal
Noemi Bergantiños • Iker Iraola Arretxe
Julen Zabalo Bilbao
- 89** Pandemia eta gizarte mugimenduak.
(Des)aktibazioak, egokitzapenak
eta presentzialtasunaren politizazioa
Marta Luxán Serrano • Marta Barba Gassó
Miren Guilló Arakistain

Gizarte mugimenduen arteko aliantzak krisi globalaren testuinguruan

Mari Luz Esteban

UPV/EHUko Gizarte Antropologiako irakaslea eta AFIT Antropologia Feminista Ikerketa Taldearen koordinatzailea

Gizarte mendebaldarrak erabat aldatu dira azken hamarkadetan, maila guztietan: soziala, politikoa, ekonomikoa edo emozionala, are gehiago COVID-19aren inguruan sortutako krisia aintzat hartuz gero. Laburpen gisa esan dezakegu krisi guztiak larriagotu diren garaiotan bizi garela.

Beste argitalpen batzuetan zehaztu dugun moduan (Esteban *et al.* 2020, Barba *et al.* 2022), hauexek lirateke eraldaketa horien osagaietako batzuk: kohesioa eta gizarte ordenaren aldaketa, non gizarte harremanen desinstituzionalizazio prozesuak gauzatu diren (Touraine 2005); krisi ekologikoa muturrera sakontzea eta zaintza krisia agerian uztea (Herrero 2016); lan baldintzen prekarizazioa eta lan eskubi-deen galera, eta, horren ondorioz, gizarte desberdinkerien areagotzea (Gálvez 2013, Gaindegia 2016); eta demokrazia instituzionalari buruzko ezkortasuna (Subirats 2005), parte hartze sozialerako proposamen berrien sorrera (Santos 2004) eta ekimenen areagotzea (Martínez 2017). Aldaketa horiek guztiek subjektu politikoaren ulerkeran eragina izan dute,

eta baita politika bera ikusteko modu berriak bultzatu ere (Luxán *et al.* 2014, Esteban 2015).

Mende aldaketarekin, militantzia edo aktibismoa praktikatzen ohiturak errebisatzen hasi ziren, gazteek bultzatuta, batez ere (Joxemi Zumalabe Fundazioa 2014); pixkanaka, lehenago ohikoak ziren molde sistematizatuagoak mantendu arren, 'elkarrekin egoteko' eta 'gauzak elkarrekin egiteko' deitu dugun eredu bat zabalduz joan da: abiatzen diren ekimenak ez dira derrigorrez iraunkorrak baizik eta zehatzak, denbora iraupen mugatua dutenak eta uneko konpromisoa eskatzen dutenak, baina mugimenduen eta eragileen arteko-tasuna saretzeko, hau da, gizartea modu sendoan ehuntzeko erabateko munta dutenak (Esteban *et al.* 2020). Egunotan, identitate politiko eta subjektibazio prozesu kontingenteak, deszentralizatuak eta dinamikoagoak eratzen ari dira, eta politika, inoiz baino gehiago, esperimentaziorako gune bihurtu da (Berardi 2013, Esteban 2015, Diz 2019, García 2019).

Artikulu honetan, zirriborratu dugun krisi testuinguru horri erantzuteko asmoz Euskal Herriko gizarte mugimenduen artean sortu diren aliantzak aztertzeke garatu dugun ikerketaren emaitza nagusiak aurkezten ditugu. Ikerketa prozesu horretan EHUko lau ikerketa taldeetako kideok¹ parte hartu dugu bi proiektu burutuz: (1) *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik* izeneko (2018), EHU eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmen batek finantzatua (*Etorkizuna Eraikiz* programan) (ikus Esteban *et al.* 2020); eta (2) Espainiako Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak sustaturiko *Nuevas solidaridades, reciprocidades y alianzas: la emergencia de espacios colaborativos de participación política y redefinición de la ciudadanía* izeneko proiektua (CSO-2017-82903-R, 2018-2022).² 2021ean, pandemiak gizarte mugimenduen artean izan zuen eragina ere aztertu genuen (ikus Barba *et al.* 2022 eta Eizagirre 2022).³

Bost urte hauetan, ekimen eta proposamen zehatzetan jarri izan dugu arreta, jardueri, salaketei eta aldarrikapenei erreparatuz, baina baita kultur eta gizarte sorkuntzari (modu

zabalean ulertuta) ere. Hori dena honako premisan oinarrituta: gizarte mugimenduak ez dira soilik

botere politikoa edo erakundeak interpelatzen dituzten eragileak, edo aukera egitura jakin batzuen aurrean erreakzionatzen dutenak; aitzitik, bizitzarekin, materiarekin, munduarekin esperimintatzen dute, existitzeko modu alternatiboak sortuz. (Diz 2022)

Gure ibilbidean, gizarte mugimenduak bere osotasunean aintzat hartu baditugu ere, lau izan dira berariaz ikergai izan ditugunak: (1) kultur aniztasunaren, migrazioaren eta antirrazakeriaren ingurukoak; (2) feminismoari eta genero berdintasunari dagokiona (behaketa unitate nagusia Emakumeen Etxeak izan direlarik); (3) euskararen aldeko ekimenak; (4) jasangarritasuna eta ingurumen justizia. Hala ere, bestelako mugimenduak ere kontuan izan ditugu, hala nola gazteen edo pentsionisten jarduerak.

Analizatu ditugun ekimenak asko eta askotarikoak izan dira: euskararen erabilera bultzatzeko indarrean jarritako praktiketatik, Emakumeen Etxeen esperientzia, arrazismoaren kontrako ekintza edo ekologia arloko proposamen anitzetaraino. Aztertutako ekimenen kokapenari dagokionez, bi maila konbinatu ditugu: udal mailakoa, analisiaren parte handi bat herri jakin batzuetan lekutu baitugu: Arrasate, Azpeitia, Bilbo, Donostia, Errenteria, Gasteiz, Hernani, Irun, Iruñea; eta zeharkakoa, hiri/herri desberdinak hartzen dituzten prozesuak ere jarraitu baititugu (hala nola euskalgintza, feminismo eta ekologia arloko kanpainak). Metodologiari dagokionez, hiru teknikez baliatu gara bereziki: (1) sako-neko elkarrizketak (banakakoak eta taldekoak) eta eztabaida

Krisi testuinguruari erantzuteko asmoz Euskal Herriko gizarte mugimenduen artean sortu diren aliantzak aztertzeko garatu dugun ikerketaren emaitza nagusiak aurkezten ditugu

taldeak; (2) behaketa saioak; eta (3) iturri dokumentalen azterketa (tokiko ikerketak eta agerkariak, eskuorriak...).

Ikerketaren emaitzetan sartu baino lehen, hurrengo atalean, gizarte mugimenduei dagozkien termino eta definizioez jardungo gara.

Gizarte mugimenduak edo herri mugimenduak: apunte teoriko batzuk⁴

Esan bezala, gure interes behinena gizarte mugimendu jakin batzuen arteko lankidetzaz aztertzea izan da. Baina zertaz ari gara gizarte mugimenduez hitz egiten dugunean?

Enrique Larañak, 1999an, lau osagai aipatu zituen gizarte mugimendu bat ezaugarritzeko. Berarentzat, gizarte mugimendu batek: (1) elkartasuna eskatzen du; (2) bere existentzia da, berez, errealitatea hautemateko modu bat; (3) arau sistemaren mugak haustea dakar; (4) arau eta legitimazio berriak sortzeko gaitasuna du. Bere aldetik, Francisco Ullán de la Rosak, aurreko atalean politikaren mudantzez esan dugunaren ildo beretik, bost puntutan laburbildu ditu 2008ko krisitik aurrera eratuz joan diren mugimenduen ezaugarriak; haren ustez, mugimenduek: (1) kategoria lausotze bat mantentzen dute; (2) postpolitika deitu daitekeen fase batean inskribatzen dira; (3) aktibismoa dimentsio sozial berrietara zabaltzen dute; (4) globalizatorako joera erakusten dute sare arkitektura baten bidez; eta (5) ikuspegi teoriko desberdinak artikulatzeko beharrari eusten diote.

Definizioak definizio, tematika hau jorratzen duten adituek behin eta berriro azpimarratzen dute 'gizarte mugimendu' kontzeptuaren polisemia (Palumbo 2014: 26). Beatriz Santamarinak horrela laburtu du: «Ez dago adostasunik ez pertzepzioan, ez edukietan, ez ikuspegietan, ezta *gizarte mugimendu* termino labainkorrak dakartzan esanahietan ere» (Santamarina 2008: 113). Esangura anitzekoa denez, baditu atzetik hainbat arrazoi:

kontzeptuala ez ezik politikoa ere baden eztabaida bati lotutako interpretazio esparru eta kategoria analitikoaren aniztasunari eran-

tzuten dio; ekintza politikoari dagokionez, ‘zaharra’ eta ‘berria’ denaren aurkakotasunari; eta kontzeptu sorkuntzako testuinguru soziohistorikoei, eta, ondorioz, gizarte jakin bateko egitura politiko-ekonomikoak eta ekintza kolektiboak aldatzeari. (Palumbo 2014: 26)

Eztabaida hau are konplexuagoa da dakigunean ‘gizarte mugimendu’ terminoa ez dela erabiltzen den bakarra. Gure ikerketaren kasuan, ‘gizarte mugimendu’ eta ‘herri mugimendu’ terminoak sinonimotzat hartu ditugu. Ekhine Eizagirrek adierazi moduan,

mugimendu sozial, gizarte- edo herri-mugimendu kontzeptuak darabiltzagunean, sozial, gizarte eta herri hitzek espazio, eremu, izaera edo identitateak ezaugarritzen dituzte eta mugimendu edo herrigintzak, ostera, mugimendua eta ekintza adierazten dute. (Eizagirre 2022: 9)

Latinoamerikan ere, azken denboran, ‘herri mugimendu’ izena aldarrikatzen ari dira. Mercedes Palumbok (2014) herrialde horietan egiten ari diren desplazamendu semantikoari buruz idatzi du, zeren gero eta gehiago ‘movimiento popular’ kontzeptua erabiltzen ari baita, zonalde horretan dauden ekintza kolektiboko esperientzien partikularutasuna birpentsatu eta klase sozialak eta bestelako aldagai batzuen garrantzia azpimarratze aldera. Esate baterako, Brasiletik, Alana Moraesek (2020) esan du, duela urte batzuk ‘gizarte mugimendu’ esamoldea borroka emergenteak ikusarazteko garrantzitsua izan bazen, gaur egun kontzeptu horrek gatazken eta bizimoduen aniztasun heterogeneoa subjektu politiko singular batean eklipsatzeko arriskua duela, kapturatzeko errazagoa litzatekeen subjektua, hain zuzen (Diz 2022). Beraz, egile horientzat, ‘herri’ edo ‘herritar’ adjektiboak subjektibatze antagonistaren espazio baten balioa hartzen du. Dizek ideia horiek borobiltzen ditu esanez egungo herri mugimendu amerikarrak borrokatzen ari direla

jabegoa kentzeko, zapaltzeko eta esplotatzeko moduen aurka (politikoa, ekonomikoa, generokoa, etnia-arrazakoa). Klaseen bo-

rroka funtsezko ardatza da horiek ulertzeko, eta mendeko taldeek protagonismo handia dute. (*Ibid.*)

Euskal Herrira itzuliz, esan dezakegu gurean ohikoak diren ‘herri mugimendu’ edo ‘herrigintza’ terminoek gizarte bat ehuntzeko egitasmoez hitz egiten dutela, baina, aldi berean, euskal gizarteak jasan izan duen desjabetze prozesu politiko, kultural, generoko eta etnikoa salatzen eta borrokatzen ere baliagarriak zaizkigula, deskolonizazio epistemikoaren ariketa eta keinu bat eginez.

Goazen orain gure ikerketaren emaitza orokorrak laburtzera.

Mugimenduetan nabaritzen diren eraldaketak

Mende berriarekin batera mugimenduen antolaketari eta aktibismoa ulertzeari dagokienez sortu diren eraldaketen artean, mugimenduen barne osaketarena nabarmendu dezakegu. Hala, gizartean ezagunagoak diren mugimenduetan, ohikoak izaten diren hiru geruza antzematen dira: (1) muinean dagoen kide multzo txiki eta oso aktiboak osatzen duena; (2)

Herri mugimenduko talde askotan egiaztatzen den berezitasuna bada gazteen presentzia txikia, eta, beraz, belaunaldien arteko lekuko aldaketa bermatuta ez egotea

horren inguruan dagoen jende talde zabalagoa eta inplikazio maila askoz txikiagoa duena; eta (3) antolatua ez dagoen hirugarren geruza bat, tamainan handiena eta ekintzetan parte hartzen duen pertsonen osatua, batez ere ekitaldi jendetsuetan biltzen dena. Feminismoari erreparatuta, esate baterako, hirugarren sektore horrek garrantzi handia hartu zuen 2018 eta 2019ko greba orokorretan (Esteban *et al.* 2020). Hiru sek-

tore edo geruza horien existentziak baditu abantailak (jende gehiago inplikatzeko edota jende askorengana heltzeko, adibidez), baina baita desabantailak ere, zeren konpromiso maila

oso desberdinak izateak mugimendua bera mantentzea eta teorikoki elikatzea zailzen baitu.

Herri mugimenduen osaketarekin jarraituz, talde askotan egiaztatzen den bigarren berezitasuna bada gazteen presentzia txikia, eta, beraz, belaunaldien arteko lekuko aldaketa bertututa ez egotea. Horretan ere feminismoa salbuespena izango litzateke. Hala ere, gazteek badituzte beren elkarteak, non aldaketak ere sumatzen diren proposamenetan edo aldarrietan.

Esandakoaz gain, liberatuen eta profesionalen presentzia areagotuz joan da herri mugimendu guztietan, eta baita egitasmo zehatzak dinamizatzeko adituak edo enpresak kontratatzeke praktika ere. Noiz edo noiz, ez dago guztiz argi erakundeen, enpresen eta mugimenduen arteko mugak non dauden, esate baterako, kulturgintzaren eremuan. Beste aldeetik, profesionalizazioa borondatezko konpromiso dinamikaren kontra joan daiteke eta aktibismoaren autonomia ahuldu. Baina, profesionalizazioak baditu alde onak ere: proiektuak bermatzea eta prozesuetan parte hartzen duten guztien arteko botere harremanak bideratzea, batez ere.

Atal hau bukatzeko, feminismoari buruzko iruzkin bat. Egia da pandemiak gogor jo dituela mugimendu guztiak, bere argi eta ilunekin (ikus horri buruzko artikulua monografiko honetan); baina feminismoaren indarra ukazina da, paper esanguratsua baitauka mugimendu misto gehienetan, bai genero desorekak ikusaraziz, bai metodologia parte hartzaileagoak proposatuz edota botere dinamikak salatuz.

Herri mugimenduen arteko aliantzak eta gatazkak: posizio anizkoitzen garrantzia

Azterturiko herri eta leku guztietan topatu dugu mugimenduen arteko elkarlana, eta, oro har, eragileek oso modu baikorrean baloratzen dituzte aliantza horiek, nahiz eta agian ez izan batzuek nahiko luketen bezain ugariak eta sakonak. Elkarguneak aberasgarriak dira batak bestearen berri izateko, gerturatzeko, aurreiritziak gainditzeko, konplizitateak

sortzeko eta, guztiaren gainera, indarrak batzeko. Aliantza horien bidez, errealago bihurtzen da politika egiteko modu kolektibo bat, zeinaren bidez «aldez aurretik zehaztu gabeko zerbait asmatzen den» (Diz, Estévez eta Martínez-Buján 2022: 2).

Mugimendu eta norbanakoen posizio anizkoitzea ere bada dinamika bateratu horiekin zerikusia duen beste egitate deigarri bat: pertsona bat mugimendu edo jarduera kolektibo batean baino esparru gehiagotan egon daiteke aldi berean, edo aktibista eta profesional moduan aritu, edota kargu politiko batean ere egon tarteka... Esperientzia anizkun hori diagnostiko zabalak edo esparruen arteko zubi lana egiteko trena baliotsua izaten da, baita mugimenduen arteko desadostasunak bideratzeko ere, baina mugimenduen edota erakundeen praktikak elkarrengandik ezberdintzeko zailtasunak sor ditzake, eta mugimenduen autonomiaren kontra joan ere.

Aliantza edo ekimen partekatuetan sortzen diren gatazkei dagokienez, esan behar da elkarlana bera batzuetan ez dela erraza, ez baita beti asmatzen formularekin, eta eztabaidak eta tentsioak sor daitezke. Taldeen eta kideen arteko tentsio eta gatazkei aurre egiteko, oinarrietara jotzea eta komunean dauden elementuetan arakatzea izan da antzeman dugun estrategia nagusia. Unean uneko baldintzetara moldatzen jakitea ere bada gakoetako bat, aniztasuna errespetatuz, partaideen arteko horizontaltasuna landuz eta helburuak etengabe berrikusiz. Kanpo dinamizazioa ere lagungarria izan daiteke ahalegin horretan. Bestalde, gatazkei aurre egiteko dinamikean islatuta gelditzen da ere mugimendu bat noraino den gai horizontaltasunean funtzionatzeko eta demokrazia «zaintza kontu bat» (Puig de la Bellacasa 2017) bilakatzeko.

Mugimendu eta erakundeen arteko harremanak eta talkak

Aurrez aipatu dugun mugimenduen profesionalizazioa loturik dago beste joera batekin: herri mugimenduen

instituzionalizazioarekin, zeina, oro har, partziala izaten den eta arlo batzuetan beste batzuetan baino ageriagoa den. Gure ikerketan, adibidez, aztertu ditugun Emakumeen Etxeak fenomeno horren barruan koka daitezke. Josep Lobera eta Diego Parejok, Greziako Syriza eta Espainiako Podemos partiduen prozesuen harira, idatzi dute instituzionalizazioa dela «aktore politikoen egokitzapena estatuaren instituzio politikoen barne logiketara» (2020: 4) eta partidu horiek sorrarazitako «kale/instituzio» tentsioa aztertu dute. Dena den, argi dago, Bert Klandermans eta Jacquélien van Stekelenburgek (2011: 179) esan dutenez, «berariazko testuinguru nazional bakoitzak mobilizazio eta instituzionalizazio testuinguru espezifiko bat sortzen du[ela], eta, beraz, artikulua honetan planteatutako tentsioaren forma espezifiko bat» (in Lobera eta Parejo 2020: 17), monografiko honen artikuluetan ikusten denez.

Edozein dela instituzionalizazioaren maila, mugimenduen eta erakundeekiko harremana errealitate bat da euskal gizartean. Baina, erakundeekiko harreman hori *continuum* bat bezala ikusi behar da: mutur batean, elkarlan estua nabaritzen da (arloan feministan, adibidez); beste muturrean, aldiz, harremana gatazkatsuagoa da guk aztertutako ekimenen artean, sozioekologia arloko zenbaitetan, bereziki. Harreman horretan eragina duten osagaien artean, alderdien edo koalizioen ideologia, pertsonen jarrerak, erakundeen eragite maila edo mugimenduaren beraren izaera edo eremua leudeke.

Baina, gaiak eta gai horiek jorrazteko maila ere aintzat hartu behar dira. Eskubide edo aldarrikapen baten alde egotea (genero berdintasunaren edo ekologismoaren alde edo arrazismoaren kontra) plangintza errealista baten hasiera izan daiteke edo politikoki zuzena den keinu hutsa, jendearen bizi baldintzen aldaketa sakona ekarriko luketen proposamenetaraino heldu gabe.

Proiektu zehatzen kudeaketari begiratuta, hainbat eragilek (gazteen taldeek, nagusiki) autogestioa lehenetsi eta diru iturri propioak bilatzen dituzte (jaietan txosnak jartzea,

adibidez). Aldiz, berdintasuna eta kulturartekotasuna lantzen duten elkarte askok kudeaketa mistora jotzen dute, hainbat udaletan Emakumeen Etxeek duten kudeaketa, alegia.

Eragileen eta erakundeen artean sortzen diren arazo asko erritmoen talkarekin lotuta daude: erakundeek edota profesionalak ez dituzte beti elkarteen erritmoak errespetatzen, proiektuak aurrera ateratzea helburu bakarra bailitzan, eta ez, aldiz, herritarrek komunitatearen zereginetan eta erabakietan parte hartzea eta pentsamoldeak aldatzea. Beste batzuetan, erakundeen burokratizazioak eta zurruntasunak ekimenen moteltzea ekartzen du.

Baina, zalantzarik gabe, kogestioaren eraginik ezkorrena mugimenduen tutorizazioa eta aktibismo tutelatua deitu duguna litzateke, hau da, herri eragileen dinamiketan teknikiariak eta politikariak gidari izatea, eta elkarteak mendeko bihurtzea, horrek guztiak dakarren parte hartze sozialaren eta ikuspegi kritikoaren pobretzearekin.

Aniztasuna, errealitatea eta lanketa. Aniztasunaren mugak

Gizarte eta kultur aniztasuna gure testuinguruen ezaugarri nagusietakoa da, eta, beraz, hainbat mugimenduren lanketa eta kezka ere bai. Halere, aniztasunaz hitz egitean, batik bat, migrazioaz, etniaz edo jatorri kulturalaz pentsatzeko joera gailendu da, baita mugimenduen baitan ere. Ondorioz, bigarren mailan gelditu ohi dira adina, klasea, hizkuntza, ideologia, sexualitatea, erlijioa eta abarreko aldagaiak. Horrek, beste ondorioen artean, ‘hemengoak/kanpokoak’ eta ‘gu/besteak’ bezalako dikotomiak irauaraztea dakar.

Halaber, migratzaileen parte hartzearen mugez hitz egiterakoan, lan baldintza kaxkarragoak edo zaintzarako sare gutxiago dituztela aipatzen da sarri. Baina, gure ikerketaren arabera, migratzaileen presentzia murriztuaren arazo nagusia ez legoke horrenbeste elementu horiekin lotuta, baizik eta, parte hartuz gero, mugimendu edo ekimen mistoen koordinazio

edo zuzendaritza postuetan zein bilkura orokorretan bestee-kin batera egoteko sumatzen diren zailtasunekin.

Era berean, multikulturalismoa ahotik hortzera badarabilgu ere, paradigma hori asistentzialismotik eraikitzeko eta aniztasuna folklorizatzeo arriskua ere hortxe dago. Izan ere, hitzaldi eta jardunaldi askotan migratzaileen parte hartzea beraien testigantzak partekatzeo mugatu ohi da, aditu estatusa aitortu gabe.

Idea batzuk, bukatzeko

Sinetsita gaude herri mugimenduen arteko lankidetzari begiratzea ezin baliagarriagoa dela gure gizartean nabaritzen diren eraldaketak hautemateko eta zehazteko eta baita sumatzen diren joera eta logika politiko berriak aztertzeo ere. Zentzu horretan, eta idealizazioan jausi gabe, esan daiteke euskal mugimenduak nahiko osasuntsu daudela eta jendea mobilizatzeo eta instituzioak astintzeo modu berrien sorrera etengabea dela, nahiz eta pandemiaren inguruan sorturiko krisi sakonak gogor jo dituen. Beste aldetik, azpimarratu nahi dugu, analisi orokorrak baliotsuak izan arren, lekuan lekuko behaketak eta gogoetak funtsezkoak direla, gertatzen diren bilakaerak tentuz haztatu ahal izateko. 🍷

Oharrak

1. Ikerketa taldeak hauexek izan dira: AFIT (Antropologia Feminista Ikerketa Taldea, HEFA Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatekoa), eta NOR, Ekopol eta Parte Hartuz ikerketa taldeak (Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatekoak). Lantaldean 25 ikertzailek parte hartu dute, Mari Luz Esteban eta Josu Amezaga Albizuren koordinaziopean.
2. 2021etik 2022ra, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko *Gipuzkoako Emakumeen Etxeak indartzeko Lurralde Mailako Prozesuan* parte hartzeo aukera ere izan dugu.

3. Proiektuarekin loturiko beste lan batzuk ere burutu dira; zehazki, Gradu Amaierako Lan eta Master Amaierako Lan hauek: Ruiz (2019), Ariznabarreta (2021), Barriain (2021), Biain (2021), Iturria (2021), Aguirre (2022), Berengan (2022), Gonzalez (2022) eta Rodríguez (2022).
4. Eskerrak eman behar dizkiogu Carlos Diz Reboaredori, 2022ko urtariraren 13an antolatu genuen barne mintegian gizarte mugimenduen teoriari buruz eman zigun hitzaldiagatik, non atal honetan aipatzen ditugun zenbait egileren lanetan sakontzeko aukera izan genuen.

Bibliografia

- Aguirre Romero, Unai (2022): *Euskal protesta zikloak: gizarte mugimenduak, ekintza kolektiboa eta paradigma aldaketa*. Politika, Zientzia eta Administrazio Publikoko Gradu Amaierako Lana. EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- Ariznabarreta Bilbao, Ekaitz (2021): *COVID-19: Etorkizuneko bizimortua irudikatzen leihoa. Antropozenoa eta politikotasunaren deuseza dakarren bizimortua-ren adierazlea*. Politika, Zientzia eta Administrazio Publikoko Gradu Amaierako Lana. EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- Barba Gassó, Marta; Guilló Arakistain, Miren; Zabalo Bilbao, Julen; Luxán Serrano, Marta; Arana Arrieta, Edorta; Bárcena Hinojal, Iñaki (2022): *Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian. Egoeraren ondorioak, egokitzenak eta eszenatoki berriak*, Bilbo, EHU.
- Barriain Ceña, María (2021): *Ecofeminismo y Participación. Caso Práctico en la Cooperativa Gure Sustraiak*. 'Partaidetza eta Komunitate-Garapena' Master Amaierako Lana. EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- Berardi, Franco (2013): *La sublevación*, Bartzelona, Artefakte.
- Berengan Mendaña, Estefanía (2022): *Participación para la transición: El diseño participativo para la construcción de un Índice de Sostenibilidad en la Comarca de Busturialdea-Urdaibai para la Transición Ecosocial*. 'Partaidetza eta Komunitate-Garapena' Master Amaierako Lana. EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- Biain Arrieta, Ane (2021): *Komunikazioaren papera Euskal Herriko gaur egungo gizarte-mugimenduetan*. Soziologiako Gradu Amaierako Lana. EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- Diz, Carlos (2019): 'Maneras de vivir: emoción, política e identidades en movimiento', *ANDULI. Revista Andaluza de Ciencias Sociales* 18, 93-117.
- (2022): 'Gizarte-mugimenduen inguruko mintegia'. EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologiako Fakultatea, 2022-01-13. Argitaragabea.

- Diz, Carlos; Estévez, Brais; Martínez-Buján, Raquel (2022): 'Caring Democracy Now: Neighborhood Support Networks in the Wake of the 15-M', *Social Movement Studies* 22(3), 361-380. doi: 10.1080/14742837.2022.2033115.
- Eizagirre, Ekhine (2022): *Euskal Herriko mugimendu sozialak sindemia garaian. Testuinguruari eta mugimenduen arteko aliantzei begirada kualitatiboa*. Gizarte Antropologiako Gradu Amaierako Lana. EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea.
- Esteban, Mari Luz (2015): 'La reformulación de la política, el activismo y la etnografía. Esbozo de una antropología somática y vulnerable', *Ankulegi* 19, 75-93.
- (2020): *El feminismo y las transformaciones en la política*, Bartzelona, Edicions Bellaterra.
- Esteban Galarza, Mari Luz (arg.); Agirre Miguelez, Amaia et al. (2020): *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik / Tejiendo comunidades desde iniciativas populares*, Leioa, EHU (<https://web-argitalpena.adm.ehu.es/listaproductos.asp?IdProducts=USPDF202499>).
- Gaindegia (2016): *Des-herria. Hausturak eta etenak Euskal Herrian*, Andoain, Gaindegia/Ipar Hegoa.
- Gálvez Muñoz, Lina (2013): 'El recrudescimiento de las desigualdades de género en la España de la Gran Recesión', *Temas para el debate* 218-219, 42-44.
- García López, Ernesto (2019): *La construcción social del activismo en Madrid durante el ciclo 15M: subjetividades políticas y resistencia anti-austeritaria*. Doktorego tesia. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa.
- González Méndez, Olatz (2022): *Educación social en los movimientos juveniles de Bizkaia*. Gizarte Hezkuntzako Gradu Amaierako Lana. EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea.
- Herrero, Yayo (2016): 'Economía feminista y economía ecológica, el diálogo necesario y urgente', *Revista de Economía Crítica* 22, 144-161.
- Iturria Carrillo, Fernando (2021): *Construyendo alternativas y resistencias: Un proyecto de acogida, comunitario y autogestionado en Artea-Basoa*. 'Partaidetza eta Komunitate-Garapena' Master Amaierako Lana. EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- Joxemi Zumalabe Fundazioa (2014): *Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantzia eta horizontaltasunaz hausnartzen*, Donostia, Joxemi Zumalabe Fundazioa.
- Klandermans, Bert; Van Stekelenburg, Jacquelin (2011): 'Contentious performances: The case of street demonstrations', in M. J. Funes (arg.): *A propósito de Tilly. Conflicto, poder y acción colectiva*, Madril, CIS, 177-194.
- Laraña, Enrique (1999): *La construcción de los movimientos sociales*, Madril, Alianza.

- Lobera, Josep; Parejo, Diego (2020): 'La tensión entre institucionalización y movilización. Los conflictos internos en SYRIZA y Podemos', *Encrucijadas. Revista Crítica de Ciencias Sociales* 19, a1903.
- Luxán, Marta; Ormazabal, Andere; Txurruka, Unai; Dañobeitia, Olatz (2014): 'Metamilitantzia. Herri mugimenduen baitatik gogoeta', *JAKIN* 203, 93-107.
- Martínez Palacios, Jone (koord.) (2017): *Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias*, Bartzelona, Icaria.
- Moraes, Alana (2020): *Experimentações baldias e paixões de retomada vida e luta na cidade-acampamento*. Doktorego tesia. UFRJ.
- Palumbo, Mercedes (2014): 'Un desplazamiento semántico, político y geográfico en la tradición de estudios sobre Movimientos Sociales: Aportes del concepto de movimiento popular', *Estudios* 32, 25-48.
- Puig de la Bellacasa, María (2017): *Matters of Care. Speculative Ethics in More Than Human Worlds*, Minneapolis eta Londres, University of Minnesota Press.
- Rodríguez Robledo, Carla (2022): *La comunicación interna y externa del movimiento feminista vasco. Estrategias de comunicación durante la pandemia*. 'Gizarte Komunikazioa' Master Amaierako Lana. EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- Ruiz Romo, Uxue (2019): *Txantxafrika proiektua ezagutzen: antolakuntzari eta harremanei begiratzen dien etnografía bat*. Gizarte Antropologiako Gradu Amaierako Lana. EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea.
- Santamarina Campos, Beatriz (2008): 'Movimientos sociales: una revisión teórica y nuevas aproximaciones', *Boletín de Antropología. Universidad de Antioquia* 22(39), 112-131.
- Santos, Boaventura de Sousa (2004): *Democratizar la democracia. Los caminos de la democracia participativa*, Mexiko Hiria, FCE.
- Subirats, Joan (2005): 'Democracia, participación y transformación social', *Polis. Revista Latinoamericana* 12 (*Individualismo y bien común: los límites de las instituciones* zenbaki monografikoa).
- Touraine, Alain (2005): *Un nuevo paradigma para comprender el mundo de hoy*, Bartzelona, Paidós.
- Ullán de la Rosa, Francisco (2016): *Teorías sociológicas de los movimientos sociales*, Madril, Los Libros de la Catarata.

Emakumeen Etxeetako fenomenoaren garrantzia Euskal Herrian

Amaia Agirre Miguelez

*UPV/EHUko Hezkuntza Zientziak Saileko irakaslea
eta AFIT Antropologia Feminista Ikerketa Taldeko kidea*

Margaret Bullen

Ixone Fernandez de Labastida Medina

*UPV/EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia
Saileko irakasleak eta AFIT Antropologia Feminista
Ikerketa Taldeko kideak*

2003tik aurrera Hego Euskal Herrian zabalduz joan diren Emakumeen Etxeetako esperientzia aztertzen da artikulu honetan. Análisi hau, 2018tik 2022ra gizarte mugimenduen aliantzak eta elkarlaneko ekimenak behatzeko EHUKo lau ikerketa taldek¹ garatu dugun ikerlanean txertatzen da, non, gure kasuan (AFIT Antropologia Feminista Ikerketa Taldetik),² guztiok batera burututako analisisiaz gain,³ 2021etik 2022ra Gipuzkoako Foru Aldundiak sustaturiko *Gipuzkoako Emakumeen Etxeak indartzeko Lurralde Mailako Prozesuan* parte hartzeko aukera ere izan dugun.⁴

Gure ikerlanaren helburu nagusia mugimendu feministaren eta erakundeen arteko harremanen azterketa izan da, zehazki erlazio horiek Emakumeen Etxeetan hartzen duten forma eta

izaten duten eragina ikertuz. Horrekin batera, Emakumeen Etxeen ezaugarriak eta politika egiteko moduak eta horien inguruan sortzen ari diren aliantzak ere arakatu ditugu. Helburu orokor horiek erdiesteko, lau helburu zehatz definitu genituen: (1) Emakumeen Etxeak edota Txokoak kudeatzeko eredu desberdinak aztertzea eta balizko abantailak eta erronkak zerrendatzea; (2) tokian tokiko udalen eta berdintasun teknikarien eta mugimendu feministako taldeen eta kideen arteko harremanak nolakoak diren deskribatzea, balizko tentsioei eta horiek kudeatzeko moduei arreta berezia eskainiz; (3) Emakumeen Etxeetan parte hartzen duten banako zein taldeen artean eta feministen eta bestelako gizarte eragileen artean sortzen diren aliantza, egitasmo eta jardun komunak aztertzea; (4) espazio horietan aniztasuna nola ulertzen den, zer eginkizun duen eta nola kudeatzen den ikertzea.

Bost urteko ibilbide horretan, eta nahiz eta Emakumeen Etxeak beren osotasunean aintzat hartu ditugun, zazpi etxe aztertu ditugu berariaz: alde batetik, Gipuzkoan kokatuta dauden bost (Arrasateko Emakumeen Txokoa, Azpeitiko Emakumeen Txokoa, Donostiako Emakumeen Etxea, Errenteriako Emakumeen Etxea eta Hernaniko Kulturarteko Plaza Feminista); bestetik, eta Gipuzkoako emaitzak kontrastatu eta aberastu ahal izateko, Iruñeko Emakumeen Etxea eta Bilboko Koloretxe Auzo Garaietako Emakumeen Etxea egitasmoa ere ikergai izan ditugu.⁵ Lurraldetasunaz gain, etxeak hautatzeko beste aldagai hauek ere aintzat hartu ditugu: antzintasuna, sorrera modua, kudeaketa eredia eta aniztasuna administratzeko eredu desberdinak.

Antzintasun desberdina duten zentroak aztertzeak prozesuaren une desberdinetan dauden etxeei begiratzea ahalbidetu digu. Aztertutako guztien artean, Arrasatekoa izan zen ateak ireki zituen lehena, 2003an;⁶ Donostiakoak 2010ean eta Azpeitikoak 2011n hasi zuten ibilbidea; Errenteriakoak eta Iruñekoak, berriz, 2019an; eta Hernaniko Kulturarteko Plaza Feminista 2021ean inauguratu zen. Koloretxe Auzo Garaietako Emakumeen Etxea egitasmoa, bere aldetik, 2016an

abiatu zuen Galtzagorri Bilboko San Frantzisko Emakumeen Taldeak. Oraindik proiektu bat besterik ez bada ere, talde horrek hainbat ekimen eta jardunaldi antolatu ditu proiektuaren helburuak ezagutarazteko eta beren nahia udal gobernari eta Bilboko mugimendu feministari helarazteko (Andino 2017).

Sorrera prozesuari dagokionez, oro har, etxeak udalerrri bakoitzaren mugimendu feministaren ekimena izan dira, betiere udal gobernu zein berdintasun arloko langileekin elkarlanean. Guk aztertutako zentroetatik, Iruñeko Etxea izan da eredu horren salbuespen bakarra, kasu horretan ekimena udalarena izan baitzen: prozesu parte hartzaile bat martxan jarri zen, Farapi Koop. Elkartek⁷ dinamizatua, hiriko elkarte eta kolektibo feminista eta emakumeen taldeei gonbidapena luzatuz. Etxea sortzeko iniziatiba udalak hartzearen formula hori gero eta zabalduago dago (hor dugu Gasteizko Sorgineena, esaterako). Gerora begira, sortze prozesu horrek galdera batzuk planteatu ahal ditu: zer-nolako ondorioak ekar ditzake hasiera mota horrek? Noraino neutraliza dezake feminismoaren etxearekiko autonomia eta erabakimena?

Kudeaketa erduei dagokienez, formula ezberdinak daude. Erreterian eta Hernanin, nahiz eta mugimenduarekiko harremana estua izan eta proposamenak egiteko bideak badiren, kudeaketa udalaren esku dago, eta zinegotziek, teknikariak edota dinamizatzaileek hartzen ohi dituzte erabakiak. Beste herrietan, aldiz, formula mistoak daude indarrean, non herriko talde feministak edo emakumeenak, emakumeen edo berdintasun kontseiluak, berdintasun arloko teknikariak eta udal ordezkariak batera aritzen diren. Aztertutakoen artean, Donostiako eta Iruñeko Emakumeen Etxeak bereziak dira;

Sorrera prozesuari dagokionez, oro har, etxeak udalerrri bakoitzaren mugimendu feministaren ekimena izan dira, betiere udal gobernu zein berdintasun arloko langileekin elkarlanean

izan ere, elkarte bat dute, Emakumeen Etxea Elkarte, zeina kudeaketaren zutabe nagusietako bat den Udal Berdintasun Sailarekin batera.⁸

Azkenik, aniztasunarekin zerikusia duten aldagaiak (jatorria, adina, generoa, sexualitatea...) nola kudeatzen diren ere presente izan dugu. Modu batez edo bestez, etxe guztietan aintzat hartzen dute aniztasuna, baina bereziki interesgarria da Hernaniko Kulturarteko Plaza Feminista, zeina AMHER Hernaniko Elkarte Multikulturalaren egoitza ere baden.

Ikusi bezala, zentro horiek guztiek beren artean antzekotasun handiak izan arren, badituzte desberdintasunak ere, bai jatorri/sorrerari dagokionez, baita funtzionamenduari eta garapenari dagokienez ere; hori guztia ezin baliagarriagoa izan da gure azterketa aberasteko.

Hurrengo ataletan, Emakumeen Etxeen fenomenoaren ezauzgarri adierazgarrienak planteatuko ditugu, eta, horren ostean, analisisan ateratako emaitza eta erronka nagusiak planteatuko ditugu.

Emakumeen Etxeak: Euskal Herrian indar berezia duen fenomeno⁹

Emakumeen Etxeetan, emakumeen elkarteak, berdintasunaren esparruan dauden zinegotzi, arlo edo sailak eta emakumeen kontseiluak biltzen dira, mugimendu feministaren jarduna eta berdintasunari dagozkion planak eta protokoloak bultzatze aldera. Era berean, zerbitzu mota desberdinak eskaini ohi dira, hala nola aholkularitza juridikoa, lan arlokoa, sexuala edo kolektibo prekarizatuen babesa. Eta, jorratzen diren jarduera asoziatibo, administratibo eta asistentzialez gain, heziketa mailan, etxeen dinamikan txertatu ohi diren Ahalduntze Eskolen lana¹⁰ ere nabarmengarria da, urtero zientoka emakume eta hainbat gizon erakarri ohi dituzten ikastaro eta tailerren agenda anizkoitz eta zabalarekin.¹¹ Eskola horiek Euskal Herrian dauden herri hezkuntzaren adibide behinean izango lirateke, duten izaera eta zabalpenagatik.¹²

Etxeek mundu mailako mugimendu feministaren aldarrikapen klasiko bati erantzuten diote, hau da, lokal propioak izatea biltzeko, elkarrekin gogoeta egiteko eta gizarte desberdinkerien aurka egiteko, baina baita sortzeko, dibertitzeko eta bertan babesa aurkitzeko ere. Nazioarte mailan ugariak dira lokal edo espazio feminista motak: topaketa lekuak, osasun zentroak eta bestelako zerbitzuak, argitaletxeak, liburu dendak, kafetegiak... Beraz, etxe edo espazio feministak sortzearen ideia ez da Euskal Herrikoa bakarrik, baizik eta nazioarte eta estatu mailako tradizio luze batean errotzen da. Horren ondorioz, emakumeek eraikin edo lokal publikoak hartzen edota birdefinitzen dituzte ekintza sozial eta politikorako.

Euskal gizartearen kasuan, badaude zenbait berezitasun. Hasteko, azpimarratu behar da fenomeno honek baduela gurean garrantzi handia, kopuruagatik eta baita proiektzioagatik ere. Artikulu hau idazteko momentuan, hamazazpi etxe ditugu Hego Euskal Herrian: bederatzi Gipuzkoan (Arrasate, Azpeitia, Donostia, Eibar, Errenteria, Hernani, Urola Garaia, Zarautz eta Zumaia), sei Bizkaian (Arrigorriaga, Balmaseda, Basauri, Durango, Ermua eta Ondarroa), bat Araban (Gasteiz) eta beste bat Nafarroan (Iruñea). Baina, beste herri askotan ere abian jarri dira sortzeko prozesuak.

Sarreran aipatu bezala, antzekotasunak eta desberdintasunak aurki daitezke. Esaterako, izena bera: testu honetan 'Emakumeen Etxe' izen generikoa erabili arren, toki batzuetan 'Emakume edo Emakumeen Txoko' izena dute, eta, Hernanin, 'Kulturarteko Plaza Feminista'.

Beste aldetik, eta nahiz eta zentro horiek ez dauden beren artean modu formalean koordinatuta, praktikan harreman estuak mantentzen dituzte bertan lan egiten duten berdintasun teknikari eta dinamizatzaileen bitartez eta mugimendu feministak dituen sareen bidez.

Atal hau bi ideia nagusi azpimarratuz bukatu nahi dugu. Batetik, Emakumeen Etxeak babes, elkartasun eta ahalduntze indibidual eta kolektiborako sareak sorrarazteko espazio

ezin egokiagoak direla, emakumeen gogoeta eta parte hartze aktiboa ahalbidetuz, eta feminismoa ikusaraziz eta proiektatuz. Horregatik, esan daiteke etxeak laborategi feminista apartekoak izaten ari direla, non politika, prestakuntza eta laguntza jarduerak eragin handia duen bertan parte hartzen duten pertsonen subjektibotasunaren eta kontzientzia politikoaren birformulazioan (Esteban 2022). Bestetik, gogoratu nahi dugu euskal lurraldean txertatze handia duen ekimena dela, udal mailako baina baita udal mugetatik kanpoko oihartzunarekin ere. Beraz, oraindik gehiago haziko den fenomeno dela aurreikus daiteke.

Emakumeen Etxeak planteatzen dituzten erronka batzuk

Esan bezala, Emakumeen Etxeak ekipamendu publikoak dira. Beraz, aldeak alde, udal mailan dauden beste zentroyen pare jarri behar direla uste dugu, hezkuntza, kultur eta osasun

zentroyekin alderatuz, besteak beste. Hori bai, kasu honetan, apartekotasun bat dute: Euskal Herrian tradizio handia duen mugimendu feministaren urteetako lanaren ondorioztasuna izatea, elkarte feministek udal instituzioekin lankidetzan diharduten espazioak baitira. Esan dugu orobat etxeetan zerbitzu mota desberdinak eskaini ohi direla, eta, jorrazten diren jarduera asoziatibo, administratibo eta asistentzialez gain,

Emakumeen Etxeak ekipamendu publikoak dira. Beraz, aldeak alde, udal mailan dauden beste zentroyen pare jarri behar direla uste dugu, hezkuntza, kultur eta osasun zentroyekin alderatuz, besteak beste

heziketa mailan, etxeetan txertatuta dauden Ahalduntze Eskolen lana ere azpimarragarria dela. Noiz edo noiz, jarduera horien guztien ondorioz, elkarte edo plataforma feminista berriak ere aktibatzen dira.

Hori guztia aintzat hartuz, nabarmendu behar da zentro horiek direla gaur egun Euskal Herrian dauden herritarren eta erakundeen arteko parte hartzerako ekimenen artean orekatuenetariko eta arrakastatsuenetarikoak, mugimendu feministak berak ez ezik, oro har betiere, gizarte eragile zein indar politiko nagusiek ere aitortuta eta babestuta. Horretan ere laborategi funtsezkoak izaten ari dira, eta etheen dinamikan parte hartzen dutenen arteko eztabaida, tentsio eta gatazkek euskal ezkerrean egun bultzatzen ari den politikaren nondik norakoen indarguneak, ahulguneak eta gakoak ezin hobeto seinalatzen dituzte.

Hain zuzen, kudeaketa eta politika egiteko moduei begira, eredu desberdinen balizko abantailak eta erronkak azaleratu dira gure analisian, alderdi positibo eta negatiboekin. Kasu askotan ikusi dugu ezinbestekoa (izan) dela udalaren apustua, ez bakarrik Emakumeen Etxe bat sortzeko, baizik eta herriko mugimendu feminista agentetzat hartzeko eta bere egitekoa, erritmoak, ezaugarri partikularrak eta erabakimena errespetatzeko. Horrek proiektuen arrakasta berma dezake.

Edonola ere, funtsezkoa da lekuan lekuko formula bat bilatzea eta probatzea. Formula berberak ez du zertan balio herri guztietan, nahiz eta besteen esperientziatik izugarri ikasten den. Besteen funtzionamendua ezagutzearen garrantzia argi gelditzen da, adibidez, herri batean etxe bat sortu nahi dutenean. Kasu horietan, ohikoak izaten dira bisitak, beste etxe batzuk gertutik ezagutzeko eta bertako eragileekin informazioa sakondu ahal izateko. Horrez gain, azken urteotan eratu diren etxeetan (Errenteria, Hernani, Iruñea...), sortzeko prozesu parte hartzaileak jarri dira martxan, kanpo agenteek dinamizatuta, eta batzuetan nahiko luzeak izan dira: hori berme bat da etorkizuneko kudeaketa eredu baliagarri bat finkatu ahal izateko, non are eta botere harreman gutxiago egongo diren.

Egindako elkarrizketetan agertutako alderdi negatibo edo hobetu beharreko elementu moduan, behin eta berriro agertu da baliabideen falta. Soilik Ahalduntze Eskolen eta zerbitzuen kudeaketarekin eta harrera lanak ginez, dinamizatzaileak

gaindituta daude zentro askotan. Horren ondorioz, batzuetan, elkarlana, elkartegintza eta mugimenduarekin harremanak sustatzea azken plano batean gelditzen da, ezin kudeatuz. Baliabideak jartzeak proiektu horien iraunkortasuna bermatuko luke.

Ikusi dugunez, kogestioa edo gestio mistoa (Donostiakoa eta Iruñekoa bezala) formula ezin interesgarriagoa da, bai mugimendu feministarentzat, baita herritarrak agente garrantzitsu gisa presente egoteko ere. Baina kogestioak ere baditu bere arriskuak, erritmo desberdinek, burokraziak eta halakoek elkartegintza erretzen eta desgastatzen badute. Bestalde, kogestioa izan edo beste eredu bat izan, ikusi da ezinbestekoa dela udal talde eta gobernuen kontrola erregulatzeko alternatibak ere topatzea, eta adibide ezberdinak aurkitu ditugu.

Ondorioz, erronka garrantzitsu bat agertzen zaigu: nola blindatu Emakumeen Etxeen eredua, gehiegi burokratizatu gabe? Izan ere, aldaketa politikoak egonda ere, etxeen egonkortasuna, finantzaketa eta autonomia bermatzea funtsezkoa da, bertan parte hartzea ahalik eta gehien erraztuz.

Beste erronka garrantzitsu bat da zerk funtzionatzen duen eta zerk ez ondo identifikatzea. Berrikusi eta hausnarketa egin. Etengabeko errebisioa behar du horrelako proiektu berritzaile batek. Hausnarketa hori Euskal Herriko mugimendu feministak ere egin beharko luke, etxeetan zertarako eta zergatik parte hartu nahi duen pentsatuz eta hainbat herritako esperientziak taxuz alderatuz eta aztertuz.

Pixkanaka, etxeek udalekin eta bestelako erakundeekin dituzten harremanek hobera egin dute nabarmen. Hori bai, batzuetan herritik kanpoko aitortza barrukoa baino irmoagoa izan da. Salbuespen esanguratsuen Bilboko Koloretxe egitasmoa litzateke, non argi gelditu den etxe hori martxan jartzeko traba nagusia udalaren atxikimendu falta dela.

Erakundeekin mantentzen diren harremanen gorabeherak zuzenean loturik daude udal taldeen aldaketekin, talde horien jarrera aldaketekin eta baita postu horietan dauden pertsona jakinekin ere. Halere, argi gelditzen da etxeetako langileak

eta kideak, aktibista feministak, aditu egin direla instituzioei aurre egiten eta beraien jarduerak nola edo hala iraunarazten.

Berdintasun teknikariak etxeetan kokatuta egon ohi dira, eta hori ere baldintza garrantzitsutzat jotzen da dena ondo joateko. Era berean, etxeetan lan egiten duten teknikariak zein dinamizatzaileak mugimendu feministako kide konprometitu izatea ere elementu baikortzat hartzen da.

Emakumeen Etxeek herrietako beste eragileekin (gizarte mugimenduak, gobernuz kanpoko erakundeak, elkarteak...) mantentzen dituzten aliantzak anizkoitzak eta mota desberdinetakoak izan ohi dira. Aliantza horiek, askotan, etxeetako kideek praktikatzan dituzten banakako aktibismo edo parte hartzeen bidez ehuntzen dira; hau da, garrantzitsua da militantzia anizkoitza aurrera daramaten pertsonak egiten duten zubi lana. Beste batzuetan, baterako ekimenak taldeen edo elkarten arteko adostasun edo proiektu puntual zein egonkorren bitartez gauzatzen dira.

Gure ikerlanean agerian gelditu da egunotan ohikoa bihurtu den «gauzak elkarrekin egitea» (ikus Esteban *et al.* 2020) deitu dugun politika egiteko jarrera bat, zeinetan ez diren derrigorrez eragileen arteko aliantza iraunkorrak eta epe luzerako egitasmoak bultzatzen, baizik eta denbora iraupen mugatua dutenak eta uneko konpromisoa eskatzen dutenak. Horren ondorioz, xx. mendean ohikoagoak ziren politika egiteko moldeen aurrean, gaur egun aktibismoa ulertzeko eta praktikatzeko erak aniztu egin dira, batez ere gazteen artean, eta kanpaina eta egitasmo ondo zehaztuak inprobisatzen diren une bateko ekintza eta plataformen funtzionamenduekin uztartzen dira.

Edozein kasutan, aztertu ditugun prozesu guztietan, etxeen ibilbidea bera osagai printzipala da: geroz eta urte gehiago martxan egon, orduan eta aliantza sendoagoak eratzeko aukerak daude, nahiz eta proiektuaren hasierako 'ilusioa' ere gutxitu ahal den.

Etxeetako partaideen artean aniztasunaren inguruan go-goeta egitea edota bultzatzea zeregin nabarmengarria dela ere frogatuta gelditu zaigu. Zentzu horretan, esan daiteke

etxeak aniztasunerako espazioak izan badirela, aniztasuna aldi berean errealitate eta erronka izanik. Dena den, etnia eta jatorria dira lehenetsi ohi diren aldagaiak, batez ere nazioarteko migrazioari loturik. Bigarren lekuan dago adina, batez ere gazteen faltaren inguruko kezka, eta ondo identifikatuta dago gazteek zergatik ez duten leku guztietan parte hartzen: proposatzen diren jarduera motengatik eta, bereziki, etxeen instituzionalizazioagatik. Halere, bai emakume migratuen bai gazteen parte hartze arrakastatsurako adibide onak ere badaude, Hernanin, esaterako. Eta gako orokor bat: aniztasuna babesten edo bultzatzen duten elkarteek etxeetan parte hartuz gero, pluralismoa lortzeko arrakasta handiagoa izango da.

Emakumeen aldeko politikak eta feminismoa ulertzeko moduen inguruan, eztabaidak eta tentsioak izan dira zenbait etxetan (Errenteria, Iruñea). Esan daiteke eztabaida horiek presentego daudela etxea sortzearen inizatiba instituzionala izan denean eta prozesu horretan euren burua feministatzat dutenei eta ez dutenei antzerako protagonismoa eman zaie-

nean. Hori bai, tentsioak sortu ahala, irtenbideak ere topatzen dira, feminismoak barne gatazkei aurre egiteko duen eskarmentuaren zeinu gisa. Edozein kasutan, kaleko feminismoa indartzea ere garrantzitsutzat jotzen da, eta hori ez da beti automatikoa.

Aukera sexuala eta aniztasun funtzionala dira aniztasunari dagozkion osagai ahaztuenak, nahiz eta berariazko zenbait ekimen ere indarrean egon.

Eta hizkuntzen arteko (euskara eta gaztelania, batez ere) bizikidetzarako tresnak eta estrategiak edonon aurkitzen dira.

Baina, esan dugun moduan, jatorriari buruzko desberdintasunak dira kezka eta ekimen gehien sorrarazten dituztenak.

Emakumeen Etxeak
funtsezko funtzioa
izaten ari dira Euskal
Herrian aurrera
eramaten ari garen praxi
feministaren arloan,
eta bai gizarteak bai
erakundeek babestu
behar dituzte

Noiz edo noiz, emakume migratzaileek zerbitzuen bidez eza- gutzen dituzte etxeak, eta hori beste jardueretarako ate ere izan daiteke. Beste batzuetan, badaude herrietan migrazio arloko elkarteak, mistoak zein emakumeenak bakarrik, eta baterako jarduerak bultzatzen dira. Edonola ere, etxeak ez dira bakarrik emakumeak beraien eskubideen alde mobili- zatzeko bitarteko, gizarte osoan integratzeko bide ere baitira.

Dena den, nahi ala ez, emakume guztiek ez dituzte etxeeta- ko edo herri mugimenduetako kide aktiboak izateko aukera berdinak. Behar, ordutegi eta egoera ekonomiko desberdinek goitik behera baldintzatzen dute gizartean parte hartzea. Beraz, artikulua hau bukatzeko, gure ikerlanaren ondorio na- gusietako bat azpimarratu behar dugu: Emakumeen Etxeak funtsezko funtzioa izaten ari dira Euskal Herrian aurrera eramaten ari garen praxi feministaren arloan, eta bai gizar- teak bai erakundeek babestu behar dituzte. Baina genero des- berdinkeriak eta sexismoa desagerrarazteko, klasismoaren, arrazismoaren eta bestelako opresio sistemen aurka ere jo behar dela argi gelditu zaigu; horretarako, ezin egokiagoak izan daitezke etxeetan sustatzen ari diren esperimenzioa eta jorratzeko bideak. 🍷

Oharrak

1. AFITez gain, hauek dira ikerketan parte hartu duten EHUko ikerketa taldeak: Ekopol (www.ehu.eus/eu/web/ekopol), NOR (<https://nortaldea.eus>) eta Parte Hartuz (www.ehu.eus/eu/web/partehartuz). Hiru- rek Eusko Jaurlaritzaren izendapena dute.
2. Ikus <https://afit-antropologiafeminista.eus>. Ikerlan honetan parte hartu duten AFITeko ikertzaileak hauexek izan dira: Amaia Agirre Miguelez, Margaret Bullen, Carmen Diez Mintegi, Mari Luz Esteban Galarza, Ixone Fernandez de Labastida Medina, Miren Guilló Arakista- in, Marta Luxán Serrano, Maria Ruiz Torrado, Miren Urquijo Arre- gi eta Maria Zapata Hidalgo.
3. Proiektu orokor horrek bi azpiproiektu izan ditu: (1) *Nuevas solidaridades, reciprocidades y alianzas: la emergencia de espacios colaborati-*

vos de participación política y redefinición de la ciudadanía izenekoa, Espainiako Estatuko Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioak sustatua (CSO2017-82903-R, 2018-2022); eta (2) *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik* izenekoa (2018), EHUren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmen batek finantzatua (*Etorkizuna Eraikiz* programan).

4. Ikus Esteban eta Luxán (2022). Hauexek izan dira Emakumeen Etxeetako analisiari buruz sortu ditugun hiru argitalpen: Esteban *et al.* (2020), Guilló, Luxán eta Esteban (2020), eta Barba *et al.* (2022).
5. Proiektua aurrera eramateko, metodologia kualitatiboa eta etnografikoa konbinatu ditugu, zehazki: (1) 43 sakoneko elkarrizketa egin ditugu, etxeetan modu desberdinetan parte hartzen duten 52 pertsonaren testigantzak jasoz: emakumeen elkarteetako edo talde feministetako kideak, profesional desberdinak (berdintasun teknikariak, dinamizatzaileak...) eta berdintasunerako zinegotziak. (2) Behaketa parte hartzailea etxeetan antolatzen diren jarduera mota guztietan: bilkura feministak, hitzaldiak, ikastaroak, liburu aurkezpenak, erakusketak edota ospakizunak, besteak beste; horrez gain, gure lantaldeko kide batzuek azterturiko zentroak ez diren bestelako etxeetan parte hartu ohi dute. (3) Iturri dokumentalen azterketa (tokian tokiko memoriak eta agerkariak, eskuorriak...).
6. Urte berean inauguratu zen Ermuko Emakumeen Etxea, Euskal Herrian sortu zen lehena.
7. Ikus www.farapi.com.
8. Bizkaiko Marienea Basauriko Emakumeen Etxean ere badago halako elkarte bat.
9. Ikus Esteban (2022).
10. Euskaraz ofizialduz doan 'Ahalduntze Eskola' izena erabiltzen ari gara, nahiz eta Gipuzkoan 'Jabetze Eskola' erabili ohi den, eta, Bizkaian, 'Jabekuntza Eskola'. Ahalduntze Eskolen inguruan ikerketa hauek kontsulta daitezke: Fernandez Boga (2012) eta Picaza (2017). Ikus orobat https://eu.wikipedia.org/wiki/Emakumeen_ahalduntze_rako_Eskolak_Euskal_Autonomia_Erkidegoko_udalerrietan.
11. Zenbait etxek, Basauriko Marieneak, kasu, Ahalduntze Eskola bat izan zuten jatorrian. Beste batzuetan, etxearen egitasmoaren parte izan da eskola. Bilboko kasua berezia da: udalak muzin egin dio orain arte Galtzagorri talde feministak San Frantzisko auzoan sortu nahi duen Koloretxe zentroa babesteari. Horren ordez, 'Ahalduntze Eskola ibiltari' bat jarri nahi omen du abian, hiriko kultur etxe guztietan jarduerak proposatuz.
12. Herri mugimenduetan hezkuntza dimentsioak duen garrantziaz, ikus monografiko honetako lehen artikulua eta Palumbo (2014).

Bibliografia

- Andino, Susana (2017): *La Casa de las Mujeres de los Barrios Altos de Bilbao: Una reivindicación feminista en barrios transitando de la marginalidad hacia la gentrificación*. 'Ikasketa Feministak eta Generokoak' Master Amaierako Lana. EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- Barba Gassó, Marta; Guilló Arakistain, Miren; Zabalo Bilbao, Julen; Luxán Serrano, Marta; Arana Arrieta, Edorta; Barcena Hinojal, Iñaki (2022): *Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian. Egoeraren ondorioak, egokitzapenak eta eszenatoki berriak*, Bilbo, EHU (<https://addi.ehu.es/handle/10810/56961>).
- Esteban, Mari Luz (2022): 'Women's houses in the Basque country: political, cultural and bodily laboratories of feminism', *Journal of Gender Studies*. doi: 10.1080/09589236.2022.2094351.
- Esteban Galarza, Mari Luz (arg.); Agirre Miguelez, Amaia et al. (2020): *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik / Tejiendo comunidades desde iniciativas populares*, Leioa, EHU (<https://web-argitalpena.adm.ehu.es/listaproductos.asp?IdProducts=USPDF202499>).
- Esteban, Mari Luz; Guilló Arakistain, Miren; Luxán Serrano, Marta (2022): 'Ethnography of the kitchen: The Women's House, a space for feminist Alliance and intercultural encounter', *Ethnography*. doi: 10.1177/14661381211073122.
- Esteban, Mari Luz; Luxán Serrano, Marta (koordk.) (2022): *Mugimendu feminista eta Emakumeen Etxeak: politika egiteko moduak, harremanak eta erronkak*. Txostena. Argitaragabea.
- Fernandez Boga, Mertxe (2012): *Escuelas de Empoderamiento para las Mujeres: Nuevas experiencias de formación y transformación feminista en la sociedad vasca*. 'Ikasketa Feministak eta Generokoak' Master ehuko Lana. EHUko Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea.
- Guilló Arakistain, Miren; Luxán Serrano, Marta; Esteban, Mari Luz (2020): 'La casa delle donne nei Paesi Baschi: dibattiti, processi e alleanze', in M. L. Alga eta R. Cima (argk.): *Allargare il cerchio. Pratiche per una comune umanità*, Bari, Progedit, 25-41.
- Palumbo, Mercedes (2014): 'Un desplazamiento semántico, político y geográfico en la tradición de estudios sobre Movimientos Sociales: Aportes del concepto de movimiento popular', *Estudios* 32, 25-48.
- Picaza Gorrochategui, Maitane (2017): *Espacios propios para las mujeres y procesos de empoderamiento: la Red de Escuelas de Empoderamiento de Bizkaia*. Doktorego tesia. Deustuko Unibertsitatea.

Euskal ekologisten erronkak: aniztasuna eta eraginkortasun politikoa

Andere Ormazabal Gaston

UPV/EHUKo Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakaslea eta Parte Hartuz Ikerketa Taldeko kidea

Josu Larrinaga Arza

UPV/EHUKo Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saileko irakaslea eta Ekopol Ikerketa Taldeko kidea

Nerea Zuluaga Mauri

UPV/EHUKo Soziologia II Saileko doktoregaia eta Ekopol Ikerketa Taldeko kidea

Iñaki Barcena Hinojal

UPV/EHUKo Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakaslea eta Parte Hartuz Ikerketa Taldeko kidea

Euskal mugimendu ekologistaren sorrera

Euskal Herriko mugimendu ekologistaren sorrera, orokorrean, 1970eko hamarkadan kokatzen da; dena den, aurretik bi kanpaina esanguratsu behintzat aipa daitezke. Alde batetik, Erandio herrian kutsaduraren kontra egin ziren mobilizazioak ditugu, oso jendetsuak eta oso erantzun bortitza jaso zutenak.

Beste aldetik, Zain Dezagun Belagua kanpaina dugu, Erronkariko bailara horretan eski estazio bat eraikitzeko proiektu handiaren kontrakoa, non batez ere urte horietan

oso aktibo eta politizatuta zeuden mendizale taldeek parte hartu zuten.

Baina esan daiteke mugimendu ekologista zentral nuklearraren kontrako borrokarekin gorpuztuz joan zela; izan ere, 1977an, euskal lurraldean zazpi errektore nuklear jartzeko asmoa azaldu zuten erakunde publikoetako agintari frankistek eta Iberduero enpresak. Era berean, mugimendu antinuklearraren eta ekologistaren jaiotza eta bilakaerak ezkerreko alderdi eta sindikatuekin lotura handia izan du, bereziki ezker abertzalearekin; horrek baldintzatu du, neurri batean, mugimenduaren hedapena (Barcena, Ibarra eta Zubiaga 1995).

Bestalde, mugimenduaren protesta ziklorik esanguratsuenak hauek izan direla esan dezakegu: Lemoizko zentral nuklearraren aurkakoa, Leitzarango autobidearen borroka 1989 eta 1992 artean (Zubiaga 2009), 1995ean Itoizko urtegiaren kontrako protesta, Abiadura Handiko Trenaren aurkakoa (Barcena eta Larrinaga 2010) eta Bizkaiko zein Gipuzkoako erraustegiaren kontrako mugimenduak, tokian tokiko beste hainbat borrokekin batera. COVID-19 izeneko pandemiaren zabalpenak moztu zuen beste protesta ziklo interesgarri bat izan zitekeena, 2020ko otsailaren 6an Zaldibarko zabortegiaren hondamendiak sorrarazi zuena, alegia.

Gaur egun abiapuntua mugimendu ekologista klasikoan ipini badugu ere, hasieratik ikusi dugu horren bueltan jandantik ez daudela bakarrik kanpaina ekologista 'klasikoak', ingurumenak jasandako edo sufri ditzakeen erasoaren kontra abiatzen direnak; badaude bestelako ekimen asko, agian txikiagoak edo hain ikusgarriak ez direnak, baina geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari direnak: energia, etxebizitza, elikadura eta bizitzaren beste aspektu inportanteak ikuspegi alternatibo batetik eraiki nahi dituztenak.

Gizarte mugimenduen soziologian agertzen zaigun fenomeno zahar/berri horri, gure ikerketa honetan, hortaz, mugimendu *ekoalternatiboa* deitu diogu. Bertan, batez ere, ikuspegi ekologista batetik lantzen diren erakunde, kanpaina eta proiektuetan jarri dugu arreta; baina ez bakarrik ingurumen

arazo larrien aurrean ukazio edo oztopatze politikak aldarrikatzen dituztenak, baita abiapuntu eraikitzaile eta eraldatzaile batetik maila mikro/ertainean bizitzeko bestelako aukerak –etxebizitza, elikadura, energia horniketa...– bultzatu eta egikaritzen dituztenak ere, estrategia bipolar horretan –batzuetan barne tentsioekin ere– politika formalaren esparruko agenteekin harreman orobat bipolarrak mantenduko dituztenak (Alberich 2019; Barcena, Ormazabal eta Larrinaga 2022).

Mugimenduen barne antolaketa eta parte hartzeko moduak

Batetik, esan behar dugu borondatezko lana eta aktibismoa erabiltzen dutela kasu guztietan; egin behar diren lanak aukeratzekoan, jendeak nahieran egiten du eta batzorde edota talde espezializatuak sor daitezke, aktibitate horiek errazago taxutze aldera. Oinarria lan boluntario hori izanik, egungo gizartearen lan banaketaren egituraren denbora libre gehiago eduki dezaketen kolektibo batzuk gain ordezkatuta egon daitezke.

Talde batzuetan, batez ere ekimen ekonomiko izaera handiena dutenen artean, badaude soldatapeko langileak; kasu horietan, ohikoa da soldatak berdinak eta lanen banaketa horizontala eta hautazkoa izatea, lan desatseginenak –administrazioa...– denen artean banatuz. Talde horiek ekonomia sozial eta solidarioaren eremuan

kokatzen diren kooperatibak dira askotan, eta ekoalternatibo deitu dugun arloan aritzen dira, batik bat.

Bestalde, erabakiak hartzeko moduari dagokionez, esan daiteke asanblada dela tresna nagusia, eta kasu guztietan

Gaur egun abiapuntua mugimendu ekologista klasikoan ipini badugu ere, badaude bestelako ekimen asko, agian txikiagoak edo hain ikusgarriak ez direnak, baina geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari direnak

horizontaltasuna azpimarratu eta aldarrikatzen da; hau da, taldekide guztien arrazoiak, gogoak, hausnarketak eta gurariak berdin errespetagarri eta eztabaidagarriak dira. Kontsentsu bidezko prozedura da ohikoena erabakiak hartzeko orduan. Eta talde prozesuei arreta geroz eta handiagoa eskaintzen zaiela ikusi dugu. Metodologia parte hartzaileek presentzia handia hartuko dute aztertu ditugun herri ekimenetan, eta horizontaltasuna eta talde lana bideratzeko dinamizazioa eta bestelako rolak banatuko dituzte. Era berean, modu informalean sor daitezkeen lidergoak ere kezka iturri bezala definitu dira. Generoak, adinak edota bestelako kategoria sozialek sortzen dituzten desorekak ere etengabe aipatu izan dira talde barruko lan dinamiketan.

Elkarlan sareak eta aliantzak: mugimendu ekologistaren baitan eta bestelako herri mugimenduekin

Aliantzak eta hibridazio motak

Euskal ekologismoan, ohikoak dira elkarlanak eta plataforma askotarikoak zenbait kanpaina eta erreibindikazio edo eraikitze prozesu aurrera eramateko, nahiz eta talde bakoitzak –herrikoak, herrialdekoak zein nazionalak– identitate, antolakuntza eta funtzionamendu propioa mantendu. Batzuetan ohikoak dira euren arteko mesfidantzak eta elkarreko kritikak, eta, egindako elkarrizketetan irakurtzen den moduan, tentsio horrek zenbaitetan emaitza positiboak ditu eta beste batzuetan ez horrenbeste; baina talde ekologisten arteko elkarlana aritzeko era normalizatua dela esan daiteke.

‘Saretu’ berba garrantzitsua da talde gehienek diskurtsoan. Etengabe ahalegintzen dira euren bezalako ekimenak identifikatzen eta horiekin kontaktatu eta kolaboratzen. Ekimen lokal ugari topatzen ditugu. Alde batetik, elkarte ekologista gehienek atomizatuta agertzen dira tokian tokiko errealitateei erantzuteko sortu direlako; baina, aldi berean, sintonia dagoenean, talde lokal, herrialdeko edo nazional

desberdinen artean lankidetzara jotzen dute. Nondik sortzen dira aliantzak eta elkarlanean aritzeko beharrianak? Aktibisten aburuz, erakunde politiko eta korporazio ekonomikoen erantzun negatiboan (*input* itxia) eta tinkoan dago arrazoi nagusia. Indarra egiteko eta euren aldarrikapenak aurrera ateratzeko, mobilizazio sozial jendetsuak eta eraginkorrak bilatzen dituzte, eta horretarako modu bakarra indar meta-keta omen da.

Bestalde, gure ikerketan aurkitu dugun datu esanguratsuenetarikoak da bi ekologismo mota desberdinen arteko elkarbizitza eta hibridazioa. XXI. mendeko bigarren hamarkadan ikusten dugu jada ez daudela bakarrik kalte sozioekologikoen aurkako kanpaina ekologista 'klasikoak', gizarte eta ingurumenaren aurkako 'erasoengatik' antolatuak, zabor errausketaren, garraio azpiegituren, Abiadura Handiko Trenaren edo findegi eta energia fosilen eta zentral nuklearren aurkakoak, alegia. 30 urte ondoren, kanpaina eta talde ekologista horien aldarrikapen eta praktikak euskal panorama sozioekologikoaren sustriak dira.

Aitzitik, beste mota bateko ekimen asko daude, agian txikiagoak edo ez hain agerikoak, baina gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direnak. Ekimen berri horiek kontsumo, energia, garraio, etxebizitza edota agroekologia eredu berriak lantzen dituzte, eta baita bizi eredu alternatiboak proposatu ere. Talde berri horiek parte hartze politikoa eta herritarren ahalduntzea bilatzen dituzte; horretarako, mobilizazio erreperitorioa malgutu eta aberastu dute, eta baita parte hartze politikorako kanalak eta mekanismoak, konbentzionalak edo gobernantzakoak, mestizatu ere.

Euren arteko saretzeak bultzatzen dituzte espazioak eta baliabideak partekatze, funtzionatzeko erak eta ezaupideak elkarri transmititzeko. Babesak eta oniritziak beste talde batzuetan bilatzen dituzte, hala nola alderdiak edota sindikatuak, eta trebezia gehiago erakusten dute gobernantza sareekin lan egiteko, lizitazio publikoetan proiektuak aurkeztu eta ustiatzeko edota diru laguntzak topatzeko. Merkatu

alorreko teknikak eta prozedurak –beti ere esparru txiki eta lokaletan– baliatzen dituzte euren proiektuak taxutzeko.

Hamarkada bat indarrak saretzen

Joan den hamarkadatik, euskal mugimendu ekologistak beste herri mugimenduekin elkar lagunduz jarduteko ekimen ugari antolatu ditu. Gure kontakizunaren hasiera 2013ko urrian jar dezakegu: Bizi! Iparraldeko talde ekologistak Alterna-

Euskal ekologismoaren
aliantzak eta saretze
prozesuak bi lerro eta
dinamika desberdin
jarraitu dituzte:
lurraldearen ardatza/bidea
eta gaia/ sektorea
edo tematika

tiben Herria deitu zuen, eta 10.000 pertsona inguru bildu ziren Baionan, Euskal Herriko, Frantziako, Espainiako eta nazioarteko dozenaka erakundek babestuta. Ekimen bateratzaile horrek klima aldaketaren aurkako borroka ulertzeko modua aldatzea zuen helburu.

Urte berean, Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutuna sortu zen. 2015ean Gutuna onar-

tu zen arte, sare hori (145 erakunde 130 euskal auzo, herri eta hiritan) Euskal Herriko mugimendu sozial eta sindikalen asanblada gisa egituratzen da.

Gutunaren ekimenen artean, modu nagusi eta garrantzitsuan, Alternatiben Herria egon da. Baina dudarik gabe Euskal Herriko Eskubide Sozialen Gutunak antolatu duen ekin-tzarik indartsuena 2020ko urtarrilaren 30eko greba orokorra izan da, non, erreibindikazio sindikal klasikoekin batera, bizitza duinaren moduko aldarrikapena ere azaltzen den, ikuspegi ekofeminista batetik eraikia; horregatik diogu grebaren antolaketa askotariko eta transbertsalagoa lortu zela.

Esperientzia praktikoa, mobilizazio bateratu eta kanpaina partekatu horiek pentsamendu eta ekintza ildo bat markatzen dute, kapitalismoaren alternatiba, feminismoaren, ekologismoaren eta sindikalismoaren ekarpen historiko asko bere

hausnarketa teorikoetan eta proposamen praktikoetan bildu eta agertzen dituen; horrek markatzen du euskal ekologismo eta beste gizarte mugimenduen norabidea, eta batez ere aliantzetarako eta lankidetzarako joerak.

Euskal ekologismoaren sare berriak

Arestian aipatu dugun eran, euskal ekologismoaren aliantzak eta saretze prozesuak bi lerro eta dinamika desberdin jarraitu dituzte: lurraldearen ardatza/bidea eta gaia/ sektorea edo tematika.

Aliantza eta antolamendu sektorialen artean, azpimarragarriak dira naturaren babeserako sortutakoak, adibidez Naturkon¹ Gipuzkoan, non ekologista eta naturalisten arteko lanak ideologizatu gabeko norabide amankomuna eskatzen duen, ekosistemen babesean aritzeko.

Antzeko bidetik, Bizkaian 2017an sortu zen baso politika intentsiboaren eta monolaborantzen aurkako Kolore Guztiako Basoak (KGB) ekimena, denboraren poderioz bost urte geroago Baso Biziak ekimen zabal, tokian tokiko eta biziberrituari txanda eman ziona, nekazariak, ekologistak eta udalerrriak batera jarduteko, akademiaren eta zientzialarien laguntzaz baso politika alternatiboen bila. Antzeko ekimen partekatuak topatzen ditugu alor agroekologikoan (Bizilur), energetikoan (Goienar-Iener) eta etxebizitzan (Abaraska).

Baina badaude, orobat, antolamendu territorialak dei ditza kegunak, bailaretatik hasi eta herrialde batean kokatzen direnak. Sustrai Eraikuntza Fundazioak,² Nafarroan, ingurumenaren gaineko informazioa aztertzen du, lurraldean eragiten duten egitasmoen inguruko lanketa tekniko eta juridikoa egiten du, eta, alegazio, helegite eta beste hainbat lege jardueren bidez, erakunde publiko zein pribatu ezberdinek bultzaturik, ingurumenean eragindako kalteei irtenbideak bilatzen dizkie.

Araba Bizirik 2021ean jaio zen, Abiadura Handiko Trenaren proiektuaren, mendietako megaproiektu eolikoan,

megazentral fotovoltaikoen eta proiektu agroindustrialen aurka landa eta hiriko eragile ekosozialen indarrak batzeko.

2019ko urrian, Gipuzkoan, Larreko Mahaia (Larrialdi Ekologikorako Gizarte Mahaia) sortu zen, «gizartea izan dadin larrialdi ekologikoaren kudeaketaren buru, zuzenean erabakitze eta kontrolatzeko ahalmenarekin, ordezkaritza politikoaren mendekotasunik eta tutoretzarik gabe», bere esanetan. Greenpeace, Eguzki, Erraustegiaren Aurkako Mugimendua, Extinction Rebellion eta GuraSOS daude mahai horretan, eta, horiez gain, EHNE, CCOO, LAB eta Steilas sindikatuek eta Ikasle Sindikatua eta Ernai taldeek ere osatzen dute.

2021 urtearen hasieran, Zaldibarko zabortegiko hondamendiaren lehenengo urteurrenarekin lotuz, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako 60 eragilek, ikuspegi lokalari protagonismoa emanaz, Aldaketaldia izeneko kanpaina jarri zuten martxan; mota askotako jarduerak antolatu zituzten herri, auzo, eskola eta lantokietan, larrialdi klimatiko, ekologiko eta soziala salatzen.

Ekotopaketetatik jauzi ekosozialera

2020 eta 2021 urteetako neguetan batez ere Bizkaian eta Gipuzkoan antolatu ziren Aldaketaldiek bide eredugarria markatu zuten ekologisten ekimen bateratuetan aritzeko eta elkar ezagutzeko. Eta saio horien esperientzietatik jauzi handiagoa egin beharko litzatekeela kontsideratuz, Hegoalde osora zabalduz, Ekotopaketen antolatze lanak hasi ziren. Abiapuntua 2021eko ekainean aktibista batzuek idatzitako *Ekozidua Irauli. Euskal Ekologismoa Berritzeko Ekimena* gutun manifestua izan zen. Idazki horretan euskal ekologismoaren gabeziak aipatzen ziren: ahots indartsu eta ongi artikulatu baten falta, sindikalismoan edo feminismoan existitzen diren bezala. Eta, horretarako, elkarren artean aritzeko topagune berri bat proposatzen zen, zabala, askotarikoa, irekia eta integratzailea, jadanik existitzen diren eragile ekologistekiko errespetuzkoa.

Deialdi horri erantzunez, Eibarren batzar ireki bat ospatu zuten euskal ekologistek 2022ko urtarrilean, eta zortzi hilabete geroago, prozesu ilusionagarri baten ostean, fruituak heldu ziren. Portugaleteko Sastraka gaztetxean, Ibaizabalen ezker aldean, 500 lagun bildu ziren (150, talde ekologisteta-koak, eta 350, ekologismoan antolatu gabeak).

Portugaleteko Ekotopaketen antolatzaileek arreta berezia jarri zuten talde, kanpaina eta ekimen ekologista oro gonbidatzeko, eta hiru eguneko programan ahalegin berezia egin zen askotariko ahots eta aurpegiak biltzeko, elkarren arteko ezagutza eta sareak bultzatzeko asmoz. Eta baita emakume zein gazteak euskal ekologismoaren parte aktibo izateko ere. Batzuen ustez, euskal ekologismoa oso barreiatu dago, txoko ugarian atomizaturik, talde txikitik, eta gihar bateratu bat beharko luke krisi ekosozialari irmoki erantzuteko. Beste batzuen ustez, aldiz, tokian tokiko erantzun horietan ikusten da aniztasunaren indarra eta erasoei erantzuteko ahalmena. Hori bai, denek partekatzen dute elkarren artean saretzeko eta koordinatzeko beharra.

Ekotopaketen ostean, lortutako esperientzia berritzaileari eta indarrari segida eman eta handitzeko, Hego Euskal Herriko ekologismoarentzako prozesu artikulatzaile bat aurkeztu da, eta 'Jauzi Ekosoziala' da aukeratutako izena edo marka.

Dinamika hitza erabiltzen da, eta ez eragile, antolakunde, koordinakunde edo plataforma, bere izaera irekia edo ez-bukatua azpimarratzeko. Dinamika horrek bi fase izango ditu. Lehenengo fasean, gai sozialekin zerikusia duten ekimenak eta mobilizazioak gauzatzea izango da xedea, energia eta klima gai orokorren ildotik. Bigarren fasea, ordea, eztabaida fasea izango da: tresna edo eragile ekologista berriaren inguruko barne eztabaida egitea, alegia.

Afinitatea aniztasunaren aurrean

Aniztasuna zentzu zabalean hartzen badugu, mota asko ezberdin ditzakegu, gizarte aldagaiak bezainbeste: adina,

egoera sozioekonomikoa, ideologia, gaitasun funtzionala, sexua, generoa, nazio identitatea, hizkuntza... Gizarte mugimenduetan, orokorrean, horiek kontuan hartzeko saiakera dago; baina esan genezake, aniztasunaren aferari dagokionean ere, maila diskurtsibotik praktikara jauzi handia dagoela. Alegia, eragileen profila gura dena baino homogeneousagoa dela.

Talde ekologistak, gainera, talde txikiak izaten dira, eta horregatixe afinitatekoak eta oso identitarioak (Ibarra, Marti eta Gomá 2002). Gainera, tokian toki antolatzen dira, hau da, partaideak herri, udalerrri edo eskualde berekoak izan ohi dira.

Badaude, ordea, azken urteetan sortu diren hainbat ekimen eta talde testuinguru globalago edota nazioartekoagoan kokatzen direnak. Zentzu horretan, hiru ekimen sozioekologiko aztertu ditugu, alde batetik maila globalagoan koka daitezkeenak, baina betiere Euskal Herrian kokatzen direnak: Errausketaren Aurkako Mugimendu, Iraultza Txikien Akanpada eta Ekotopaketak. Bestalde, maila nazioartekoagoan, Fridays for Future eta Extinction Rebellion aipatuko genituzke.

Errausketaren Aurkako Mugimenduari dagokionez, partaideen aniztasuna dugu gizarte mugimendu horren ezaugarri nabarmenetakoa. Aniztasun ideologikoa, soziala eta baita adinari dagokiona ere.

Iraultza Txikien Akanpadak aniztasuna barne biltzeko helburua zuen, bereziki jatorri edota estatus sozioekonomiko txikiko gizarte sektoreen ausentziari aurre egiteko, eta gaia jorratzeko mahai inguru zehatz bat egin zuten. Gainera, generoari, adinari eta hizkuntzari lotutako profil ezberdinak kontuan izateko saiakera ere egin zuten, era honetako neurrien bitartez: generoarekin zerikusia zuten oharrak dinamizatzerakoan, emakumeentzako saio ez-mistoa; umeentzako gunea landu zuten; hizkuntzari dagokionez, espazio guztietan itzulpengintza bermatuta zegoen; otorduen prezioa merkeak zen –bost euro inguru–...

Ekotopaketak, aldiz, bereziki taldeen arteko interakzioak eta harremanak sendotzeko eta aniztasuna barne biltzeko helburuarekin egin ziren. Generoari dagokionez, izena emandakoen

%51,2 emakumeak izan ziren; adinari dagokionez, adin tarte guztietako jendea zegoen, eta %70 baino gehiago ez ziren talde ekologistaren bateko kide, eta talde ekologisten artean aniztasun handia zegoela nabarmendu dezakegu.

Fridays for Future gazteek osatutako mugimendua da, baina, horrez gain, talde askotarikotzat dute beren burua, transexual edota migrante diren partaideak ere badaudelako. Hizkuntzari dagokionez, ez dute euskara lehenesten, eta erdaraz aritzen dira nagusiki; baina euskaldunentzako espazioa izatea ere nahi dute, eta horregatik saiatzen dira guztia bi hizkuntzatan egiten. Extinction Rebellion mugimenduan ere berdina gertatzen dela esan dezakegu.

Bi mugimendu horien kasuan, nazio identitatea eta ideologia alde batera uzten da.

Ekotopaketetan ikusi genuenez, adin nagusikoek ('ekologismoaren militante historikoak', gizonak horietako asko) sistemaren kontrako borroka erdigunean jartzen zuten eta mugimenduaren estrategia ezberdinak nabarmentzen zituzten, horien arteko desadostasunak plazaratuz. Gazteek, berriz, ekologismoaren gaineko beste kezka asko zituzten eta gizartearen dinamikei arretaz begiratzen zieten, kultur aldaketa lehen lerrora ekarriz: «Munduan egoteko beste modu bat eskaini behar du ekologismoak».

Esan genezake, bestalde, sexu orientazio ezberdina eta aniztasun funtzionala dutenak oso gutxi ordezkaturik daudela (edo batere ez) talde ekologistetan. Azken horiei dagokienez, oso adierazgarria da elkarrizketatu batek kontatutako esperientzia bat: bilerara aulkidun pertsona batek joan nahi izan zuen, baina ezin izan zuen bileran parte hartu lekua ez zegoelako aulkiz iristeko egokituta.

Ekotopaketak bereziki taldeen arteko interakzioak eta harremanak sendotzeko eta aniztasuna barne biltzeko helburuarekin egin ziren

Hizkuntzari dagokionez, esan beharra dago elebitasuna nagusitzen dela mugimendu ekologistetan.

Instituzioen eta mugimendu ekologistaren arteko harremanak

Erakunde instituzionalaren eta mugimendu ekologistaren arteko hartu-emanari dagokionez, esan dezakegu, tokiko administrazioarekin elkarrizketarako espazioak zabaldu arren, urruntasuna nagusi dela, eta elkarlana egon izan den kasuetan harreman gorabeheratsuak eta konplexuak izan direla (Ibarra, Zubiaga eta Barcena 1995; Barcena, Larrinaga eta Zubiaga 2011). Ekimen ugarietan tentsio uneak bizi izan dira tokian tokiko erakundeekin.

Kontuan hartu behar dugu, orobat, zenbait mugimenduk ez dutela hartu-emanik sustatu nahi erakundeekin, eta talde barneko ildoak lehenesteari eta taldearen autonomiari garrantzi handia ematen dietela. Kontraboterearen izaerari lotutako posizioa dela esan dezakegu.

Aztertu ditugun beste asko, ordea, alternatiben eraikuntzan buru-belarri dabilzalako edota politika publiko zehatzekin lotura dutelako, erakundeetara hurbiltzeko prestasuna azaldu dute. Kasu horietan, udal gobernuan dagoen alderdiaren arabera, harremana aldatzen da: identifikazio ideologikoa partekatzen dutenean, hartu-emana hurbila eta errazagoa izan da, kontrakotasuna nagusitu den udalerriekin alderatzen badugu. Gipuzkoan, adibidez, 2011-2015 agintaldian oso agerikoa izan da elkarlana erraustegiaren kontrako mugimenduarekin (Ormazabal 2019). Hurbiltasun horrek, dena dela, ez du esan nahi tentsio eta gatazka uneak egon ez direnik. Taldeak kexatzen dira erakundeen jarrera oso ezkorra eta itxia ikusten dutelako, askotan legez jaso beharko lituzketen erantzunak (erreklamazio edota informazio publikoaren prozesu formalizatutan) ez direla heltzen. Oso aldarrikapen ohikoa da prozesu parte hartzaileak edota herri galdeketak eskatzea. Eta, batzuetan, eurek antolatzen dituzte kontsulta horiek.

Elkarlan espazioetan erakundeen funtzionamendu logika nagusitzen da, mugimenduen kalterako; kasu batzuetan aktibismoaren ahultasuna eragin du, edo gatazka desaktibatze-ko arriskua egon daiteke. Abian jarritako interlokuziorako espazioak eremu instituzionalaren ekimenetik sortu izan dira nagusiki, bertatik eta bertako egituretara oso zuzenduta, gizarte mugimenduen logika, tempo, hizkuntza eta lan kulturatik oso urrun. Azken batean, lanerako erritmoak, hizkuntza, espazioak, lan ordutegiak, departamentalizazioa, oztopo legalak, hierarkizazioa eta bestelako logika arautzailak nagusitu dira.

Bereziki ezker eraldatzaileen koordenatu ideologikoetan kokatzen diren alderdien aldetik, zailtasun handiak egon dira ekimen edo borroka ekologistetan lidergotza politiko partekatua sortzeko. Ezkerreko alderdien eta herri mugimenduen artean partekatu eta adostutako hausnarketa estrategikorik nekez topa daiteke inguruan. Kasu gutxi batzuetan aitor-tzen da udalek egindako lana (AHTren kontrako borrokan eta Errausketaren Aurkako Mugimenduan, elkarrizketatuek zenbait udalen jarrera nabarmendu dute).

Genero ezberdintasunak eta ikuspegi feminista mugimendu ekologistan

Mugimendu ekologistako kideen artean, argi ikusi dugu, ekimen berrietan batik bat, genero zapalkuntzak eztabaidatu eta problematizatu dituztela euren batzar eta jardueretan. Jokamolde sexistak ekiditeko adostasunak eta aldaketak bilatu dituztela. Talde gutxi batzuetan, emakumeen kidegoa gizona baino kopuru handiagokoa da, eta ekitaldi publikoetan zein barneko funtzionamenduan emakumeen presentzia eta parte hartze orekatuaren aldeko apustua egiten saiatu dira. Kolektibo batzuetan mugimendu feministako partaideak daude, eta emakume eta gizonen arteko ezberdintasun sozialen ikuspuntuak agerian jartzen dituzte. Mugimendu ezberdinen arteko elkarlan espazioetan, emakumeen arteko

aliantzek ahalbidetu dute, batetik, taldean zeuden desorekak ikusaraztea, eta, bestetik, horiei aurre egiteko bitartekoak mahaigaineratzea.

Beraz, neurri ezberdinak inplementatu direla esan daiteke. Genero arteko harremana kezka iturri da ekimen gehienetan. Elkarrizketatuek genero desorekak identifikatu dituztela esan dezakegu, eta nabarmentzekoa da horiei aurre egiteko formulatu diren estrategia eta bitarteko ezberdinak. Arestian aipatu-takoen artean, azpimarra egin nahi diogu begirada feminista

Azken urteetan, ekologismotik datozen gai batzuekiko kezka handitzen ari da gizartean, eta nabaria da ekologismoaren eragina hazkorra dela beste gizarte mugimenduen diskurtso eta jardueretan

zuten emakumeen arteko elkarlanari. Izan ere, espazio ez-mistoen, emakumeen arteko elkarrizketa eta konplizitaterako guneak sortu izan direnean, genero desorekak lantzeko bitartekoak eta lan egiteko modu horizontalagoak edo demokratizatzaileagoak jorratu direla esan daiteke.

Bestalde, zenbait aktibisten esanetan, ekofeminismoaren ekarpena handia izan da, nagusiki ikuspegi diskurtsibotik, ez hainbeste praxiaren eremuan. Urteak daramatzate ikuspegi hori lantzen, eta gaur egun ikusgarritasun handiagoa izatea lortu duela diote askok.

Genero ezberdintasunei dagokienez, orokorrean mugimendu ekologistan gizonak nagusi dira; dena dela, espazio maskulinizatu horietan, pixkanaka joera sexistak eta genero desorekak lantzeko neurri txikiak hartu direla esan dezakegu.

COVID-19: pandemiaren eragina euskal ekologismoan

Zer gertatu da pandemian? Hasteko, ekologismoaren diskurtsoak zentralitatea hartu du. Azken urteetan, ekologismotik

datozen gai batzuekiko kezka handitzen ari da gizartean, eta nabaria da ekologismoaren eragina hazkorra dela beste gizarte mugimenduen diskurtso eta jardueretan. Baieztatu dugunaren arabera, gaur egun gertaera eta inplikazio askoren poderioz hurbiltzen dira euskal herritarrak ekologismoaren eremura: klima aldaketa, energia iturrien inguruko zalantzak, garraio politikak, elikadura eta kontsumo ohiturak, besteak beste. Gai horien gainean ekologismoak egiten dituen interpretazioak eta jakinarazpenak asko zabaldu dira azken urteotan, gaiak munduko agendan duen garrantziaren seinale. Ekologismoaren lehengo ildo klasikoa eguneratuta, talde berriak ugaltu dira, eta, feminismoan gertatzen den bezala, eremu batean baino gehiagotan sailka daitezke talde horiek. Ikerketan parte hartu duten talde ekologista gehienak azken hamar urteetan sortutakoak dira.

Ekologismoarekin lotutako gaiak protagonismo handiagoa hartzen ari badira, aldatu eta areagotu al dira gizarte mugimenduek talde ekologistekin dituzten harremanak? Galdera horri emandako erantzunak behatuz gero, esan daiteke ekologismoak gero eta gehiago eragiten duela gainerako mugimenduetan, eta horrek beren arteko loturak sendotzea ekarri duela. Era horretan, aztertutako mugimenduen %40,5ek pandemiaren aurretik ere bazuten loturarik talde ekologistekin, baina orain erdia baino gehiago dira (%59 guztira); aurreko harreman sareei berri ugari gehitu zaizkie.

Bestalde, ekologismoan aritzen diren pertsonen ustez, eremu horrek gero eta garrantzi handiagoa izango du gizartean, eta herritarrak kezkatuko ditu aurrerantzean ere. Breno Brin-gel eta Geoffrey Pleyers soziologoek diotenez (2020), hori ez da Euskal Herrian gertatutako fenomeno soilik; pandemiaren testuinguruan, mugimendu ekologistak eta justizia klimatikoaren auziak protagonismo handiagoa lortu dute, elkartasun sareetan oro har eta eremu agroekologikoan. 🌱

Oharrak

1. Informazio gehiagorako, ikus <http://naturkon.blogspot.com>
2. Informazio gehiagorako, ikus <https://sustrairakuntza.org>

Bibliografia

- Alberich, T. (2019): '¿Y después del 15M, qué? Ciclos de movilización y aprendizajes conceptuales', in R. Díez García eta G. Betancor Nuez (argk.): *Movimientos sociales, acción colectiva y cambio social en perspectiva. Continuidades y cambios en el estudio de los movimientos sociales*, Abadiño, Betiko Fundazioa.
- Barcena, I.; Ibarra, P.; Zubiaga, M. (1995): *Nacionalismo y ecología. Conflicto e institucionalización en el movimiento ecologista vasco*, Madril, Los Libros de la Catarata.
- Barcena, I.; Larrinaga, J. (2010): 'Luces y sombras en la lucha contra el TAV en Euskal Herria', in P. Ibarra eta E. Grau (koordk.): *Jóvenes en la red. Anuario de movimientos sociales 2010*, Bartzelona, Icaria, 223-232.
- Barcena, I.; Larrinaga, J.; Zubiaga, M. (2011): 'Reflexiones teóricas sobre la relación entre el medio ambiente, la participación y la democracia', in N. Bergantiños, P. Ibarra eta J. Martínez (argk.): *Participación, cultura política y sostenibilidad*, Bartzelona, Hacer, 109-138.
- Barcena, I.; Ormazabal, O.; Larrinaga, J. (2022): 'El movimiento ecoalternativo y las redes de gobernanza en Guipúzcoa (País Vasco): El surgimiento de un nuevo modelo', *Clivatge* 10, 1-25.
- Bringel, B.; Pleyers, G. (argk.) (2020): *Alerta global. Políticas, movimientos sociales y futuros en disputa en tiempos de pandemia*, Buenos Aires eta Lima, CLACSO eta ALAS.
- Ibarra, P.; Martí, S.; Gomá, R. (2002): *Creadores de democracia radical. Movimientos sociales y redes de políticas públicas*, Bartzelona, Icaria.
- Ibarra, P.; Zubiaga, M.; Barcena, I. (1995): 'Mugimendu sozialak eta demokrazia Euskal Herrian: intsumisioa eta ekologismoa', *Uztaro* 14, 99-125.
- Ormazabal, A. (2019): 'Herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen ezinak eta eginak. Gipuzkoako esperientzia (2011-2015)', *JAKIN* 232, 31-66.
- Zubiaga, M. (2009): *Boteretik eraginera: mekanismoak eta prozesuak Leitzarango eta Urbina-Maltzagako liskarretan*. Doktorego tesia. EHU.

Korrika: gizarte subjektuen bilgune

Maddi Galdos Areta

*UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioa eta
Publizitatea Saileko eta NOR Ikerketa Taldeko ikertzailea*

Josu Amezaga Albizu

*UPV/EHUko Ikus-entzunezko Komunikazioa eta
Publizitatea Saileko irakaslea eta NOR Ikerketa Taldearen
koordinatzailea*

Korrikaren izaera bateratzailea

43 urte, 22 edizio, 56.000 kilometro inguru, ehunka mila pertsona izerdi, barre zein malkotan, hiruzpalau kontinentetako hamarnaka hiritan erreplikak, Europako beste mugimendu batzuen erreferente zuzena...¹ Zenbaki asko eman daitezke Korrikari buruz.

Zenbaki handi horien artean, ordea, bat nabarmentzen da, txikiagatik: ekitaldi horren inguruan maila akademikoan idatzi diren argitalpenen kopuru eskasa. Nagusiki, liburu bi, bat bi hizkuntzatan (Del Valle 1988, 1994; Gurrutxaga, Elorza eta Ubeda 1997); bost artikuluko indexatutako aldizkarietan (Arana, Narbaiza eta Mimenza 2015, Galparsoro *et al.* 2017, Ibarretxe 2006, Kotenko 2019, Urla 1995); dozena erdi bat aurkezpen nazioarteko kongresutan; eta zenbait artikuluko dibulgatibo. Konpentsatzeko-edo, euskal komunikabideetan presentzia oso handia edizio bakoitzean (Arana, Narbaiza eta Mimenza 2015).

Korrikaren dimentsio kuantitatibo zein soziala kontuan hartuz gero, gutxi ikertutako gertaera izan dela esan behar dugu (Kotenko 2019). Teresa del Vallek oso hasieratik ikusi zuen, ordea, ekitaldi horren garrantzia, eta luze baino lehen ezinbesteko erreferente izan den liburua ondu zuen, Korrikaren laugarren edizioaren inguruan.

Idatzi diren ia lan guztietan, lehen liburu aitzindaritik aurrera, bada ideia bat behin eta berriz nabarmentzen dena: Korrikak jendea zein diskurtso sozialak bateratzeko duen ahalmen handia.

Del Vallek berak erakusten du, bere lanean, Korrika herriaren edonolako arazoan aldarrikapena dela. Ibilbide osoa jarraituta, bertako parte hartzea deskribatzen du, besteak beste aldarri ezberdinen presentzia azpimarratuta: langabeen mugimendua, presoan aldeko mugimendua eta intsumisoen mugimendua dira, besteak beste, euskararen aldeko mugimenduez gain aipatzen dituen bestelako mugimenduak. Ez da ahaztu behar liburua idatzi zen garaian tirabira handiak zeudela euskararen aldekoen artean ere, zeinek biziberritzea modu ezberdinean ikusten baitzuten (Urla 1995). Desadostasun horiek jarduera politikoan ere islatzen ziren, ezker abertzalearen eta gobernuan zegoen alderdi jeltzalearen artean, azken horrek une batzuetan Korrika boikotatzeraino. Garai hartan, halaber, gizarteko zenbait sektore, aldarrikapen eta mugimendurekiko hurbilketa prozesuan zegoen ezker abertzalea (Amezaga 1996). Beraz, ezin da ezohikotzat hartu Korrika bezalako ekitaldi bat, bere ezaugarriengatik zein testuinguruagatik, sektore eta aldarrikapen ezberdinen bilgune izatea.

Patxi Uribarrenek ere, *Karmel* aldizkarian argitaratutako zenbait artikulu dibulgatibotan, euskararen izaera bateratzailerik azpimarratzen du (Uribarren 1993, 2001). Ildo beretik mintzo dira Amaia Galparsoro, Mirari Garmendia, Ekain Ormazabal eta Nora Urbizu beren lan akademikoan (Galparsoro *et al.* 2017). Emozioen begiradatik abiatuta, Lizarrako Korrikara gerturatze bat burutu eta «ezberdinak elkartzeko

eta erakartzeko parada» gisa definitzen dute Korrika. Horren adierazle da, besteak beste, Korrikaren ibilbidean zehar toki-ko edo nazio mailako aldarrikapenen presentzia, Kotenkok ere bere ekarpenean azpimarratzen duena, parte hartzaileek ekitaldi hori gai ezberdinak jorratzeko baliatzen dutela esanez (Kotenko 2019). Etengabe errepikatzen den elementua dugu, beraz, Korrikaren izaera bateratzailea: Korrikak izaera inklusiboa duela azpimarratzen da, eta euskal komunitateko sentsibilitate ezberdinak elkarrekin bizitzeko, komunikatzeko eta mugiarazteko zubi lanak egiten dituela baieztatzen da hala. Egile horien arabera, bada, Korrikak euskaldun izateko modu guztiak barne biltzen ditu.

Esandakoaren ildotik, bada interesgarri zaigun beste ekarpen bat ere. Ugaitz Agirrek diosku, bada, Korrikaren ibilia edizioz edizio abestiaren bidez aztertuz gero, euskaltasuna ulertzeko era ezberdinak topa ditzakegula horietan (Agirre 2019). Dioenaren arabera, lehenengo Korrikaren abestiak berak, dagoeneko, euskalduntasuna birdefinitu zuen: Euskal Herria ez zen odolarekin lotuko gehiago; aitzitik, euskara bera hartu zuen Amurizak euskalduntasunaren oinarri gisa, lehendik zetorkion ETA-ren diskurtsoari jarraiki, eta sortutako abestiak adierazten du euskaldunen arteko batasuna euskarak gauzatzen duela. Euskalduntasunaren ardatz gisa euskara izendatzea Korrikaren edizio orotan mantendu den elementua izan dela diosku Agirrek. Are gehiago, lehen edizioko abestiak Korrikaren diskurtso (musikatuaren) oinarriak finkatu zituen: subjektua nor den, zein ezaugarri dituen, euskara subjektuarentzat zer den eta subjektuaren lurraldea zein den. Dioenaren arabera, bada, subjektuaren

Korrikak izaera inklusiboa duela azpimarratzen da, eta euskal komunitateko sentsibilitate ezberdinak elkarrekin bizitzeko, komunikatzeko eta mugiarazteko zubi lanak egiten dituela baieztatzen da hala

ezaugarriak izan dira aldatzen joan direnak, Euskal Herrian gertatu diren aldaketak tarteko.

1980ko hamarkada Korrikari forma emateko hamarkada izan zela dio Agirrek, eta, horrenbestez, garai hartan Korrikako *gutasuna* eraikitzeke oposizioa (Korrikaren aurka zeudenekiko) elementu garrantzitsua izan zela baieztatu daiteke. Hala ere, eta bereziki 2001eko Korrikatik aurrera, badira subjektuari dagozkion aldaketak adierazten dituzten elementu azpimarragarriak. Agirrek Fermin Muguruzaren *Big Beñat*, Betagarriren *Ongi etorri lagun* eta Mad Muasel, La Furia eta Muguruzaren *Klika* abestiak aipatzen ditu. Dioenaren arabera, *Big Beñat* globalizazioaz mintzo da, eta horrek munduan kokatzen ditu euskaldunak. *Ongi etorri lagun* abestiak gizartearen profil aldaketari egiten dio erreferentzia, atzerritik etorritako pertsona kopurua handitu ondoren, horien integrazioarako euskararen bidea erakusten baitzaie. Amaitzeko, 21. edizioko *Klika* abestiak herri feministaren aldarria hedatzen du.

Aniztasuna, beraz, berezkoa du Korrikak, eta hori azpimarratu dute maila akademikoan zein harago argitaratu diren lanek. Artikulu honek ere ildo beretik joko du, aipatu (eta aipatu gabeko) egileek mahai gainean jarri dituzten analisiei beste bat gehituz: zein dira Korrikan parte hartzen duten pertsona eta taldeak?

Metodologia: Korrikaren lekuko eramaileak identifikatzen

Zein dira Korrikan parte hartzen dutenak?

Galderari erantzuna emateko, metodologia kuantitatiboa erabiliko dugu. Korrika, sinbolo indartsu bat izateaz gain, jende eta eragile asko mugimenduan jartzen duen jarduera bat da. Bere milaka kilometroetan zehar, norbaitek eramaten du lekukoa. Gure analisisian, horiek zenbatu eta aztertu nahi izan ditugu, Korrikaren soziologia eginez.

Azterketarako, Korrikaren 21. edizioa hartu dugu, *Klika* lelopean 2019ko apirilaren 4an Garesen abiatu eta 14an,

2.562 kilometro beranduago, Gasteizera iritsi zena. Edizio hartako lekuko eramaileak ditugu, eta, beren izaerak identifikatu ondoren, irizpide ezberdinen arabera sailkatu ditugu.

Lekuko eramaile gisa, Korrikaren erregistroetan agertzen diren entitateak hartu ditugu. Izan ere, batzuetan lekukoa hartzen duen pertsonak talde edo erakunde bat ordezkatzeko; beste batzuetan ez, ordea, arrazoi ezberdinak direla medio. Bestetik, lekukoa eramaten dutenak eta kilometroaren erosketa finantzatu dutenak bereizi behar dira, ez baitira beti bat bera.

Beste kontu garrantzitsu bat kilometro batzuetan gertatzen den bikoizketa da: sarri gertatzen da kilometro batean entitate batek baino gehiagok hartzea. Horren ondorioz, 2019ko edizioak 2.562 kilometro izan zituen arren, lekukoa 4.455 entitatek hartu zutela esan dezakegu.

Zerrenda horretako entitateak identifikatu dira, lehenik. Kasu batzuetan, identifikazioa erraza izan da, erakunde ezagunak direlako (euskaltegiak, udalak, erakundeak, elkarte handiak...). Beste kasu batuetan, ordea, banan-banan bilatu behar izan ditugu entitateen ezaugarriak, horretarako Interneteko bilatzaileak zein administrazioko enpresa, elkarte eta fundazioen erregistroak erabili ditugularik.

Horrela, lan eskeraren ondoren, ia denak identifikatu dira: entitatearen egiturazko izaerari dagokionez, bederen, 128 soilik geratu dira identifikatu gabe (%2,9).

Identifikatutako entitateak bi irizpideren arabera sailkatu dira. Batetik, horien egiturazko izaerari erreparatu diogu. Bestetik, horien jarduera eremuari. Saillapenak ez dira beti errazak, eta ariketa zaila da gizarte oso baten egituratze formak eta lan egiteko eremuak kategoriatu gutxi batzutaratzea. Euskal Herriko gizarte mugimenduei buruz atera berri den liburuak erakusten duenez, aberatsa eta askotarikoa da euskal gizarte sarea (Barba *et al.* 2022). Lan horretan nola edo hala militantzia lan gisa hartzen direnak eremu askotarikoak badira, Korrikaren inguruan biltzen direnak askoz askotarikoagoak direla esan behar dugu: batetik, aurrekoen gain,

egitura eta erakunde oso formalak biltzen direlako (alderdi politikoetatik hasi eta erakunde publikoetaraino); bestetik, banakoen mailaraino jaisten delako.

Gauzak horrela, osatu dugun taxonomia ez dator beti bat beste lan batzuek osatzen dutenarekin. Barba *et al.* (2022) lanean, gizarte mugimenduen barnean sartzten dituzte euskalgintza eta *kulturgintza* bera, eta ezin da ukatu arlo horietako talde askok gizarte mugimenduen ezaugarriak dituztela. Baina, analisi honetarako, batera jarri nahi izan ditugu, adibidez, euskararen aldeko talde militanteak zein euskaltegiak edo are erakunde oso finkatuak (Euskaltzaindia, kasu). Berdin esan genezake kulturgintzaren arloan, zaintzarenean... Horregatik, lan honek eskaintzen dituen datuak interpretatzean, taxonomia hau Korrikaren atzean ageri diren diskurtso eta sektoreak identifikatzeko propio egin dela pentsatu behar da.

Mugak muga, hala ere, entitateen definizio operagarriak ematen ahalegindu gara azterketa burutu ahal izateko. Horrela, sortutako kategoriak honakoak dira:

Egiturazko izaera: banakoa, familia, jendea/herria/asanblada, elkarte formala, ikasgunea, enpresa, sindikatua, talde politikoak, erakunde ez-publikoak, erakunde publikoak, ezezaguna.

Jarduera eremua:

- Kulturgintza: antzerkia, dantza, folklorea, gastronomia, jaiak, historia, musika, zinema, kulturgintza, euskara, diaspora, bestelakoak.
- Gizarte mugimenduak: adinekoak, antimilitarismoa, emakumeak, etorkinak eta internazionalismoa, gazteak, ingurumena, politika, antirrepresioa.
- Ongizatea: aisialdia, zaintza, auzoa, lagunartea, kontsumoa, kirola, erlijioa.
- Erakundetzea, ekonomia eta zerbitzuak: administrazioa, osasungintza, komunikazioa, hezkuntza, ikerkuntza, lan mundua, merkataritza, ostalaritza, zerbitzuak, bestelakoak.
- Arlo jakinik gabekoak: banakoak.

Analisia: gizarte oso bat lekukoa eskuan

Eramaileak herrialdeka

Lehen-lehenik, ikus dezagun lekuko eramaileen panorama orokorra, herrialdeen arabera. 1. taulan azaltzen dira banatuta:

1. taula. Korrikaren lekukoa eraman duten entitateak parte hartutako herrialdeen arabera

<i>Herrialdea</i>	<i>Entitateak</i>
Araba	513
Bizkaia	1.295
Gipuzkoa	1.172
Lapurdi	276
Nafarroa Beherea	186
Nafarroa Garaia	977
Zuberoa	36
<i>Euskal Herria</i>	<i>4.455</i>

Ikusten dugunez, Korrikako kilometroak ez dira modu proportzionalean banatzen eskualde guztietan. Zuberoan oso kilometro gutxi ibili ziren 2019ko edizioan, eta Bizkaia zein Gipuzkoan asko. Nafarroa Garaian, aurreko bietan baino gutxiago, nahiz eta lurraldea askoz handiagoa izan.

Datu horiek oso kontuan hartzekoak izango dira hurrengo lerroetan egingo diren analisiak ulertzeko, batez ere herrialdeen arteko ezberdintasunak aztertzen direnean.

Banaketa orokorra egiturazko izaeraren arabera

Datuen arabera, elkarte formalek (hots, nolabaiteko aitortza ofiziala edo egitura egonkorra duten elkarteek) osatzen dute multzorik handiena, entitateen %43 baitira 2. taularen arabera. Gainerakoa oso banatuta dago, bereziki beste lau kategoria hauen artean: jendea/herria/asanblada deitu ditugunak (hots, egitura egonkor eta aitorturik gabe osatutako taldeak), ikasguneak (maila guztietako ikastetxeak zein nagusientzako akademiak eta euskaltegiak), enpresak (handi zein txikiak), eta erakunde publikoak (administrazio orokorrekoak, udalak

zein zerbitzu espezifikoak, hala nola osasun zentroak). Horiei talde politikoak gehitzen zaizkie (nazio mailakoak zein tokian tokiko egiturak), eta atzetik datoz bestelako entitateak: banakoak, familiak, erakunde ez-publikoak (nazio mailakoak baina herri ekimenekoak) eta sindikatuak.

2. taula. Entitateak egiturazko izaeraren arabera

<i>Izaera</i>	<i>Entitateak</i>
Banakoa	193
Familia	10
Jendea/herria/asanblada	459
Elkarte formala	1.948
Ikasgunea	484
Enpresa	416
Sindikatuak	50
Talde politikoa	208
Erakunde ez-publikoa	5
Erakunde publikoa	554
Ezezaguna	128
<i>Orotara</i>	<i>4.455</i>

Banaketa orokor horri dagokionez, esan daiteke oro har antzeko egitura ageri dela zazpi herrialdeetan: guztietan dira elkarte formalak multzorik handiena. Eta jarraian datoz beste lau kategoria handiak (jendea/herria/asanblada, ikasguneak,

Nolabaiteko egitura finkoa duten elkarteak dira Korrikako lekuko eramaileen multzorik handiena, herrialde guztietan: lekuko eramaileen %43

enpresak eta erakunde publikoak), ordena eta pisu ezberdinekin bada ere. Eramailen soslaiak, beraz, gehiago du homogeneousetik heterogeneotik baino lurraldearen ikuspegitik. Hala ere, alde batzuk ageri dira herrialdeen artean: Nafarroa Garaian, adibidez, pisu handia hartzen dute egitura formalik gabeko taldeek eta

banakoek (batezbestekoaren bikoitza bi kasuetan), eta txikiagoa ikasguneek eta elkarte formalek; baita, gero ikusiko dugunez, udalek ere. Lapurdi eta Nafarroa Beherean gainerako

herrialdeetan baino handiagoa da ikasguneek hartzen duten pisua; hori, seguruenik, gainerako eragileek pisu txikiagoa hartzearen ondorioa da. Hala ere, esan den moduan, egitura orokorra ez da gehiegi aldatzen herrialde batetik bestera (are Zuberoan, oso unibertso txikia izan arren).

Nolabaiteko egitura finkoa duten elkarteak dira, beraz, Korrikako lekuko eramaileen multzorik handiena, herrialde guztietan: lekuko eramaileen %43. Elkarte horiek era askotakoak dira, eta gizarteko oso arlo ezberdinetan lan egiten dute. Maila ezberdinetakoak dira orobat, auzo mailatik nazio mailaraino. Jarduera eremuak aztertzen ditugunean berriro itzuliko gara elkarte mota horietara, horien izaerari buruzko xehetasun gehiagoren bila.

Elkarte formal horietan oso handia da era guztietako kultur taldeen presentzia, eta beste izaera bateko elkarteak ere nabarmentzen dira: gizarte mugimendutzat har ditzakegunak eta hezkuntzari lotutakoak, bereziki (ikastetxeetako guraso elkarteak, kasu). Hiru multzo horietatik at, kolore anitzekoa da elkarte formalen izaeren argazkia.

Erakunde publikoak (lekuko eramaileen %12) izaera ezberdinetakoak dira: batzuk administrazio orokorrekoak dira (udalak, aldundiak, gobernuak...); beste batzuk, zerbitzu espezifikotakoak (osasungintza, adibidez). Nabarmena da hor udalen presentzia: hiru erakunde publikotatik bi udalak dira.

Udalei dagokienez, nabarmendu behar da Korrikan duten pisua; baina pisu hori oso ezberdina da herrialdeen arabera, 3. taulak erakusten duenez.

Euskal Herriko udalen erdiak baino gehiagok hartu zuen lekukoa, beraz, 2019ko Korrikan. Parte hartze hori handiagoa izan zen Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Lapurdin, herrialde horietako udal gehien-gehienak ageri baitira eramaileen artean. Nafarroan (Garaian zein Beherean) txikiagoa da portzentajea, esanguratsua izan arren. Eta Zuberoan oso txikia; azken horretan, ordea, gogora ekarri behar dugu ekialdeko euskal lurraldean oso kilometro gutxi egin zituela 21. edizioko lasterketak.

3. taula. Lekukoa hartu duten udalak herrialdeen arabera²

<i>Herrialdea</i>	<i>Udalak orotara</i>	<i>Udalek hartutako lekuko txandak</i>	<i>%</i>
Araba	53	49	%92
Bizkaia	113	96	%85
Gipuzkoa	88	74	%84
Lapurdi	41	33	%80
Nafarroa Beherea	75	19	%25
Nafarroa Garaia	272	113	%42
Zuberoa	43	2	%5
<i>Euskal Herria</i>	685	386	%56

Ikasguneei dagokienez (lekuko eramaileen %11), agertzen diren gehienak hezkuntza arautuko ikastetxeak dira, maila ezberdinetan: Haur Hezkuntzatik hasi eta Lanbide Heziketa eta unibertsitateraino. Euskaltegiak ere sartu ditugu multzo honetan (AEK-koak zein gainerakoak), baina ez dute multzo handiegirik osatzen: orotara 47 zenbatu ditugu Euskal Herri osoan, lekuko eramaileen %1, alegia.

Jendea/herria/asanbladatzat hartu ditugunak, aldiz, egitura formalegirik gabeko taldeak dira (lekuko eramaileen %10). Agertzen direnen ia erdia lagunarte edo kuadrillatzat har ditzakegu, termino hori zentzu zabalean ulertuta. Beste erdia oso era ezberdinetako taldeak dira.

Agertzen diren enpresak (416), azkenik, era askotakoak dira, eta kasu askotan ezin izan ditugu jarduera eremuak zehaztu. Zehaztu direnen artean, ostalaritza sektorekoek dute presentzia esanguratsua (89). Gainerakoek oso espektro zabala osatzen dute.

Banaketa orokorra jarduera eremuaren arabera

Metodologian azaldu dugun moduan, bost kategoria handitan banatu ditugu lekuko eramaileak beren jarduera eremuaren arabera. Kategoria bakoitzaren pisua, lekuko eramaileen artean, 4. taulan ikus dezakegu.

Zaila da, zaila denez, hainbeste eta hain era ezberdinetako eragileak jarduera eremu jakin batean kokatzea; ohartzten

gara taxonomia horren mugaz, ohar metodologikoetan esan dugun moduan. Alabaina, Korrikaren soziologia baterako hurbilketa bat egiteko baliagarria izan daitekeelakoan egin dugu ahalegina.

4. taula. Entitateak jarduera eremu handiaren arabera

<i>Jarduera eremu handia</i>	<i>Lekuko eramaileak</i>	<i>%</i>
Erakundetzea, ekonomia eta zerbitzuak	1.833	%41
Gizarte mugimenduak	516	%12
Kulturgintza	1.055	%24
Ongizatea	729	%16
Arlo jakinik gabekoak	193	%4
Ezezaguna	129	%3
<i>Orotara</i>	<i>4.455</i>	<i>%100</i>

Sailkapen horren arabera, lau arlo handi nabarmentzen dira, albo batera utzita arlo jakinik gabekoak eta datu nahikorik ezean ezezaguntzat hartu ditugunak. Xeha ditzagun, beraz, lau arlo handi horiek.

Erakundetzea, ekonomia eta zerbitzuak

‘Erakundetzea, ekonomia eta zerbitzuak’ epigrafearekin identifikatu ditugunek osatzen dute eramaileen unibertsoaren talderik handiena. Xehetasun gehiagorekin begiratuta, ikus dezakegu horien heren bat (663) hezkuntzari lotutakoak direla. Hemen sartzen dira bai hezkuntza arautuko ikasguneak, bai horiei lotutako guraso elkarteak, hezkuntzako langileen taldeak... Eremu horren barruan, nabarmentzekoak dira administrazioari nola edo hala lotutakoak ere (497 eramaile); horien artean, batzuk erakundeak dira (lehenago aipatu ditugun udalak, kasu), eta beste zenbait administrazioaren inguruan biltzen diren bestelako taldeak, langile publikoak, esaterako. Azken horien artean, sektore batzuk nortasun propioz nabarmentzen dira: hezkuntza sistemako langileak, administrazio orokorretakoak, osasungintzako langileak eta suhiltzaileak. Oro har, ikusten denez, gizarteko lanari oso lotutako sektoreak.

Korrika: gizarte subjektuen bilgune

Azkenen ildo beretik, enpresaren munduan barneratzen bagara, jendearekin harreman zuzen-zuzena duten enpresak nabarmentzen dira: ostalaritza eta merkataritzakoak, hain zuzen. Biak batera lekuko eramaileen %3,4 dira.

Sektore pribatuko langile taldeek ere presentzia aipagarria dute lekuko eramaileen artean, aurrekoen azpitik egon arren.

Kulturgintza

Kulturgintzaren epigrafearen baitan, oro har kultura orokor-rrari lotutakoak sartu ditugu, baita euskalgintzari lotutakoak ere (nahiz eta, esan dugun moduan, azken hori gizarte mugimendu gisa ere sailka litekeen hainbat kasutan). Denak batera hartuta, lekuko eramaileen laurdena osatzen dute, 5. taulan ageri den banaketarekin.

5. taula. Kulturgintzako entitateak arloen arabera

<i>Kulturgintzaren arloak</i>	<i>Lekuko eramaileak</i>
Antzerkia	6
Bestelako sektorea	3
Dantza	118
Diaspora	9
Euskara	216
Folklorea	11
Gastronomia	30
Historia	3
Ijitoak	2
Jaiak	93
Kulturgintza	463
Musika	100
Zinema	1
<i>Orotara</i>	<i>1.055</i>

Datuek erakusten dutenez, euskarari lotutako entitateak 216 dira orotara, lekuko eramaileen %5. Korrikaren aniztasuna kontuan hartuta, ez da datu txikia, baina bestela ere irakur liteke: lekukoa eraman duten entitateen %95ek ez dute, jarduera eremu nagusi gisa, euskara. Beste eremu batzuetan ari dira. Kontuan izan behar da, jarduera eremuak definitzean, euskarari lotutakoen artean honakoak sartu ditugula:

euskalgintza taldeak, euskaltegiak (AEK osoa barne), euskararen aldeko erakundeak (Euskaltzaindia, kasu), administrazioetako euskara sailak... Beraz, deigarria iruditzen zaigu datua, Korrikak proiektatzen duen irudia (euskararen aldeko aldarria) kontuan hartuta.

Euskara jarduera-eremu lehenetsia duten entitateen oso gainetik, kulturgintza orokorrekoak ageri dira. Pentsatzekoa da eremu horretako talde eta erakunde askorentzat euskara lehenetsitako ildoan aritzea egongo dela, eta hori kontuan hartu beharrekoa da datuak egokiro interpretatzeko.

Nabarmentzekoak dira, halaber, dantzari eta musikari lotutako entitateen kopuruak, baita herrietako jaiei lotutakoak ere. Hortik landa, zerrenda aberatsa eta koloreaniztuna da.

Ongizatea

Entitate multzo bat 'Ongizatea' epigrafean sailkatu ditugunek osatzen dute, nolabait pertsonen bizitza modu zuzenean (eta ez mobilizazio politikoaren bitartez) hobetzea duten jarduerak bilduz. Hemen sartu ditugu, beraz, aisialdia, asistentzia eta laguntza, auzoko bizimodua hobetzeko jarduerak, erlijioa bera, kirola, kontsumoa edota lagunartea zuzenean lantzen duten jarduerak.

Mota honetako entitateak asko dira Korrikaren lekuko eramaileen artean, 4. taulak erakusten duenez. Horien artean, kirol jarduerari lotutakoak nagusitzen dira bereziki (360), epigrafe honetako entitateen erdia izanik eta, ondorioz, Korrika osoko entitateen %8ra iritsiz. Gehienbat kirol elkarteak dira, talde txikiak gehienak. Agian, presentzia handi horrek zerikusia du Korrikaren kirol izaerarekin (azken batean, parte

Euskarari lotutako entitateak 216 dira orotara, lekuko eramaileen %5. Lekukoa eraman duten entitateen %95ek ez dute, jarduera eremu nagusi gisa, euskara

hartzaileari esfortzu fisikoa eskatzen dion taldeko lasterketa bat da), Kotenkok (2019) azpimarratzen duen bezala. Bestalde, kirolariek beren izaeratik Korrikari (lasterketari, ale-gia) ekarpena egiteko jarduera aproposa dirudi euskararen aldeko lasterketak.

Kirolaz gain, lagunartea da (245 agerpenekin) nabarmen-tzen den bigarren multzoa, beti ere 'Ongizatea' kategoria handi horren barnean. Hor, gehienbat, egitura formalik ga-beko taldeak ditugu: zentzu zabal batean ulertuta, kuadrillak.

Bi azpitalde horiekin batera, bestelako jarduera batzuk ageri dira, maila xumeagoan: auzoko problematikei lotutakoak eta asistentziari lotutakoak dira nabarmentzen direnak.

Gizarte mugimenduak

Jarduera eremu handien banaketako azken multzoa gizarte mugimendu gisa sailkatu ditugunek osatua da.

6. taula. Gizarte mugimenduak jarduera eremuaren arabera

<i>Jarduera eremua</i>	<i>Lekuko eramaileak</i>
Adinekoak	34
Antirrepresioa	40
Emakumeak	61
Etorkinak eta internazionalismoa	19
Gazteak	110
Ingurumena	18
Politika	234
<i>Orotara</i>	<i>516</i>

6. taulan ikus daitekeenez, politika arloko taldeak nabarmentzen dira kategoria horretan, politika terminoa alderdi politiko edo hauteskunde plataformen eremura mugatuta; izan ere, errepresioaren aurkako taldeak (gehienbat euskal presoen problematikari lotuak, baina baita antimilitaristak ere) beste azpitalde batean sailkatu ditugu.

Gizarte mugimenduei lotu ohi zaizkien gainerako problematiken presentzia ere nabarmena da: gazteak (gaztetxeak, gazte elkarteak...), emakumeak (talde feministak, laguntza

taldeak...), adinekoak (azken urteetako mugimenduei lotutako talde mobilizatzaileak zein asistentzia taldeak), etorkinak eta internazionalismoa (hor ere mugimendu mobilizatzaileak zein asistentzialak) eta ingurumena.

Ondorioak

Azterketa kuantitatibo honen bitartez, Korrikak euskal gizartearen ehuna nola zeharkatzen duen aztertu nahi izan dugu. Datu kuantitatiboek, hartara, sektore eta maila asko zeharkatzen dituela erakusten digute.

Gizarte zibiltzat banakoaren eta boterearen artean dagoen espazioa ulertzen badugu (gizarteko egitura eta sareek zeharkatuta dagoen espazioa), esan dezakegu Korrika euskal gizarte zibilaren isla dela. Ez gizarte zibil osoak parte hartzen duelako; bai, ordea, gizarte zibil horretako eremu bakar batera mugatzen ez delako. Zentzu horretan, Korrika oso urrun dago euskalgintzaren jarduera soil bat izatetik. Ezer baino lehenago, gizarte zibilaren zati handi batek gauzatzen duen jarduera da, euskalgintzak (eta AEK-k bereziki) erraztaile edo bideratzaile rola duelarik. Zentzu horretan, oso esanguratsua da lekuko eramaileen artean euskalgintzari zuzenean lotutako eragileek duten pisu txikia. Beren protagonismoa (ukaezina eta ezinbestekoa) beste nonbait geratzen da, ez Korrikaren jendaurreko agerpenean.

Hori horrela bada ere, Korrikak gaintitu egiten du, gaintetik eta azpitik, gizarte zibilaren eremua. Gaintetik, erakunde publikoak agertzen direlako, enprekin batera; eta horiek, definizioz, ez dira gizarte zibil. Azpitik, banakoak, familiak eta apenas egiturarik ez duten taldeak ere agertzen direlako. Eta horiek ere gizarte zibilaren kontzeptutik at geratu ohi dira. Egia da, hala ere, erakunde publikoen zein enpresen kasuan, norbanakoengandik hurbilen dauden botere egiturak nabarmentzen direla: udalak, ikastetxeak, osasungintzaren arloa, suhiltzaileak eta abar erakunde publikoen kasuan; eta merkataritza zein ostalaritza enpresen kasuan.

Ez dirudi Korrikaren
gizarteko oinarria
herrialde batetik bestera
gehiegi aldatzen denik,
nahiz eta herrialdeen
artean alde handiak
dauden ikuspegi
demografikotik,
linguistikotik, politikotik,
kulturaletik zein
urbanotik begiratuta

Erakunde publikoei dagokienez, pentsa liteke udalak nabarmentzeak esangura berezirik ez duela, kuantitatiboki horiek baitira erakunde publiko handiena: Euskal Herria

ia 700 udal daude, eta askoz txikiagoa da udalez gaindiko erakunde publikoen kopurua. Alabaina, administrazio orokorraren buruan, gobernuaz gain gobernuaren sailak daude, eta sail bakoitzak atalak ditu, eta atal bakoitzak zerbitzuak, eta abar, administrazio orokorraren enborra adar askotara hedatzen delarik. Eta adar horien presentzia txikia da Korrikan.³ Seguruenik, lurraldearekiko lotura da hemen kontuan hartu beharreko beste osagai garrantzitsu bat, jendearekiko harremanaz gain: udalak, ostatuak, dendak eta abar lurraldean kokatuak dira, eta lurraldean sortzen dira horien inguruko harremanak. Administrazio orokorreko zerbitzuak, ordea, beste maila batzuetan murgiltzen dira.

Esanguratsua da, bestalde, herrialdeen artean ageri den homogeneotasuna. Alde nabarmenena administrazioaren (udalen) parte hartzean ikusten da: Zuberoan, Nafarroa Garaian eta Nafarroa Beherean, lekukoa hartu duten udalak ez dira erdira iristen. Gainerako lau herrialdeetan, aldiz, gehien-gehienek hartu dute parte lasterketan.

Salbuespen esanguratsu horrekin eta datuei begiratuta berderen, ez dirudi Korrikaren gizarteko oinarria herrialde batetik bestera gehiegi aldatzen denik, nahiz eta herrialdeen artean alde handiak dauden ikuspegi demografikotik, linguistikotik, politikotik, kulturaletik zein urbanotik begiratuta.

Amaitzeko, esan dezagun hemen azterketa kuantitatibo eta deskriptiboa aurkeztu dugula. Aurrera begira, hain izaera

ezberdineko eragileek Korrikan parte hartzeari ikusten dioten zentzua aztertu beharko da, hemen azaldu diren datuak hobeto ulertu eta interpretatu nahi badira. Horrek euskarari buruz gizartean dauden diskurtsoak gehiago argitzen lagunduko digu. 🍷

Oharrak

1. Artikulu hau egiteko, laguntza ezberdinak izan ditugu. Alde batetik, AEKri eskerrak eman beharrea gaude, 21. edizioko lekuko eramaileen zerrenda gurekin partekatzeagatik. Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako *Ikasiker* beka ere balio handikoa izan zaigu lana egiteko. Azkenik, Espainiako Zientzia eta Berrikuntza Ministerioak finantzatutako SOLIDARY ikerketa proiektuaren babespean ere egin ahal izan da lan hau (CSO2017-82903-R).
2. Udal gutxi batzuk (17) lekukoa behin baino gehiagotan hartuta edo ordainduta bezala agertzen dira gure datuetan. Beraz, lekukoa eraman ez Korrikan parte hartu duten udalen portzentajea zertxobait baxuagoa litzateke. Baina, bestetik, ordea, udalez gain beste 70 kontzeju ageri dira, taulan zenbatu ez direnak.
3. EAeko egitura adibidetzat harturik, esan dezagun udal administrazioek, orotara, 27.054 langile dituztela, foru administrazioek 12.225 eta Eusko Jaurlaritzak 96.253 dituzten bitartean (iturria: Eustat).

Bibliografia

- Agirre Zapirain, U. (2019): 'Tipi-tapa euskararen erritmoan: Korrikako abestien bilakaera, 1980-2019', in Askoren artean: *III. Ikergazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu bilduma. Giza zientziak eta Arteak*, Bilbo, UEU, 91-98 (www.inguma.eus/produkzioa/ikusi/ar-tipi-tapa-euskararen-erritmoan-korrikako-abestien-bilakaera-1980-2019).
- Amezaga Albizu, J. (1996): *Herri kultura: euskal kultura eta kultura popularrak*, Bilbo, UEU.
- Arana, E.; Narbaiza, B.; Mimenza, L. (2015): 'Korrika, a Transmedia View', *International Journal of Transmedia Literacy* 1(0), 117-129. doi: 10.7358/ijtl-2015-001-aran.

- Barba Gassó, M.; Guilló Arakistain, M.; Zabalo Bilbao, J.; Luxán Serrano, M.; Arana Arrieta, E.; Barcena Hinojal, I. (2022): *Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian. Egoeraren ondorioak, egokitzapenak eta eszenatoki berriak*, Bilbo, EHU.
- Calhoun, C. (1991): 'Indirect Relationships and Imagined Communities: Large Scale Integration and the Transformation of Every Day Life', in P. Bourdieu, J. Coleman (argk.): *Social Theory for a Changing Society*, Boulder eta New York, Westview Press, 95-121.
- Del Valle, T. (1988): *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio*, Bartzelona, Anthropos.
- (1994). *Korrika. Basque Ritual for Ethnic Identity*, Reno, University of Nevada Press.
- Galparsoro, A.; Garmendia, M.; Ormazabal, E.; Urbizu, N. (2017): 'Irri, zirri, urri, Korrika iturri. Lizarrako Korrikara gerturatze bat emozioen begiradatik', *Ankulegi*, 21, 75-91.
- Gurrutxaga, A.; Elorza, M.; Ubeda, G. (1997): *Euskal Herria Korrika. 17 urte 10 pausotan*, Bilbo, AEK.
- Ibarretxe Antuñano, I. (2006): 'Ttipi-ttapa, ttipi-ttapa... Korrika!!!: Motion and sound symbolism in Basque', *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo* 40(1-2), 499-518.
- Kotenko, V. (2019): 'Correr la lengua: el fenómeno de la *Korrika*', *Estudios Hispánicos* 27, 39-52.
- Uribarren Leturiaga, P. (1993): 'Korrika... Noiz arte?', *Karmel* 204, 34-47.
- Uribarren Leturiaga, P. (2001): "'Korrika' gogoeta bide", *Karmel* 234, 38-45.
- Urla, J. (1995): 'Book Reviews. *Korrika: Basque Ritual for Ethnic Identity* by Teresa del Valle', *American Anthropologist* 97(2), 414-415.

Euskal herritartasunaren inguruko korapiloak herri mugimenduetan

Maddalen Epelde Juaristi

UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea eta Parte Hartuz Ikerketa Taldeko kidea

Marina Sagastizabal

UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea eta AFIT Antropologia Feminista Ikerketa Taldeko kidea

Noemi Bergantiños

Iker Iraola Arretxe

Julen Zabalo Bilbao

UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakasleak eta Parte Hartuz Ikerketa Taldeko kideak

Ez dago euskal herritartasun ofizialik aldarrikatu-ko duen euskal estaturik, baina bai hura lortzeko nazio mugimendu indartsu bat.¹ Egoera horrek hainbat korapilo sortzen du; izan ere, mugimendu horietako aktibistek iritzi eta jarrera ezberdinak erakusten dituzte herritartasunak dituen inplikazioen inguruan hitz egiterakoan.

Pentsatzen dutenera hurbilduko gara, zenbait mugimendu sozialetako (feminismoa, sozioekologia, euskalgintza eta migrazioak eta antiarrazakeria) kideri gai horiez galdetu ostean.

Herritartasunaren adierak

Herritartasuna konplexutasun handiko gaia da, modu batean baino gehiagotan uler daiteke eta. Ikuspuntu administratibo hutsetik begiratuta, estatu bateko kidesun formala adierazten du, baina identitate mota bat ere izan daiteke, eta hortik dator herritartasuna eta naziotasuna, hitzetan nahiz kontzeptualki, elkarren artean nahastea. Izan ere, estatuek bi kontzeptuok parekatzera jotzen dute: batetik, estatu barruko eskubide eta betebeharrekin dago harremanetan, baina estatuaren identitatea sendotzeko ere balio du. Nahaste horretatik hainbat galdera sortzen dira: nor da eskubideen jabe, administrazioak erabakitako herritarra ala estatu horrekiko nazio sentimendua gordetzen duena? Hori dena nahikoa ez, eta gurean estatu propiorik ez duen nazio baten testuinguruan ulertu behar da gaia. Zerbait berezia eskatu behar zaio euskal herritarra den pertsonari? Zalantzarik gabe, ikuskera objektiboa eta subjektiboa batzen dira gaien.

Ikuspegi objektibotik abiatzen bagara, herritartasuna jabetzari lotuta agertzen zaigu Mendebaldeko historian zehar, herritar gisa kontsideratua izateko jabetza bat izatea beharrezkoa baitzen. Horrenbestez, edonor ezin zitekeen izan 'herritarra', eta biztanleriaren zatirik handiena kategoria horretatik at geratzen zen (nekazariak, emakumeak, esklaboak...). xx. mendearen erdialdean, ongizate estatuaren garapenarekin eta mugimendu sozialen bultzadaz, aurrerapauso bat eman zen, ordea, baldintza horiek zabaldu egin ziren heinean. Une horretan, eskubide sozialetara sarbidea izateko, nazionalitatea, enplegu formala eta familia tradizionalen oinarritutako maskulinitatea agertu ziren baldintza gisa (Alonso 2007). Baina herritartasun eredu hark, berriro ere, subjektu ugari uzten zuen bazterrean. Apurka, ikuskera formal edo objektibo hori zabalduz joan da, baina ez da gai izan biztanleria bere osotasunean 'herritartasunaren' baitan errekonozitzeko.

Ez da ikuskera bakarra, ordea. Ezkerretik beste proposamen batzuk defendatu dira, herritartasuna modu 'justuago' batean

ulertzeko asmoz: herritartasunaren ikuskera subjektiboa litza-teke hori. Ildo horri jarraiki, hainbat aukera irekitzen dira: batzuek eguneroko praktika gisa ulertzen dute herritartasuna; beste batzuek tokiko mailan gertatzen diren harremanetan kokatzen dute, herritartasuna bizi garen lekuan errotzen dela azpimarratuz; edo beste hainbategi herritartasunaren alderdi emozionalari ere ematen diote garrantzia, herritartasuna pertenezkoa sentimenduari edota identitate politikoari lotuz (eztabaida horietarako, ikus Purcell 2003, Taylor eta Wilson 2004, Lister 2007, Feixa, Pereira eta Juris 2009, Wood 2013, Islar eta Irgil 2018).

Zer diote Euskal Herriko gizarte mugimenduek herritartasunaren gaiaren inguruan? Nor da euskal herritarra?

Gizarte mugimenduak herritartasuna sortzen

Zer diote, zehatzago, Euskal Herriko gizarte mugimenduek horren guztiaren inguruan? Nor da euskal herritarra? Hainbat kideren iritziak jaso ostean, hona zertzelada batzuk.

Ikuspuntu subjektiboa argia da nazionalitateaz hitz egiten dugunean. Herritartasuna lortzeko baldintza izan daitekeela ulertuta, gizarte mugimenduek diote herritartasun izaera modu irekiagoan ulertu beharko genukeela. Izan ere, nazionalitatea aitortzeaz harago, egunerokotasunean badaude kontuan hartu beharreko beste bide batzuk herritartasun ariketa edo praktika gisa uler daitezkeenak.

Ikuspuntu objektibotik, gizarte mugimenduek sarritan mahaigaineratzen duten adibidea irregulartasun egoeran dauden migratzaileena izaten da: horietariko askok bizi duten sasi-herritartasunaren errealitateari buruzko kritika egiten dute, pertsona horien herritartasun 'faltsua' azpimarratuz. Izan ere, betebeharrak ezartzen zaizkie, baina eskubiderik bermatu gabe. Kritika horrek lurraldeko biztanle ororentzat erabateko herritartasuna aitortzea eskatzen du.

Baina, aldi berean, pertsona guztiei herritartasuna (esku-bidea) aitortzeko egin ohi den aldarrikapen horrek tirabirak sortzen ditu. Izan ere, herritarra izatea lortzeko, kontuan hartu beharreko baldintzak (betebeharrak) definitzea eta mugatzea eskatzen da hainbat herri mugimendutako kideren aldetik: zein betebeharrak betetzeak ematen digu aukera komunitate bateko herritar (kontsideratua) izateko?

Badirudi, betekizun horiek aipatzean, komunitateari (nazioari) buruzko balio edo interes kolektiboarekiko kezka bat adierazten ari direla herri mugimenduak. Horien ustez, herritarrei dagokie komunitatea 'zaintzea', eta, horretarako, zenbait 'zeregin' gauzatu behar dira. Ez da zalantzan jartzen herritartasunerako eskubideak lehen urratsa izan behar duela, jatorrizko eskubide gisa; batzuetan, gainera, hori nahikotzat jotzen da. Baina, era berean, ohikoa da ulertzea, herritartasunerako eskubide horrekin batera, komunitatearekiko konpromisoa ere beharrezkoa dela, herritartasun osoagoa lortzeko bide gisa.

Ekimen soziopolitiko ezberdinetan parte hartzea beharrezkotzat jotzen da, beraz, eta hizkuntza (euskara) erabiltzeko beharra ere aipatzen da beste zenbaitetan, mugimenduaren arabera.

Herritartasuna eta nazio identitatea

Herritartasuna, esan dugun moduan, naziotasunarekin nahastu da eta dimentsio subjektiboari lotzen zaio, aldi berean. Hori gertatzen da ohiko estatu forma gaur egun nazio estatua delako. Nazio estatua lurraldeak antolatzeke estatu forma historikoa da, zeinetan estatuko kideek zerbait partekatzen dutela ulertzen baita, dela ezaugarri komun bat (historia, etnia, hizkuntza, erlijioa...), dela estatua bera garatzeko eta aurrera eramateko borondatea. Partekatze hori nazioa litzateke, eta lotura emozionala emango lioke estatuari, herritartasunak islatzen duen interes komun hitzarmenetik harago. Era horretara, azken mendeetan nagusi izan den estatu forma horrek nahastu egiten ditu, nahita, bi kontzeptuak, estatua

eta nazioa (objektiboa eta subjektiboa); ondorioz, ez ditugu ondo bereizten horien arteko mugak, noiz ari garen estatuaz (administrazioaz) eta noiz nazioaz (komunitateaz), alegia.

Arazoa da munduan oso leku gutxitan gertatzen dela batuketara hori ehuneko ehunean, eta azken hamarkadetakoa migrazio globalekin, are gutxiago. Ohikoena nazio aniztasuna duten estatuak egotea bada, imajina dezakegu nazio-estatu formak hamaika arazo eta nazio gatazka sortzen dituela, eta Euskal Herria horren adibide argia da. Izan ere, Euskal Herrian 1) herritar guztiek ez dute partekatzen estatuen (Espainiaren eta Frantziaren) nazio sentimendua; 2) baina euskal herritar guztiek ere ez dute partekatzen nazio sentimendu bera; eta 3) ezkerreko ikuspuntu batetik, herritar guztiek ez diote erakusten atxikimendu garbirik administrazioari, herritarrenak ez diren beste interes batzuen pean ari delako.

Baina, herritartasunak nazio identitatea islatu behar du? Erantzun logikoa ezetza dela pentsa liteke, lurralde bateko herritarrek ez baitute zertan nazio bera partekatu; baina egia da herritartasuna administrazioari bakarrik lotzen bazaio (objektiboa), lotura emozionalik gabe uzten duela estatua (subjektiboa): zer dira sinboloak edo nazioarteko selekzioen kirola emoziorik gabe? Ez da gai hutsala, eta, horregatik, nazio-estatu klasikoan herritartasunari dagozkion ezaugarriak naziotasunarekin batera doaz, hau da, nazio atxikimenduari loturik. Zergak, adibidez, 'gusturago' ordaintzen dira zerga horiekin norberaren estatu hobea (justuagoa, inklusiboagoa, 'handiagoa') eraikitzen ari dela uste bada. Baina, gainera, herritartasun administratiboak berak ezin du osagai kulturala eta nazionala ekidin: zein hizkuntza erabiliko da? Zein izango dira ikurrak? Zein lurralderi eragingo dio?

Nahastearen ondorioz, estatuak esleitutako herritartasunari 'naziotasun' deitu ohi zaio (eta nazionalitate hori lortzeko prozesuari, modu adierazgarrian, 'naturalizazio'). Ildo horri jarraiki, naziotasuna herritartasuna lortzeko baldintzen multzoa izango litzateke, Europa mailan, bederen, herritartasunera sarbidea izateko baldintza nazioko kideztat hartua izatea

baita. Baldintza horiek irekiagoak edo itxiagoak izan litezke, baina, edonola ere, estatuek nazioari loturiko baldintza horiek ipintzen dituzte herritartasuna lortzeko. Horrela uler daiteke, adibidez, estatuek, migratzaileen jatorriaren arabera, herritartasuna lortzeko traba gogorragoak edo malguagoak izatea (sakontzeko, ikus Triandafyllidou 2001, Gil Araujo 2006).

Gizarte mugimenduak, herritartasuna eta migrazioak

Gaiak duen konplexutasuna areagotu egiten da migrazioak jokoan sartzen direnean, bestetasuna edo 'alteritatea' mahai gainean modu gordinen jartzen baita. Izan ere, nazioak harreman zuzena du alteritatearekin, bestetasunarekin. Nazio sub-

Nazioak eta nazio
identitateak
migratzailearekiko
garatzen duen ikuspegia
eremu aproposa da
nazio identitate horren
atzean topa dezakegun
nazioaren ideian
sakontzeko

jektuaren definizioan (nor gara gu?) funtsezko egitekoa betetzen du 'besteak', naziokidetzat definitzen ez denak, alegia (noren aurrean gara gu?, nor ez garelako bagara gu?). Hori xe bera gertatzen da identitate politiko guztiekin (non 'gua' definitzeko, ezinbestekoa den 'bestearen' existentzia), baina nazio identitatearen gaian garrantzi berezia hartzen du. Bestetasunaren eraikuntza prozesu horretan, migratzailea puntu

problematikoan kokatzen da; izan ere, ez da (guztiz) bertakoa, baina ezta 'kanpoan' dagoen atzerritar hutsa ere. Bertakotasunaren eta kanpotartasunaren artean kokatzen da, nolabait, izate eta ez-izate sozialaren artean, nahi bada (sakontzeko, ikus Gil Araujo 2006, Sayad 2011).

Nazioak edo nazio identitateak migratzailearekiko garatzen duen ikuspegia, beraz, eremu aproposa da nazio identitate horren atzean topa dezakegun nazioaren ideian sakontzeko;

hots, nazioaren definizio itxi edo ireki bat gailentzen ote den jakiteko. Irekia edo itxia, adibidez, naziotzat hartzen den lurraldera iritsi diren etorri berrientzat, migratzaileentzat. Euskal Herriaren kasuan, gaia modu desberdinean lantzen dute bertan diharduten nazionalismoek: estatudun nazionalismo espainiarrak eta frantziarrak, batetik, eta estaturik ez duen euskal nazionalismoak edo abertzaletasunak, bestetik. Lehenek dagoeneko azaldu dugun herritartasun ofizial eta administratiboari loturik garatzen dute nazio identitatearen eta migrazioen arteko lotura, 'nazionalista' gisa agertu behar izanik gabe. Abertzaletasunak, ordea, diskurtsoaren edota estatu mailarik ez duten erakundeen ahalmenetik garatzen du bere posizioa.

Problematika horrek guztiak gizarte mugimenduei ere eragiten die; izan ere, indar gehiagoz edo gutxiagoz (gaiari lehentasuna aitortuz edo, aitzitik, berori alboratuz), herri mugimendu orok jarduten du nazio bat bultzatuz edo, gutxienez, erreproduzitzen. Estatuak eta nazioak bat egiten dutenean harreman hori ezkutuan gera badaiteke ere, biak bat ez datozen kasuetan tentsioak agerikoagoak dira, eta horixe gertatzen da Euskal Herrian.

Baina, nazio gatazkaz gain, eta migrazio globalek eraginik, 1990eko hamarkadatik aurrera, gizarte zientzietako ikerketan kulturak leku zentrala eskuratu zuen: multikulturalismoa eta kulturartekotasuna kontzeptu garrantzitsu bilakatu ziren.² Eztabaida horretan, botere maila desberdina zuten taldeen arteko harremanek nolakoak izan beharko luketen hausnartzen zen (jatorri etnikoaren arabera, adibidez).

Gure ikerlanean Euskal Herriko mugimendu sozialak aztertzean, tentsio horiek azaldu dira migrazioa, nazioa eta herritartasuna harremanetan jartzerakoan. Batetik, eskubideen dimentsioa azpimarratzeko nahia eta gogoia azaldu da. Horren arabera, herritartasuna oinarritzko eskubideetarako sarbidea denez, herritartasun unibertsalaren aldeko jarrera bultzatzen dute mugimendu sozialek, lurraldean bizi diren herrikideen kasuan, bederen. Baina asmo eta gogo horrek, bestetik, nazioaren ideia ezinbestean mugatuarekin (lurraldez mugatua,

esan nahi baita) elkarlanean aritu behar du, eta, burututako elkarrizketetan ikusi ahal izan dugunez, kultur aniztasunari eta euskarari loturiko gaiak garrantzitsuak suertatu dira arlo horretan. Bertan agertzen zaizkigu tentsio nagusiak.

Kultur aniztasunari dagokionez, kontuan izan behar dugu horren kudeaketan ere botere harremanen eragina zentrala dela, maiz modu ezkutuan geratu arren. Esaterako, estatuaren eta nazioaren arteko gatazkarik ez dagoen testuinguruetan, eta kultura nagusia hegemonikoa denean, ez da zalantzan ipintzen aniztasunaren onarpena 'nondik' egiten den. Hau da, ez da eztabaidagai jartzen onarpena egiten duen talde hegemonikoa zein den. Galfarsorok (2012) dioenez, Ingalaterrako kasuan, multikulturalismoari buruzko eztabaida ez da britainiarrei edo ingelesei buruzkoa, gutxiengoei buruzkoa baizik.

Euskal Herrian, ordea, ezin da eskema hori errepikatu. Batetik, nazioak eta estatuak ez dute bat egiten (nazio gatazka dago, aitzitik); eta, bestetik, 'gehiengo kulturala' ez dagokie euskaldunei (edo, bederen, auzia ez dago argi). Horrek, bada, tentsioa eragiten du Euskal Herriko mugimendu sozialetan, kultur aniztasunaren gaian, eta berori euskarari loturik garatzen da bereziki.

Herritartasuna eta euskara

Aniztasun kulturala kudeatzeko ereduak talde kulturalen arteko harremana aztergai badute ere, hartu-eman horiek zein hizkuntzatan garatu behar diren auzi garrantzitsua da. Euskal Herriaren kasuan, noski, euskara zentrala izan da eztabaida horretan. Izan ere, euskara hizkuntza gutxitua dela kontuan hartuta, etorri berrien 'onarpena' harrera gizartetik egiten denean (migrazioei buruzko ohiko terminologia erabiliz), nolakoa da Euskal Herriko harrera gizartea hizkuntzari dagokionez? Harrera hori euskaraz egiten da? Talde kultural desberdinen arteko lotura eta kohesio hizkuntza euskara al da?

Gai honetan, nahiaren (edo proiektuaren) eta errealitate soziolinguistiko gordinaren arteko aldea handia da, eta

egoera horrek hainbat tentsio jartzen ditu mahaiaren gainean. Lurrealde zehatz batzuetan eta eremu sozial batzuetan izan ezik, 'euskal kultur aniztasunik' (hots, euskaratik abiatutako multikulturalismorik) ez dagoenez, gaia etengabe landu eta problematizatu behar dute gizarte mugimenduek. Gainera, mugimendu horietako asko euskaldunak dira euren funtzionamenduan, eta horrek sentsibilitate eta asmo zehatzak sortzen ditu. Zentzu horretan, kultur aniztasuna eta euskara mugimendu sozialetatik lotzen dituzten ekimenak ugariak dira Euskal Herrian, *Euskal Herria Hamaika Kolore* eta *Gora Gasteiz!* moduko ekimenek erakusten duten moduan.

Irtenbideak ez dira errazak, eta zein hizkuntza erabili gai arantzatsu bihurtzen da askotan Euskal Herrian. Zer egin momentu batean kide guztiek ez badakite euskaraz? Batzuek komunikatzeko gaitasuna lehenesten dute; besteek euskaraz egiteko eskubidea aldarrikatzen dute; eta badira euskarari aitortu behar zaion balio politikoa aldarrikatzen dutenak ere, ekologiarekin edo feminismoarekin egiten den bezala. Herri mugimenduetako kideekin herritartasunaz eta euskararen inguruan mintzatu garenean, bada, korapiloak ez dira falta izan. Galdera bat geratzen da airean: zer arrazoi du migra-tzaile batek euskara ikasteko?

Formalki edo dimentsio objektibotik begiratuta, imajina dezakegu pertsona batek euskara ikasteko aukera planteatzen duenean, ea herritartasun osoa lortzeko atak irekiko dizkion pentsatzen ari dela. Ez dago halakorik, noski. Herritar oso izateko, nazionalitate frantsesa edo espainiarra behar da, eta hor hizkuntza eskakizuna elebakarra da: frantsesa edo espainiera.

Errealitatea bestelakoa da, ordea, maila subjektibotik planteatuta. Izan ere, euskararen erabilera altua den inguruetan, euskarak komunikatzeko eta baita komunitatearen parte sentitzeko ere balio lezake. Bultzada subjektibo hori, alabaina, nekez sortuko da euskararen erabilera hain nabaria ez denean.³ Euskararekiko aldeko sentimendua erakutsi arren, benetan zaila da migra-tzaile batek halako eremuetan euskara

ikastea, are gehiago herri mugimenduetan eurretan ere gaztelania edo frantsesa nagusi direnean. Etorri berritan bertako hizkuntza ikasi beharra dago; baina hizkuntza bat baino gehiago egonda, nondik hasi?

Ikasteko hautuaz gain, euskararen inguruko jarrera ere hartu behar du etorkinak, eta, eremu batzuetan, euskara gatazka gisa bizi daiteke. Euskara ez da komunikazio kontu bat bakarrik; aitzitik, nazio auzia dagoen neurrian, euskaraz egitea, edo euskararen alde egotea gutxienez, hautu politikoko bihurtzen da, eta migratzaileari gatazka horren aurrean kokatzea eskatzen zaio. Eguneroko bizitza gatazka bilaka daiteke, lehen hitza euskaraz egiteak politikoki posizio bat hartzea esan nahi baitu, eta horrek deserosotasuna sor dezake.

Baina, beste aldetik, hautu politikoa izanda ere, euskara ez da hizkuntza nagusia, eta horrek muga sortzen du komunikazioan. Alde biak zaindu nahi badira, beraz, beharrezkoa da zubi lana egitea: euskara erdigunean egotea eta euskaraz ez dakitenekin lan egitea aldi berean. Baina nola? Esperientzia praktikoa ez zaizkigu falta, eta horietako bat Euskal Herriko Bilgune Feministaren estrategia da, adibidez. Hautu politikoa feminismoa euskaraz egitea da, eta horrek hainbat espaziotan euskararen garrantziaz kontzientzia hartzea ahalbidetu du, eta, era berean, komunikazio gaiari aurre egiteko, praktika batzuk martxan jartzea ere bai.

Adibide modura, 'xuxurlariak' aipatuko ditugu: gaztelaniaren nagusitasunari aurre egiten saiatzeko mugimendu feministan garatutako praktika, alegia. Xuxurlariek euskaratik gaztelaniara (edo frantsesera, edo ingelesera, besteak beste) itzulitako hitzak belarrira xuxurlatuko dituzte mugimenduaren ekimenetan. Praktika horrek euskarari garrantzia ematea ahalbidetzen du eta, aldi berean, desberdinen arteko aliantzen eta elkarlanaren aukera bermatzen du, ez tirabirarik eta kontraesanik gabe.

Alde batetik, xuxurlarien erabilerak ez du hizkuntzaren arazoa konpontzen, ez du ekarriko guztiontzat euskara ikasteko eskubidea bermatuta izatea, adibidez. Hortaz, ezinbestekoa

da, komunikatzeko estrategia izateaz gain, eduki politikoz janztea (euskara ikasteko doakotasuna aldarrikatuz, edota migratzaileei euskarazko sozializazioa bermatuz, besteak beste). Bestetik, xuxurlarien erabilerak mugak ditu praktikan ere: bilera txikietan oso eraginkorra izan daiteke; ez, ordea, espazio handietan (zarata eragiten baitu, elkar ulertzeko aukera oztopatzeraino).

Hala eta guztiz ere, euskara xuxurlarien bitartez elkar ezagutzeko aitzakia bilakatzen da, gure herriari buruz gehiago jakiteko, beste herriez eta hizkuntzez ere gehiago jakiteko: norberaren lehen hizkuntza zein den, zer hizkuntzatan ikasi dugun, bizi garen... Elkarren

arteko konplizitateak eraikitze lagungarria da, bereziki, xuxurlarien lana. Gandariasek (2017: 102) azpimarratu bezala, ez da nahikoa elkarrekin egotea, beharrezkoa baita hurbileko espazioak sortzea gure artean ezagutzeko, eta intimitatearen politika gisa definitu du praktika hori.

Gainera, aurretik aipatutako deserosotasunak gainditzeko, espazio edo ekimen handietan bat-bateko itzulpengintza erabili da. Itzultzaileak ezinbestekoak bilakatu dira hainbat mugimendu sozialetan. Hamaika ekitaldi posible egin dute; bi esanguratsu aipatzearren: Euskal Herriko Topaketa Feministak (Durango, 2019) eta Emaginek antolatutako (Ez)Amatasunak Jardunaldiak (Donostia, 2022).

Bi praktika horiek desberdinen arteko elkarlana ahalbidetzen dute, ez soilik migratuen eta bertakoen artean, baita belaunaldien artean ere: euskaldundutako gazteen eta euskaldundu ez diren pertsona nagusien artean, adibidez. Baina, praktika horiek guztiak martxan jarrita ere, mugak,

Euskara ez da komunikazio kontu bat bakarrik; aitzitik, nazio auzia dagoen neurrian, euskaraz egitea, edo euskararen alde egotea gutxienez, hautu politiko bihurtzen da, eta migratzaileari gatazka horren aurrean kokatzea eskatzen zaio

kontraesanak eta kritikak egon badaude; horren adibide argia da, ‘xuxurlariak’ eta itzultzaileak izanagatik ere, Euskal Herriko Topaketa Feministetan euskararen erabilera edo presentzia eskasagatik izandako salaketak: hizkuntza kolonialean dekolonizatzen ahal gara?⁴

Ondorioak

Lehen hurbilpen batean, joera dago herritartasuna zerbait finko eta mugiezin modura ulertzeko: herritartasuna estatuek ezartzen dute, baldintza zurrunetan oinarrituta. Baina, errealitatean, herritartasuna denboran zehar aldatu den kontzeptua dugu, modu desberdinean uler daitekeena interesen arabera. Herritartasun ‘objektibo’ deitu diogu administrazioak ezarritakoari, arau edo baldintzen bidez garatua, baina argi utzita arau eta baldintza horiek aldatuz joan direla denboran zehar: objektibotasunaren oinarria aldatuz doa, beraz. Eta, bestalde, herritartasun ‘subjektibo’ deitu diogu, administrazioetik at, gizarte mugimenduek garatu nahi dutenari, arau zurrunez gain bestelako balioak ere aintzat hartzen dituztenak.

Euskal Herriko gizarte mugimenduek, halako mugimenduetan ohikoa denez, ‘urrun’ ikusten dute herritartasun objektiboa, estatuen kontua den heinean. Euren praktika, aldiz, herritartasun subjektiboaren ildotik doa: kritikoa, gizarte problematikan inplikaturik, parte hartzailea... Nazio auziak, gainera, urruntasun hori areagotzen du, eta, subjektibotasun horretatik, gai dira ondo definitu gabeko euskal herritartasun hipotetikoa edukiz betetzen saiatzeko.

Euskararen gaiak ondo islatzen du ikuspuntu subjektiboaren eta objektiboaren problematika: ikuspuntu objektibo batetik, komunikazio tresna gisa, gehienetan ez da heltzen ‘komunikazio hizkuntza’ nagusi izatera. Baina, ikuspuntu subjektibo batetik, euskara erreibindikazio ere bada, beste aldarrikapen sozialen ondoan. Bi ikuspuntuen arteko talka gainditzeko alternatibak pentsatu behar dira, eta ‘xuxurlariena’, ikusi dugun moduan, horietako bat da.

Xuxurlariaren formulak euskararen garrantzia indartzen du, askotan ohikoa den euskararen ezezagutza baztertu gabe. Euskararekiko konpromiso etikoa gogoratzen du, baina ez dakienari ateak itxi gabe. Hortik aurrera, hainbat galdera egiteko aukera irekitzen da, batez ere ea behin-behineko irtenbidea den ala denboran mantenduko ote den. Hau da, ea euskaraz ez dakitenek ikasteko konpromisoa hartu behar duten; eta, aldi berean, ea mugimenduek ere konpromiso hori egingarria izateko baldintzak borrokatuko dituzten. 🌱

Oharrak

1. Artikulu hau *Nuevas solidaridades, reciprocidades y alianzas: la emergencia de espacios colaborativos de participación política y redefinición de la ciudadanía* izeneko ikerketa proiektutik eratorria izan da (Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa, MINECO I+D+i: CSO2017-82903-R, 2018-2022).
2. Migrazioei lotutako kultur aniztasunaren kudeaketari buruzko ereduak eta ikuspegiak ugariak eta eztabaidatuak dira (sakontzeko, ikus Galfarsoro 2012, López Sala 2005).
3. Are, euskararen erabilera handia den eremuetan ere gauza bera gerta daitekeela ahaztu gabe, eremu orotan euskaraz bizitzea zaila baita.
4. www.argia.eus/albistea/hizkuntza-kolonialean-dekolonizatzen-ahal-gara

Bibliografia

- Alonso, Luis Enrique (2007): *La crisis de la ciudadanía laboral*, Barcelona, Anthropos.
- Feixa, Carles; Pereira, Inés; Juris, Jeffrey S. (2009): 'Global citizenship and the 'New, new' social movements: Iberian connections', *Young* 17(4), 421-442. doi: 10.1177/110330880901700405.
- Galfarsoro, Imanol (2012): 'Kulturantzatasuna eta nazionalismoa: identitatearen politikak versus politikaren identitatea', *Hausnart* 1, 26-55.
- Gandarias, Itziar (2017): 'Aliantzak, aniztasuna eta horien arteko elkar-guneak', *JAKIN* 222, 92-106.
- Gil Araujo, Sandra (2006): *Las argucias de la integración. Construcción nacional y gobierno de lo social a través de las políticas de integración de inmigrantes. Los casos de Cataluña y Madrid*. Doktorego tesia. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea.

- Islar, Mine; Irgil, Ezgi (2018): 'Grassroots practices of citizenship and politicization in the urban: The case of right to the city initiatives in Barcelona' *Citizenship Studies* 22(5), 491-506. doi: 10.1080/13621025.2018.1477919.
- López Sala, Ana María (2005): *Inmigrantes y Estados. La respuesta política ante la cuestión migratoria*, Bartzelona, Anthropos.
- Lister, Ruth (2007): 'Inclusive citizenship: Realizing the potential', *Citizenship Studies* 11(1), 49-61. doi: 10.1080/13621020601099856.
- Purcell, Mark (2003): 'Citizenship and the right to the global city: Re-imagining the capitalist world order', *International Journal of Urban and Regional Research* 27(3), 564-590. doi: 10.1111/1468-2427.00467.
- Reimóndez, María (2014): 'Interseccionalidad a medias', *Pikara Magazine* (www.pikaramagazine.com/2014/12/interseccionalidad-a-medias).
- Sayad, Abdelmalek (2011): *La doble ausencia. De las ilusiones del emigrado a los padecimientos del inmigrado*, Bartzelona, Anthropos.
- Taylor, Lucy; Wilson, Fiona (2004): 'The messiness of everyday life: Exploring key themes in Latin American citizenship studies introduction', *Bulletin of Latin American Research* 23(2), 154-164. doi: 10.1111/j.1470-9856.2004.00101.x.
- Triandafyllidou, Anna (2001): *Immigrants and National Identity in Europe*, Londres, Routledge.
- Wood, Bronwyn Elisabeth (2013): 'Young people's emotional geographies of citizenship participation: Spatial and relational insights', *Emotion, Space and Society* 9, 50-58. doi: 10.1016/j.emospa.2013.02.004.

Pandemia eta gizarte mugimenduak. (Des)aktibazioak, egokitzapenak eta presentzialtasunaren politizazioa

Marta Luxán Serrano

*UPV/EHUko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko
irakaslea eta AFIT Antropologia Feminista Ikerketa
Taldeko kidea*

Marta Barba Gassó

*Ikasketa Feminista eta Generokoetan doktorea
eta ikertzaile independentea*

Miren Guilló Arakistain

*UPV/EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia
Saileko irakaslea eta AFIT Antropologia Feminista
Ikerketa Taldeko kidea*

Gizarte mugimenduen inguruko ikerketan murgilduta geunden 2020ko martxoan pandemia ate joka heldu eta gure jarduna eten zuenean. Etenaldi bortitzaren ostean, baina oraindik neurritz betetako pandemiaren testuinguruan, gure ikergaiaren inguruan horrek guztiak izandako eragina aztertzea ezinbesteko suertatu zitzaigun, eta inkesta bat egitea emankorra izan zitekeela iruditu zitzaigun.

Artikulu honetan, galdetegi horren emaitzetan oinarrituta-ko *Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian. Egoeraren ondorioak, egokitzapenak eta eszenatoki berriak* (Barba *et al.* 2022)¹ ikerlanaren emaitzen berora egositako zenbait gogoeta jaso ditugu.

Ikerketa horren oinarrian zegoen ideia da gure gizarteak gizarte-aldaketa prozesu batean murgilduta daudela, zeinean, gizarte harremanen desinstituzionalizazioaren ondorioz, ordenaren eta gizarte kohesioaren nozioak kolokan dauden (Touraine 2005). Bereziki interesatzen zitzaigun prozesu horrek Euskal Herriko gizarte mugimenduetan (GMM) eta zehazki herrigintzan gailentzen diren politika ulertzeko zein egiteko moduetan (Luxán *et al.* 2014, Martínez Palacios 2017) izandako eragina aztertzea (Esteban *et al.* 2020). Horretarako lau eremu aukeratu genituen: euskalgintza, feminismoa, ekologismoa eta antiarrazakeria/migrazioak/kulturrartekotasuna deitu diogun eremua. Eta horretan ari ginen COVID-19aren pandemiaren lehen berria izan genuenean. Handik gutxira, 2020ko martxoan, pandemiari aurre egiteko lehen neurriak ezarri ziren: besteak beste, espazio publikoan mugikortasuna murriztea eta etxe konfinamendua. Horrek guztiak eragin bikoitza izan zuen ikerketaren bilakaeran. Alde batetik, aipatutako murrizketek aldaketa sakonak eragin zituzten GMMen jardueretan eta erritmoetan. Bestetik, iker-tzaile gisa, gure egiteko moduak egokitu behar izan genituen. Bizitzen ari ginen une berezi horren inguruko informazioa jasotzeko, erabaki genuen tresna kuantitatibo bat gehitzea 2018tik lantzen ari ginen diseinu metodologiko kualitatibo eta etnografikoari.

Inkestaren helburu orokorra COVID-19ak eta horren aurrean ezarritako neurriek² GMMen dinamiketan eta kideen parte hartze soziopolitikoan nola eragin duten aztertzea izan da. Horretarako, besteak beste, honako gai eta dimentsioen inguruko informazioa jaso dugu: taldeak antolatzeke moduak, mobilizazio eta ekitaldiak, komunikazio moduak, finantzabideak eta hizkuntzaren erabilera. Halaber, egoera berriari aurre egiteko GMMek garatu dituzten estrategiei, jarduketei, elkartasun sareei eta aliantzei erreparatu diegu. Azkenik, inkestak gizarte kolektibo horiei buruzko informazio orokor oso garrantzitsua eskaini digu, hala nola sortze data, kide kopurua, genero, adin eta jatorriaren araberrako

banaketa, eragiten duten lurralde eremua, hizkuntzen erabilerara eta beste talde batzuekin dituzten harremanak.

Metodologikoki, lan berezia eta konplexua izan da, batez ere ikergaiaren ezaugarriengatik; Euskal Herri osoko ekimen eta eragileekin lan egitea erabaki genuen, herri mugimenduen baitan kokatu eta gure intereseko lau eremuetako batean eraldaketa soziala sustatzen dutenekin. GMMak ikergai bereziak dira, subjektu kolektibo eta aldakorrek direlako eta horren parte diren talde guztiak ez daudelako inon jasota edota zerrendatuta. Horretarako, Aztiker soziologia ikerguneko lagunekin batera, mapaketa prozesu bati ekin genion, gure intereseko lau eremuetako ahalik eta kolektibo gehien identifikatu eta horiekin kontaktuan jartzea helburu zuena. Bai lehenengo fase horretan, bai galdetegiak bidaltzeko fasean, zenbaitetan, ikerlarion kontaktu pertsonalak baliatu ditugu, eta hori GMMen moduko eremu batean gako langungarria izan da. Ikerketaren beste berezitasun bat izan da mapaketarako zein inkestarako galderak online egin izana. Beraz, ikergaiaren izatera kolektiboak eta erabilitako metodologia birtualak ikerketa prozesua baldintzatu dute eta zenbait zailtasunen aurrean jarri gaituzte prozesuan zehar.

Ikerlanaren alderdi metodologikoarekin jarraituz eta emaitzen ordez kagarritasunari dagokionez, garrantzitsua da gogoan izatea gure lagina ez dela izan Euskal Herriko herri mugimenduen multzoaren is-

la, adierazitako lau eremuetara mugatu baikenuen. Ondorioz, esparru horietan gertatu denaren eta gertatzen ari denaren adierazgarri da, baina ez litzateke zuzena izango emaitzak gizarte mugimendu osora zabaltzea. Bestalde, nabarmendu

Inkestaren helburu orokorra COVID-19ak eta horren aurrean ezarritako neurriek gizarte mugimenduen dinamiketan eta kideen parte hartze soziopolitikoan nola eragin duten aztertzea izan da

nahi dugu informazio kualitatiboki oso aberatsa jaso dugula: bikaina, joerak marrazteko; ez, aldiz, portaerak zifra zehatz oso berezien bidez orokortzeko.

Pandemiaren eraginak eta horren inguruko joerak marraztearekin batera, pandemia testuingurutik harago koka ditzakegun zenbait prozesu eta aldaketa identifikatu ditugu GMMen eremuan. Testu honetan, horien inguruan aritu eta, horietatik abiatuta, zenbait hausnarketa eta galdera berri plazaratu ditugu. Izan ere, egindako ikerketak, pandemiaren eraginari buruzko datuak eskaintzeaz gain, bide horretan ikertzen eta hausnartzen jarraitzeko galderak eta jakingurak ere piztu zizkigun, eta horiei tokia egin nahi izan diegu.

Pandemiak bizitzak eta bizitza soziala hankaz gora jarri zituen, baita GMMak berak eta euren jarduna ere. Hala, pandemiak askotariko eraginak izan ditu taldeen tamainan, egituran eta taldekideen parte hartzeko moduetan, taldeek antolatzen dituzten ekintzetan eta jardueretan, taldeen arteko harremanetan eta taldeen barne antolaketaarako komunikazioan, horretarako baliatzen dituzten hizkuntzetan eta finantzabideetan, besteak beste. Oraingo honetan, edonola, gure helburua ez da pandemiaren eraginaren gaineko irakurketa orokorra egitea. Aitzitik, ikertutako lau eremuetan betiere, pandemiaren eraginetan ñabardurak eta joera interesgarriak bilatu ditugu, pandemiaren eraginen irakurketa sinplistetatik eta kasik manikeetatik ihes egin nahian. Begirada horretatik, pandemiaren aurrean GMMek izan duten egokitzeko gaitasunaz, pandemiak eragindako aktibazioez eta desaktibazioez, eta militantzian funtsezkoak diren atxikimendu afektibo eta ideologikoez arituko gara. Era berean, garai pandemikoarekin lotu diren joera horietako batzuk berriak ote diren eztabaidatu nahi izan dugu.

Pandemiaren eraginak: egokitzapenak eta atxikimendu afektibo-ideologikoak

Aipatutako prozesuen azterketari heldu aurretik, pandemiak sortutako goeraren aurrean GMMek erantzuteko azaleratu

zuten gaitasuna handia izan zela nabarmendu da. Irudime-
nean gailendu den ideia, gure iritziz, erabateko edota inolako
erantzunaren begitazioa izan da; gure proposamena, aldiz,
erantzun gaitasun hori testuinguru zehatz batean kokatu
behar den continuum moduan ulertzea litzateke. Gogora
ditzagun pandemia hasierako ezagutza eza eta horri lotutako
beldurrak; horiek izan zitezkeen, hein handi batean, GMMen
eremuan gorpuztutako blokeo eta onarpenen bultzatzaile. Era
berean, gaude herrigintzan gizarte eta komunitatearekiko ar-
dura kolektiboa oso presente zegoela, eta, ondorioz, balizko
erreakzio eta erantzun batzuk, pentsatu arren, ez zirela beti
aktibatu. Horrela ulertzen ditugu neurrien aurrean hartutako
zenbait jarrera: adibidez, kolektiboen artean bi herenek neu-
rrien inguruan eztabaidatu zuten. Zenbait kasutan, ekimen
desobedienteak ere gauzatu ziren norbanakoen mailan eta
'isilpean'. Ekimen desobediente publiko eta aldarrikatuak,
aldiz, oso talde gutxik burutu zituzten. Datuak datu, pande-
miaren aurrean artikulatu (ez) ziren erantzun eta ekimenek
frustrazio sentimendu kolektiboa ere sortu zuten (Eizagirre
2022), eta, hortaz, frustrazio hori ere bada pandemiaren
eraginetako bat.

Egoera berriak, halabeharrez, taldeek zuten jarduteko mo-
duan eragin zuen, egokitzapenak bultzatuz. Nahiz eta talde
gehienek ekintza eta jarduera gutxiago antolatu zituzten eta
taldeen erdiek finantzaketa arazoak izan zituzten, esan mo-
duan, esanguratsua izan zen taldeen egokitzapen gaitasuna.
Esaterako, aurreikus genezakeenez, online komunikatu eta
aritzeko baliabideen erabilerak gora egin zuen, pandemiaren
testuinguruan taldeen funtzionamenduari eta jarduerari eutsi
ahal izateko komunikatzeko moduak aldatuz. Ekintzak ere
gutxitu ziren arren (taldeen %61ek ekintza gutxiago antolatu
zituzten), %12,5ek ekintza kopuru berbera ohiko maiztasu-
narekin mantendu zuten eta %11k diote jarduera gehiago
antolatu zutela. Azpimarratzekoa iruditu zaigu, halaber, talde
askok (%79) urteko jarduerarik garrantzitsuenari eutsi ziola,
eta, hain zuzen, horietatik gehienek (%59) egoera berrietara

egokiturik egin zutela. Nabarmentzekoa da, beraz, egoera zailetan ere ekitaldi nagusiak mantentzeko egindako ahalegina eta lortutako emaitzak. Azkenik, egokitzeko gaitasun hori oso nabarmen ikusi dugu finantzabideak bilatzeko orduan ere:

Parte hartze
soziopolitikoari
dagokionean, pandemiak
eta horren aurrean
hartutako neurriek,
desaktibazioak ez ezik,
askotariko aktibazioak
ere bultzatu zituzten

inkestaturen %60 inguruk adierazi zuten, finantzabideak mugatuta geratu zitzaizkien arren, horiek mantentzeko ahalegina egin zutela, eta %25ek baino gehiagok adierazi zuten, euren ohiko finantzabideak mugatuta geratu zirenez, bestelako bideak landu zituztela. Taldeek landuriko finantzabide berrien artean, «donazioak, kanpainak eta crowdfundingak» izan zi-

ren erabilienak, nahiz eta horien hedapena ere mugatua izan (%12k baino ez zituzten baliatu).

Egokitzapen gaitasun horretan arreta jarri nahi izan dugu, hain zuzen, pandemiaren inguruko balorazio dikotomikoak saiheste aldera, baita pandemiaren eragin horien aurrean GM-Mek gauzatu zituzten erantzunetan sakontzeko ere. Edonola, inkestaren hedapen unea ekarri nahi dugu gogora: 2021eko udaberri bukaeran eta uda hasieran egin genuen, 'COVID pasaporte' delakoa oraindik erabat indarrean egon aurretik; zenbait aferari begira, une bereziki baikorra izan zelakoan gaude. Galdetegiak zabaltzeko momentuek emaitzetan eragiten dute (Biglia *et al.* 2022); emaitzok, horrenbestez, une hartan pandemiari, horren aurrean hartutako neurriei eta emandako erantzunei nola begiratzen zitzaaien islatzen dute. Bestalde, taldeek izandako egokitzapen gaitasunak galdera berrietara garamatza. Zer dela eta talde batzuek besteek baino egokitzeko gaitasun handiagoa izan zuten? Eta zer lotura egon zen landutako gaien eta erantzuteko ahalmenaren artean? Iru-ditzen zaigu taldeek aurretik ereindako harremanek, elkarren arteko konfiantzak eta batera egindako lanak zerikusi handia

izan zutela afera horrekin. Azkenik, egokitzapen gaitasun horrek askotariko ñabardurak izan ditzake, malgutasunaz, indarraz eta erantzuteko gaitasunaz gain, ezintasunei buruz ere mintzo baitzaigu. Izan ere, zenbait unetan, taldeek sustatutako aldaketa horien oinarrian administrazioak proposatutako neurrien onarpena edota horiei aurre egiteko ezintasuna egon zelakoan gaude.

Jada adierazi dugunez, gure ustetan pandemiaren eragina ez da sinplea izan, ezta norabide bakarrekoa ere. Parte hartze soziopolitikoari dagokionean, pandemiak eta horren aurrean harturiko neurriek, desaktibazioak ez ezik, askotariko aktibazioak ere bultzatu zituzten. Esaterako, ikertutako taldeen erdiak antzeko kide kopurutan mantendu eta taldeen laurdenak kopuruan txikitu baziren ere, beste bosten baten kasuan handitu egin ziren, eta hori nabarmentzekoa iruditu zaigu. Halaber, nahiz eta berriemaileen ia erdiarentzako (%43) pandemiak beraien aktibismoa gutxitu eta herenarentzako pandemiak eraginik ez izan, laurdenek (%26) beren aktibismoa areagotu egin zuten pandemia garaian. Hala, baliteke testuinguru pandemikoaren agertoki sozialean desberdinkeria sozialekiko kezka eta gizarte aldetarekiko desioak indartu izana. Aztertzeke geratzen da pandemia testuingurua lausotu ahala kezka horiekin zer gertatu zen.

Pandemiaren testuinguru horretan kolektiboen jardunean eta parte hartze soziopolitikoan gertatutako egokitzapen eta aldaketekin lotuta, GMMetako kideek taldeetan zuten eguneroko parte hartzea ere aztertu dugu, hainbat arlori erreparatuz. Oro har, pandemiak arlo horietan izandako eragina negatibotzat jotzen zuten, bi eragin eremutan izan ezik. Taldearen diskurtsoarekiko adostasunaren eta taldearekiko lotura emozionalaren alorretan, batez beste pandemiak positiboki eragin zuela adierazi zuten inkestatuek. Parte hartze soziopolitikoari lotutako prozesuetan, garrantzitsua da dimentsio emozionalari eta afektiboari erreparatzea, are gehiago halako une disruptiboetan. Pandemiak askotariko afektuak mugitu zituen norbanakoengan: beldurrak, ezjakintasuna, tristura,

zaurgarritasuna, bakardadea; maiz, kezka sozial askotarikoek zeharkatutakoak. Hala, norberarekiko, inguru hurbilarekiko zein munduarekiko kezka nolabait esplizituago egin ziren, pertsonen subjektibitateak zeharkatuz. Kideek ordura arte propio sentitzen zuten kolektiboaren lana eta kolektibo horren funts ideologikoak are gertuago sentitu zirelakoan gaude, euren kausari are *zentzu* gehiago hartu ziotelakoan.

Edozein kasuan, ezinbestekotzat jotzen dugu etorkizunean aipatutako prozesuen eta joeren bilakaerak aztertzea, baita pandemiaren memoriaren eraikuntzan aipagai ditugun aktibazio, desaktibazio, egokitzapen eta atxikimendu afektibo edota ideologiko horiek izango duten presentzia behatzea ere.

Presentzialtasuna eta *kalea* aztergai: zaharrak berri?

Pandemiaren testuinguruan bereziki azpimarratu zen 'kalearen' garrantzia. Halaber, gure datuek nolabaiteko 'presentzialtasunaren politizazioaz' hitz egitera eramán gaituzte. Eta ez da harritzekoa. Izan ere, pandemiaren testuinguruan, GMMen baitan ere birtualtasunaren erabilerak nabarmen gora egin zuen eta baliabide teknologikoek eta birtualek zentralitatea hartu zuten. Baina, emaitzak eskuan, zalantza piztu zitzaigun: testuinguru horretan ikusten ari ginen hori soilik pandemiari egotzi ahal genion, edota lehenagotik zetozen dinamikak ziren eta, beharbada, pandemiak horiek areagotu eta ikusgarriago bilakatu zituen? Has gaitezen datuetatik.

Birtualtasunaz ari garenean, kasu honetan, baliabide birtualen erabilerari eta eraginari buruz ari gara; zehazki, barne antolaketa eta komunikazioari zein kanpo komunikazioari begira aztertu dugu hori. GMMek barne antolaketaren eremuan garatu zituzten estrategiei dagokienean, bi nabarmendu dira: sakelako mezularitza aplikazioen erabilera, batetik, eta bilerak edo asanbladak online egiteko plataformen erabilera, bestetik. Lehenengoen kasuan, talde askok azpimarratu dute lehen baino gehiago erabili izana (ia %50), eta herenek

(%30etik gora), aldiz, lehenengo erabilera bera eman zietela. Bilerak egiteko plataforma birtualen kasuan, berriz, horien erabilerak nabarmen egin zuen gora: %35 inguruk lehen baino gehiago erabili izan zituzten, eta %45 inguruk pandemiaren lehenengo aldiz erabili zituzten tresnok. Beraz, komunikazio tresna batzuk (Whatsapp eta Telegram kanalak) lehenago jada erabiltzen baziren ere, bilerak egitekoak pandemiaren testuinguruan nabarmendu ziren. Bestalde, aurrez aurreko bilerek nabarmen behera egin arren, zenbait kolektibok horiek mantendu zituzten. Beraz, aurrez aurre biltzea bereziki zaila zen garaian, horien aldeko apustua ere ageri da emaitzetan. Kanpo komunikazioari dagokionez, sare sozialen erabilera antzera mantendu zen, eta zenbait kasutan gora ere egin zuen; Telegram eta Whatsapp kanalen erabilerak, berriz, nabarmenago egin zuen gora.

Birtualtasuna, baina, presentzialtasunarekin batera aztertu nahi izan dugu. Hala, jada esan dugu barne antolaketa-ko baliabide birtualen erabilerak gora eta aurrez aurreko asanbladek behera egin zutela. Horretan sakontzeko, propio galdetu genien aurrez aurreko harremanei buruz. Modu horretan, birtualtasunak gora egin arren, presentzialtasunari ere garrantzia eman zitzaiola ikusi dugu: taldeen %25ek baino gehiagok lehen bezala mantendu zituzten gune presentzialak, eta %30ek baino gehiagok bestelako aurrez aurreko harremanak sortu zituzten. Hau da, agertutako mugen aurrean, presentzialtasunari eusteko bestelako bideak landu ziren, horren aldeko apustu argia eginik. Edonola, beste zenbait talderen kasuan, presentzialtasuna mugatua izan zen eta ez zen bestelako alternatibarik bilatu, eta kasu gehienetan (%40tik gora) presentzialtasuna asko mugatu zen, birtualtasuna lehenetsiz. Zentzu horretan, birtualtasunak presentzialtasunean izandako eraginari dagokionean, erlazionatzeko bide berriak ireki zituela baloratu zuen ehuneko altu batek (%40tik gora), eta birtualtasuna aurrez aurreko harremanekin osatu zutela adierazi zuten %35ek. Baina, bestalde, taldeen erdiek adierazi dute birtualtasunak presentzialtasuna ordezkatu zuela

edo erlazionatzeko moduak erabat aldatu zituela. Birtualtasunaren eraginak, horrenbestez, norabide ezberdinak hartu zituen: presentzialtasunarekin batera eta osagarri agertzen zaigu hainbatetan, eta beste hainbatetan presentzialtasunaren muga gisa.

Eta presentzialtasuna nola haragitu zen pandemiaren tes-tuinguruan? Aipatu dugu dagoeneko taldeek jarduera gutxia-go antolatu zituztela. Horien artean, kalean antolatu ohi zirenak urritu ziren nabarmenen, eta antolakuntzarako funtsezkoak direnak (asanbladak, kasu), aldiz, gehiagotan gauzatu ziren. Horretan ere birtualtasunak eragin zuen, bilerak online egiteko aukera zabaldu izanagatik. Edonola, pentsa dezakegu presentzialtasunera gehiago jo izan zela barne antolakuntzarako espazioetan ekimen publikoetan baino; hori ere aurrera begira eta ziurrenik modu kualitatiboan arakatzeko galdera.

Datu horiek guztiek birtualtasunaren zein presentzialtasunaren inguruko zenbait hausnarketa egitera garamatzate. Lehenik eta behin, jarduteko bi modu horien arteko harremana eta elkarrekiko eragina ekarri nahi dugu lerrotara. Maiz, era dikotomikoan edo elkar baztertzailean agertu ohi dira. Emaitzok, aldiz, harreman hori konplexuago egiten dute. Zenbait unetan birtualtasunak presentzialtasuna ordezkatu badu ere, beste batzuetan continuum baten gisara agertzen zaizkigu, eta mugimendu zein kolektiboak batetik besterako dantzan ikusten ditugu. Azkenik, beste hainbatetan elkarrekin ere aurkitu ditugu; hots, modu batean jarduteak ez du halabeharrez bestea ordezkatu. Beraz, aurrera begirako galderak eta bideak irekitzen dizkigute emaitzok. Noiz dira elkarren osagarri presentzialtasuna eta birtualtasuna? Noiz hartzen dio gain bata besteari? Zein eremutan gehiago? Zein adinkideren artean nabarmenago?

Bigarrenik, azpimarratu nahi dugu emaitzok erakusten dutela pandemiak lehenagotik zetozen zenbait joeratan sakontzeko jauzia ekarri zuela. Hau da, birtualtasunerako joera ez zen zerotik sortu pandemia garaian; aitzitik, areagotu egin zen lehenago jada erabiltzen ziren zenbait baliabideren

erabilera (Telegram eta Whatsapp taldeak, kasu). Aitzitik, hainbat unetan, birtualtasunaren areagotzea eta presentzialtasunaren galera salatu denean, hori guztia pandemiaren erabateko ondorioa balitz bezala aurkeztu da. Gure iritziz, eta datuei erreparatuz, azken horri ñabardura gehitzea beharrezkoa da, lehenagotik garatzen ari ziren aldaketetatik eta joeretatik abiatuta, pandemiak horietako batzuk indartu zituela ulertu ahal izateko. Hala, pandemiak, zenbait debeku eta neurri ageriko, bortitz eta muturreko eraginik, lehenagotik zetozen joera horiek areagotzearekin batera, ikusgarriago ere egin zituen. Horrek aurretik zetozen joera horien irakurketa kritikoa eta politizazioa indartu zuela uste dugu. Baina, gerora, politizazio hori nola artikulatu den ikertzeke geratu zaigu. Halaber, kalearen erabileraren zein presentzialtasunaren garrantzia azpimarratu denean, hori aldarrikatu eta politizatu da, bai, baina zeri egiten zaio erreferentzia 'kalea' aipatzen denean? Eta zertan zehazten da presentzialtasuna, nola hezurramitzen da eta non artikulatzen da gehien? Zer da aurrez aurreko harremanak gutxitzen direnean galtzen den hori? Klean zein aurrez aurrekoan aldarrikapenei eta borrokei ikusgarritasuna ematen zaie (izan kartelak jartzeko, izan elkarretaratzeak egiten, adibidez). Eta, era berean, presentzialki elkartzeko garen, harremanak beste era batez ehuntzen dira, eztabaidatzeko aukera gehiago mamitu eta horiek gehiago zaintzen dira, edota elkarrekin jarduteko eta ekimenak antolatzeko moduak ere aberasten dira. Pandemiak GMMetan izan duen eragina hobeto ulertzekotan, beraz, elementu horietan sakontzeko beharra azpimarratu nahi dugu.

Birtualtasunaren eraginak norabide ezberdinak hartu zituen: presentzialtasunarekin batera eta osagarri agertzen zaigu hainbatetan, eta beste hainbatetan presentzialtasunaren muga gisa

Hirugarrenik, eta azkenik, presentzialtasunak zuzen eragiten du GMMen arlo askotan, antolakuntza bera erabat baldintzatzen duen heinean, eta horrela gertatu zen pandemia garaian ere. Hala, kolektiboen finantzabideetan pandemiak izandako eragina ezin dugu ulertu presentzialtasunaren arloan gertaturiko aldaketak aintzat hartu gabe. Aurrez aurreko ekimenak debekatzean (jaialdiak eta txosnak, herri bazkariak edota kultur jaialdiak, kasu), GMMen finantzabide garrantzitsuak ere oztopatu ziren. Halaber, ekimen horietako batzuk kolektibo ezberdinak elkarrekin jardutean oinarritu ohi dira, eta ibilbide luze baten ondorengo aliantza eta elkarlan zailei esker sostengatu izan dira. Horretan beste hainbat faktorek eragina izan badute ere, uste dugu pandemiak ekarritako geldialdia eta eragileen arteko distantzia faktoreetako bat izan dela elkarlan horietan suertatu diren zailtasun eta gatazketan. Horrenbestez, eta lehenago esandakoa berretsiz, presentzialtasunaz hitz egitean beharrezkotzat jotzen dugu horren dimentsio eta gauzatze zehatzetan arreta jartzea, presentzialtasunaren galerak eta birtualtasunaren garapenak izan dituzten ondorioak sakonago ulertu ahal izateko.

Egungo testuinguruari begirako ikaspenak eta galderak

Nuevas solidaridades, reciprocidades y alianzas ikerketa abiatzean, mugimendu desberdinen aliantzak aztertu nahi genituen, hain zuzen horretarako testuinguru soziala proposa zelarik. Azken urteetan, aldiz, esan dezakegu mugimenduen arteko aliantzak bai, baina hausturak eta zailtasunak ere areagotu direla, bestelako gizarte gertakari orokorrako batzuen baitan ulertuz. Aspalditik esaten zen moduan, lurrraren baliabideak agortuz doaz, klima aldaketa gurean da, eta, horren aurreko mugimendu zein apustuak egon arren, kapitalismoak gero eta abiadura bizkorragoan jarraitzen du ekoizten eta ustiatzen. Herrialdeen arteko harremanek jarraitzen dute askotariko indarkeriatan oinarritzen diren

eta sostengatzen dituzten botere harreman izaten; ondorioz, derrigorrezko migrazioak, gerrak, kontrolen areagotzeak eta indarkeriak gora egiten dute. Eskuineko alderdi zein mugimenduek gora egiten jarraitzen dute. Europan, ezkerreko mugimenduetan askotariko hausturak ere ari dira gertatzen. Abagune horretan, ezinbesteko deritzogu herrigintzaren baitan beharrezkoak ditugun aliantzak eta politika egiteko moduak aztertzen jarraitzeari. Edonola, ariketa hori ikuspuntu zabal eta ez-dikotomikotik egiteko deia luzatzen dugu, hausturei zein elkarrekin egin eta eragiteko zailtasunei leku ere egingo diena.

Norabide horretan joan zen pandemiak GMMetan izandako eraginaren gaineko azterketa kuantitatiboa, eta norabide horretan datoz hona ekarritako hausnarketak eta galderak. Garai hartan artikulatu ziren aktibazio eta desaktibazioetan sakontzeak, edota testuinguru bortitz eta muturreko horretara egokitzeko martxan jarritako estrategietan sakontzeak, egungo testuinguruari begirako ikaspenak, hausnarketak eta galderak ekartzen dizkigulakoan gaude. Hala, lehenagotik zetozen zenbait joera indartu ziren, baliabide birtualen erabilera, kasu. Testuinguru hartan beste aukerarik ez zegoen eta, zentzu horretan, erabat justifikatua zirudien horien erabilera. Pandemia pasatutakoan, aldiz, zer gertatu da orduan garatutako zenbait baliabide, plataforma eta aplikaziorekin? Gaude pandemiak martxan zeuden zenbait joera indartu eta bultzatu zituela, eta bultzada hori gera zedin eragin zuela. Gure lanak oso garai zehatz bati erreparatu dio. Edonola, hortik abiatuta galdera interesgarriak suertatu zaizkigu pandemiaren eta horren ondoko eraginaren azterketan jarraitzeko. 🍷

Oharrak

1. Ikerketa horretan parte hartu dugu Edorta Arana, Marta Barba, Iñaki Barcena, Miren Guilló, Marta Luxán eta Julen Zabalo EHUKo ikerlariak. Ariketa *Nuevas solidaridades, reciprocidades y alianzas: la emergencia de espacios colaborativos de participación política y redefinición de la ciudadanía* proiektuaren baitan garatu genuen (MINECO-CSO-2017-82903-R, 2018-2022). Proiektu horretan EHUKo lau ikerketa taldek parte hartu genuen: AFIT, NOR, Ekopol eta Parte Hartuz.
2. Pandemiaren testuinguruan edota pandemiak izandako eraginez aritzean, bai COVID-19ak berak, bai horren aurrean hartutako neurriek eragindakoaz arituko gara. Irakurketa errazte aldera, beti biak aipatu ordez, 'pandemia' aipatuko dugu, aurreko biak barne biltzen dituela ulertuta.

Bibliografia

- Barba Gassó, Marta; Guilló Arakistain, Miren; Zabalo Bilbao, Julen; Luxán Serrano, Marta; Arana Arrieta, Edorta; Barcena Hinojal, Iñaki (2022): *Euskal Herriko gizarte-mugimenduak pandemia garaian. Egoeraren ondorioak, egokitzapenak eta eszenatoki berriak*, Bilbo, EHU (https://web-argitalpena.adm.ehu.es/pasa_pdf.asp?File=USOPD224387).
- Biglia, Barbara; Bonet, Jordi; Luxán, Marta; De la Fuente, Maria (2022): *Guía per a la introducció de la perspectiva de gènere e interseccional a les operacions estadístiques*, Bartzelona, Observatori d'Igualtat de Gènere (ICD) eta Universitat Rovira i Virgili (<http://llibres.urv.cat/index.php/purv/catalog/book/496>).
- Eizagirre, Ekhine (2022): *Euskal Herriko mugimendu sozialak sindemia garaian. Testuinguruari eta mugimenduen arteko aliantzei begirada kualitatiboa*. Gizarte Antropologiako Gradu Amaierako Lana. EHUKo Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea.
- Esteban Galarza, Mari Luz (arg.); Agirre Miguelez, Amaia et al. (2020): *Komunitateak ehunduz herri ekimenetatik / Tejiendo comunidades desde iniciativas populares*, Leioa, EHU (<https://web-argitalpena.adm.ehu.es/listaproductos.asp?IdProducts=USPDF202499>).
- Luxán, Marta; Ormazabal, Andere; Txurruka, Unai; Dañobeitia, Olatz (2014): 'Metamilitantzia. Herri mugimenduen baitatik gogoeta', JAKIN 203, 93-107.
- Martínez Palacios, Jone (koord.) (2017): *Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias*, Bartzelona, Icaria.
- Touraine, Alain (2005): *Un nuevo paradigma para comprender el mundo de hoy*, Bartzelona, Paidós.

EGUNEN GURPILEAN

105 Kultura

Jakin

Maialen Akizu Bidegain

111 Glokalia

Erantzun politikoki politak

Eleaniztasunaren tranpa

Hezur-haragizko sare sozialak

Mundu digitalaren materialtasuna

Ura eskutik eskura

Joanes Igeregi Santamaria

118 Historia

Gela ahaztu batean

Espainiako kritikarien arrazismoa

Euskal ñabardurak

Cira Crespo



Kultura

Maialen Akizu Bidegain

Jakin

«Itxasoa beti gañezka-naian dabil. Baño beti gelditzen da bere esparruan, arkaitz zakarri zartakoa edo ondartz gaxoari muxu eman dioneko». Halaxe hasten da *Yakin* aldizkariaren lehen zenbakia, lehenengo artikuluari 'Loyola'ko San Iñazio, Loyola'koa' izenburua jarrita. Irakurle jatorrari «itz bi besterik ez, baña auetxek ondo esandakoak» egin nahi, eta aldizkariaren helburu, asmo edo nahia hauxe du: «elkarri lagunduz gure euskera jatorra jakintza-soineko janztea». «Soineko onek nolakoa bear dun, ordea, bi eztabaida dauzkagu: mordollozaleak eta garbi-zaleak». Mordollozaleak mordoa beharko direla garbi dago, eta garbi-zaleek gaur egun, seguraski, *soinekoaz* hitz egitea ez lukete ontzat joko. Hasiera hartatik pasa dira hirurogeita zazpi udazken, eta, hatxeak eta eñeak gorabehera, berdin-berdin eskribitu nezakeen.

Yakin-en 1960ko hamahirugarren zenbakian topatu dudanak ere balio dit:

Ustea erdi...?

Yakin'larien artean asmo bikain ta pozgarri bat jaio da: Filosofo-kondaira bat idaztea. Erabaki onek, ordea, ba-du alako zerbait... Gazteok ba-daukagu oraindik Euskalerrriagan itzaropenik, bai ta bai; baiña zertarako ta norentzat idatzi onelakorik? [...]

Zertarako, ordea, onelako lanik? Zertarako? Utikan galdera oiek! Ikusia dago, ba: bizi gaitezen, nolabait bizi gaitezen!

Eta ez dago bestelako arrazoi edo segidarik; zertarako arrazoiak, nolabait bizitzeko nahikoa komeria izanda!

Bada ez, arrazoiak ere behar dira, bada. Ez arrazoi betiereko edo aldagaitzak, garai batean «amen»-ez eta gaur egun

«ba nire ustez horrela da» esanda zigilatzen direnak. Ez, arrazoiak behar ditugu, besterik gabe, nolabait bizi gaitezen. Arrazoirik ezean, denok dugu esateko zerbait, pentsatzeko eskubidea, eta, tarteka, entzunak izatekoa. Azurmendi'tar Jose Arantzazu'koak «zerbait esangarri duen nornairi» irekitzen zion *Yakin*-en atea, eta gehitu: «ia prakadunen laguntzarekin sakristi usai pixkat bat garbitzen diogun».

Jakitea oso lotua egon da sakristiarekin, barruarekin, irakurtzearekin, bakarrik egotearekin. Baina, soinekoak usaina hartzeko, ez da aski sakristian ibiltzearekin; egon egin behar da, denbora pasa, atzo eta bihar, egon eta egon. Eta prakak ibiltzeko diseinatu zituzten, eta elkarren artean berdinak egin. *Yakin*-en lehen zenbakietan Kierkegaard eta Txirrita azaltzen dira parez pare, eta bien ala bien berri izateak zerbaitetarako balio zuelako konbentzimendu itsua. Orain ez hainbeste kulturak sozialki 'gora' egiteko bide eman ziezazukeen, kapitala zuen, eta gerora irabaziak ekarriko zizkizun prestigio komun bat. Gaur egun ez dut uste horrela pentsatzen dugunik, eta ez da belaunaldi kontua, garai kontua baizik –uste dut gaur egun garaien arteko desberdintasunez hitz egitea aproposagoa dela belaunaldien arteko aritzea baino-. Ez, gaur egun ez dugu uste Garazi Arrula irakurtzeak eskolak emateko lagunduko digunik, edo bankuko eragiketarako egiteko, edo tailerreko hamaiketakoetarako. Bai zera. Baina, era berean, badu oraindik orain bere kapitala Durangoko Azokarako bueltak, *Argia*-ko errefuxiatuen larruzko poltsak, inork irakurriko ez duen tesi batek, bertsolaria izateak. Bestela, ez nengoke ni hemen. Eta hori ere egia da. Euskal kulturak baduela kapital bat, baduela bereizteko nahi bat, batzuetan goraxeago iristekoa ere bai, eta halako egiak ere garaiz aitortzea komeni.

Trailak hezkuntzaren egutegira ikasturte berri bat dakar berarekin. Ikasle andanak hasiko du bere bizitzaren norabidea itxuraz erabakiko duen karrera profesionala. Adimen artifizialak ia badu bere gradua Euskal Herriko Unibertsitatean, eta gradu bikoitzak ondroso azaltzen dituzte. Eta gure

tertuliak emankor eta oparoak izan badaitezke ere, hezkuntza zentroetan kultura egotea nahi baduzu, kulturarekiko kezka eta gogoeta ezinbestean egon beharko da. Forma ezberdinetan, noski, baina hezkuntzaren eremuak sektore gisa pentsatzeari utzi eta kultur agenteen eragin lekutzat hartzea ezinbestekoa iruditzen zait. Txuma Lasagabasterrek, *Jakin*-en 1985eko 37. zenbakian, euskal teatroaren azterketan, galdera tematia egiten zuen: ez al litzateke unibertsitatea halako erreflexio baterako tokirik egokiena?

Ez dakit unibertsitatea tokirik egokiena den, baina, toki egokia badela konbentzituta nago, eta Laura Mintegik aldizkari honetan 1994an intelektualari eskatzen ziona eskatzen dut nik ere:

errealitatetik hurbil egonik, unean uneko gertaerak aztertzen eta baloratzen jakin dezala, beren lekuan kokatuz eta egoera orokorrean txertatuz. Izpiritu kritikoa eta positiboa adierazi behar luke, inkonformista boterearekiko, ulerkor ahulenaiekiko, konprometitirik norbere ideiekin beri ere. Intelektualari gertaera sozialekiko sentsibilitatea eskatu behar zaio, eta gorabehera politikoeikiko ezagutza ahalik eta zabalena.

Eta intelektualari eskatzen diot transmititu dezala, ezagutza hori zabaldu dezala, ‘dibulgatu’ ditzosozko hitza utzi eta eskain diezaiola besteari. Eta hor ere transmisioan zenbat gorabehera.

Aurreko batean leitu nuen, Bigarren Hezkuntzako ikasleei egindako ikerketa baten karira, ikasleen erdiek baino gehiagok ez dakitela zein lanbide duten euren guraso edo tutoretzapekoak. Kontua ez da ‘euskal kulturaren afera’; bizitzeko moduez, izateko moduez kezkatzen gara, amorratu eta sutu, sutu *apasionatzeraino* –ez dut oraino topatu *apasionatu* ordeztu dezakeen hitzik–. Ez dezagula ahaztu gure miseriak desiratzen ditugun kontuak direla.

2004ko kulturaren erreposoa pastoralen behatxulotik egitan, Allande Sokarrosek aldizkari honetan zioen ezagutzatik hazten dela begirunea, eta esateko modu ederra iruditzen zait

zinez. Akaso, herri honetan, herri guztietan bezala, desberdinen arteko bizikidetza saihetsezina gehiegitan bihurtu nahi izan dugu elkarbizitza, eta, agian, egokiagoa da begiruneaz hitz egitea, elkarri begiratzeko moduez, eta elkarri begiratzen diogun uneez. Noiz ari gara begira besteari? Nora begiratzen dugu musika erderetan sortzea erabakitzen dugunean adibidez, edo nondik begiratzen diegu hurrengo hamarkadara heldu baino lehen kulturaren diziplina esanguratsu bihurtuko diren bideojokoei? Xabier Gantzarainek 2015ean idatzi zuen moduan, gatazka zer den jakin nahi baduzu, galdetu jendeari, irakurri literatura, entzun musika, ikusi pelikulak, joan erakusketetan galtzera.

Gizakia existitzen denetik, bere arazo nagusia identitatearen eta horren formen inguruko galderetan azaldu du. Anjel Lertxundik dotore esan moduan, denon historia kontatzeko nahikoa da esatea jaio ginen, bizitzen hasi besterik ez, eta ordutik hiltzen ari gara. Baina, bestetik, Muriel Rukeyser iparramerikar kulturagileak esan bezala, munduko txokoren batean poesiari existituko ez balitz, asmatu egingo zuketean, gosea jasanezina izango baitzitzaie. Politikaren pare, kulturak askoren eta askoren parte hartzea behar du ez dadin gutxi batzuen jabetza boteretsu bihurtu, eta zekenki bere buruan soilik interesatua. Joan Mari Torrealdai sarritan gogorarazi zigun kulturak errespetua eta independentzia behar zuela, ez zegoela politikatik at, baina bai alderdietatik aparte. Hauteskunde osteko udazkena dela antzematen da gurean.

Kulturak errealitateaz hitz egingo du, baina ez da munduaren kopia. Eta hala komeni! Bizi duzun mundu dontsu bakarrarekin nahikoa! Errealitatea ezdeusa da posiblearekin alderatuta. Eta gu mugatuak bezain posibilitatedun izateak gara. Fakirraren ahotsak zioen arteak aukeratuko lukeen amaiera ez duela beti bizitzan hautatzen, gero bizitzak arteak kontatzen diona sinesten duen arren. Hori da, izan, artearen akabuko garaipena: munduak harekiko duen sinesberatasuna. Kulturak jendearengana eta proiektu politiko batera iritsi

edo abiatu behar du nire ustez, jendearengana, eta ez artera. Artea da gutxienekoa.

Maria Gonzalez Gorosarri ikerlariak 2010eko zenbaki batean dio euskaraz aritzen garenon komunikazioaren espazioa ez dela euskararena, komunikazioarena baizik. Bueltaka gelditu nintzaion esaldiari, jarraian esaten baitu euskarazko komunikazioaren sorburua kultur ondare euskalduna dela, eta helburua euskaldunok asebeteko dituzten komunikabideak eskaintzea. Modu horretan hedabideek euskaratik sortutako erreferentzia sistema gizarteratuko dutela, eta euskalduntasunak, muga administratiboak gainditu. Oraindik ere bueltaka jarraitzen dut. Kolonizatu bat bere hizkuntzaz mintzatzea berez dela ekintza iraultzailea zioen Txillardegik Fanoni keinu eginda, baina ikasi dugu, ikasi, euskaldunak ere badituela, izan ditzakeela, kolonizatzaileen kerak, eta hizkuntzaren erabilerak ez gaituela arazten, berez.

Baina jendearengana heltzeak ez du erakartzea esan nahi. Koldo Izagirrek, 2015eko *Herria, nazioa, estatua... eta euskararekin zer?* zenbaki monografikoan, euskararen eskubideez mintzatzerakoan, euskararen erakargarritasun falta zenbateatan azpimarratzen den aipatu zuen:

Euskarak erakarri egin behar duela esaten digutenak tendentzia sozialak estetika bidez aldatu nahi luketen inozoak, edo inozotzat hartzen gaituzten bizkorak bezala ikusten ditut: surrealistik ez ziren horrenbestearaino ausartu!

Zein da, halakorik balu, gaztelaniaren estetika? Zein euskararena?

[...]

Egoera kolektibo bati, arazo sozial bati zor zaion irtenbidea arazo pertsonala bihurtzeko amarrua da erakargarritasuna.

Erdaren estetikak, esan gabe doa, boterearekin du zerikusia. Eta pixka bat hobeto ulertu dugu botereak nola gurutzatzen dituen generoa, umorea, maitasuna, utopia, kontsumoa. Eta problema zaharrek segitzen dute berritzen problema izateari utzi gabe. Nire lehen artikulua izenburuari buelta eta buelta aritu nintzen, eta, halako lehen munduko

buruhausteen ohiko amaiera sinple gisa, halaxe jarri nion: nola gehitu suari sua. Ari garen honetaz aritzeko, gaurkoz, ez zait aproposagorik okurritzen. Ez da nirea. Nola bada. Itxasoa beti gainezka nahian, eta gu suari sua gehitzen. 🍷



Glokalia

Joanes Igeregi Santamaria

Erantzun politikoki politak

Duela gutxi, Bilboko autobus geltokitik hurbil oinez nindoa-la, Radio Euskadiko esatari batek geratu eta elkarrizketatu ninduen, herritarrok Primeran plataformaren inguruan zer iritzi dugun jakin nahian. Aspaldion zeharo deskonektatuta ibili naiz, ez diet albistegiei kasu handirik egin, eta plataformaren berri eman behar izan zidan lehenik. Badaezpada ere, irakurleen artean ni bezalako pertsona despistaturik balego, ikus-entzunezkoen arloan euskarazko edukiak eta euskal edukiak zabaltzeko plataforma digitala da Primeran. Euskal Netflix, nolabait esateko.

Bote lasterrean eta kaleko elkarrizketa batek ematen duen tarte laburrean, edozein euskaltzalek eman lezakeen erantzun politikoki polita eman nion: ez naizela ni pantaila aurrean ordu asko ematekoa, oso noizean behin baino ez dudala film edo telesail bat ikusten, baina euskarak funtzio hori ere bete behar duela, euskaldunok euskaraz biziko bagara. Izan ere, zenbait ikerketaren arabera, mundu mailan egunean hiru ordutik gora ematen ditugu telebistaren aurrean batez beste, gero eta gehiago streaming plataformen bidez, eta euskaldunok mendebaldar homologatuak gara horretan ere. Hortaz, euskarazko eskaintzarik ezean, inguruko hizkuntza nagusietan betetzen dugu funtzio hori.

Ikus-entzunezkoen arloan zein kulturgintzako beste edozein esparrutan, beharrezkoa da, sorkuntza sustatzearekin batera, sortutakoa hedatzeko kanalak erraztea, are gehiago klik bakarrean eduki uholde bat eskura dugun garaiotan. Eta ikus-entzunezko euskal ekoizpenak zabaltzeko, oso funtzio garrantzitsua bete dezake euskara lehenesten duen streaming

plataforma batek. Besterik da zein neurritan dagoen egitasmo hori estrategia global baten baitan. Gure egoera sozio-linguistiko prekarioan apustu eraginkorra izan dadin, beste hainbat bide indartu beharko ditugu aldi berean: sektoreko profesionalak formatzeko euskarazko ikastaroak; sorkuntza, itzulpena eta bikoizketa handitzeko finantzaketa; zinemetan eta bestelako plataformetan euskararen presentzia bermatzeko laguntza eta arauak; euskarazko ekoizpenak ezagutarazteko jaialdi eta kanpainak... Ondo etorria, beraz, Primeran, eta norabide horretan garatutako beste hainbat ekimen!

Orain gogoak erantzun osoagoa ematera narama...

Eleaniztasunaren tranpa

Anbibalentea da euskararen egoera ikus-entzunezkoen munduan, pantailetan eta, orokorrean, biziberritze prozesuaren aurrerabideari dagokionez. Gure burua gurea bezalako hizkuntza gutxituen ligan kokatzen badugu, hiztun kopuruz legokigukeena baino presentzia handiagoa dugu Interneten, hedabide digital dezente daukagu, eta ikus-entzunezko ekoizpen eta kontsumo handi samarra. Badugu zer aitortua azken hamarraldietako biziberritze ibilbideari.

Hala ere, inguruko hizkuntza hegemonikoen aldean gero eta txikiagoak gara, eta hor dago gure iraupenaren jokalekua. Euskarazko eskaintza handitu arren, arinago hazten da gaztelaniaz, frantsesez edo ingelesez. Duela ez horrenbeste, sei telebista katetik bat euskarazkoa zen; orain hiru dira, dozenaka kateren artean. Telebista konbentzionalean, euskarazko katea(k) %18 inguruko ikusle kuota izatetik %3 baino gutxiagora jaitsi dira. Are bazterrekoagoak gara Netflixen, Youtuben, Tiktoken... Nolabait esateko, uharte izatera kondenatuta gaude, bi (edo hiru) ozeanoren artean, eta urak gora datoz itsaso horretan ere. Globalizazioaren isla, nonbait.

Euskararen normalizazioaren talaiatik begiratuta, beraz, zer arrazoi dago Primeran plataforma ele bitan sortzeko?

Gainerako plataformek ez al digute erdarazko eskaintza nahikoa ekartzen garen irla linguistiko honetara? Erdaldunak euskarara erakartzeko balioko du erabakiak, argudiatu ohi den moduan, ala euskaldunok erdalduntzeko? Hedabideetan, hezkuntzan edo arnaguneetan aski frogatuta geratu da euskarak espazio hegemonikoak behar dituela bizirauteko, nagusiki euskaraz funtzionatuko duten lurralde edo komunikazio esparruak. Erdarek plataforman beteko duten lekua argi mugatu ezean, formula baldin bada guztia ele bitan eskaintzea, arrisku handia dugu euskara bazter-bazterrekoa izateko beste behin. Egunkari elebidunen edo EITBren bilakaerak zerbait irakatsi beharko liguke elebitasunaren arriskuez.

Urrunago joanda, ez al litzateke zalantzan jarri beharko euskal erakundeek erdarazko telebista kate, irrati edo sorkuntza kulturalen gastatzen duten diru gehiena ere? Euskal Herrian bizi diren elebazarrek, euskal herritarren gehiengoak, eskubidea daukate kultura eta hedabideak bere hizkuntzan jasotzeko, noski, baina horretarako nahikoa baliabide sortzen da gure lurraldetik kanpo. Ekosistema kultural bizi eta osoa dago gaztelaniaz nahiz frantsesez, han eta hemen, bertako erakundeen laguntzarik gabe ere. Euskarak, aldiz, lur hau bakarrik dauka. Helburua oreka ekolinguistikoa bada, edo herritar guztion hizkuntza eskubideak bermatzea, erabili ohi den hizkeran, hemengo baliabide gehien-gehienak euskarazko ekosistema kulturala elikatzerara bideratu beharko lirateke. Horrek baino ez gaitu hurbilduko benetako eleaniztasunera, hizkuntza komunitate bakoitzak bizitzeko behar dituen gutxieneko baldintzak bermatzera.

Hezur-haragizko sare sozialak

Jorge Riechmann filosofo eta poeta espainiarrari irakurri nion, langileen urtetako borrokari esker, XIX. mendetik hona hiru ordu eta erdi laburtu dela batez besteko lanaldia mundu mailan. Eta, aldi berean, egunean hiru ordu eta erdi igarotzen

ditugula telebistaren aurrean. Beste era batera esanda, lanaldiak laburtzeko gure aurrekoen borrokak balio izan duela, funtsean, guk telebistaren aurrean denbora gehiago eman ahal izateko. Hotzikara eragiten dit pentsatzeak aisialdiaren zatirik handiena gure buruak logaletzen pasatzen dugula, edo jakiteak denbora gehiago ematen dugula pantaileri begira maite ditugunekin harremanetan baino. Pantailak euskaraz izatea beharrezko borroka ildo da gaur egun, noski, baina pantailarik gabeko aisialdia sustatzea ere bai.

Aro historiko honetako joera nagusiei kontra egin arren, esango nuke espazio fisiko jakin batean elkartzen gaituzten aisialdi moldeetan jarri beharko lukeela euskalgintzak arretarik handiena. Lehenik, ordu kopuruz pantailen aurrean denbora gehiago eman arren, elkar ukitzen dugunean kualitatiboki esperientzia esanguratsuagoak bizi ditugulako, bihotzaren geruza sakonagoetan eragiten digutenak. Bigarrenik, aurrez aurreko harremanek gaitasun handiagoa dutelako komunitatea trinkotzeko. Trinkotasun hori da gure herriaren iraupenaren gako nagusietakoa, eta, gainera, bizitza bizigarri batek harremanak indartzea eskatzen du, XXI. mendeak inposatu nahi digun gizarte fragmentazioa gaindituta. Azkenik, aurrez aurreko harremanetan eta ekimenetan, eremu lokaletik abiatuta, euskarak aukera handiagoa duelako hegemonia gune partzialak sortzeko eta erdarek betetzen ez dituzten funtzioak betetzeko.

Horrek ez du esan nahi, jakina, hedabide digital batek edo ikus-entzunezko ekoizpen batek ezin dutenik esperientzia esanguratsurik eragin, komunitaterik trinkotu edo euskararentzako espazio hegemonikorik sortu. Film on batek gure emozioak dardarka jar ditzake, nazio mailako hedabideek funtzio garrantzitsua betetzen dute komunitatea ehuntzen, eta tokiko hedabide batzuek eskualde mailako nagusitasuna lortu dute, erdarek libre utzitako espazio komunikatibo bat beteta. Ez ditut hemen euskarazko mundu digitala eta aurrez aurrekoa kontrajarri nahi. Kontua ez da bata ala bestea elikatu behar dugun, baizik eta bata eta bestea elikatu behar

ditugula. Baina ez dezagun funtsezkoa ahaztu garrantzitsua-
ren alde egiteko, funtzio formalak geureganatzeko ahalegi-
nean harreman informalak ahaztu ditugunean bezala.

Mundu digitalaren materialtasuna

Joera daukagu historia lerrozuzen baten antzera irudikatzeko, pentsatzeko geroa orainaren luzapena izango dela eta gaurko gizarte bilakaerak bere horretan jarraituko duela. Mundu ikuskera kristauaren ajeak. Edozeini galdetuz gero nolakoa izango den 2050eko mundua, gehienek gizarte teknologiko eta globalizatuagoa irudikatuko dute. Aurreikuspen gehienez, aurrez aurreko harremanek garrantzia galtzen jarraituko dute, eta gero eta denbora gehiago emango dugu etxeko barkardadean, pantaila bati begira. Horrela balitz, agian, euskararen biziberritzeak mundu digitalean jarri beharko lituzke bere indar guztiak, historiaren kontrako borroka antzuan indarrak alferrik xahutu gabe.

Historiak une disruptiboak izaten ditu, hala ere, indarrean diren joera gehienak iraultzen dituztenak. Eta itxura dauka krisi ekologikoa izango dela hurrengo hamarraldietako gertakari disruptiboenetakoa, baita mundu digitalari dagokionez ere. Asko hitz egiten da klima aldaketaz, zertxobait erregai fosilen amaieraz edo krisi energetikoaz, eta ia batere ez bestelako mineralen eskasiaz edo muga materialez. Era berean, Internet hodeian irudikatzen dugu, lebitatzen, gure bizitzetako beste esparru batzuen materialtasunetik salbu. Errealitatea oso bestelakoa da.

Ordenagailuan film bat ikusi ahal izateko, gure ordenagailuaren ekoizpenean 240 kilo erregai, 22 kilo material eta 1.500 litro ur erabili dira. Horretaz gain, azpiegitura erraldoiak eta energia kontsumo izugarriak bermatzen du datuen etengabeko joan-etorria: itsas hondoko zuntz optikoko kableen 1,3 milioi kilometro, milaka satelite, milioika zerbitzari, antena eta ordenagailu... Greenpeacek egindako ikerketa

baten arabera, Interneteko datuen joan-etorriak munduko elektrizitatearen %7 kontsumitzen du, azpiegituraren erakuntzan erabilitako energia kontuan hartu gabe. Ondorioz, streaming bidez bi orduko film bat ikusteak 6,4 kilo karbono isurtzen ditu atmosferara, eta Internetek munduko abiazio zibil guztiak baino CO₂ gehiago. Estatu bat balitz, klima aldatetan gehien eragiten dabilen seigarren herrialdea litzateke.

Erregai fosilak eta beste hainbat material kritiko agortzeko bidean dauden honetan, zalantzakoa da energia eta materialetan hain intentsiboa den digitalizazioak orain arteko martxari eutsi ahal izatea; are zalantzakagoa martxa hori komenigarria izatea. Intuizio historiko nagusien aurka, oso litekeena da hemendik gutxira datuen fluxua txikiagoa, hurbilagoa eta motelagoa izatea. Horrela balitz, eskala lokalagoan eta astiroago funtzionatu beharko lukete kulturgingintzak, hedabideek eta gizakion arteko harremanek. Oro har, gurea bezalako hizkuntza komunitate txikientzat berri ona litzatekeela iruditzen zait.

Ura eskutik eskura

Gorago esandakoetara itzulita, krisi ekologikoak hedabideen eta kulturgingintzaren mundua errotik alda lezake. Tokiko hedabideek eta euskarri fisikoek garrantzia har lezake, eskala handiagoko eta teknologia konplexuagoko hedabideen kaltetan. Aukera ona litzateke hori euskararentzat, hedabide esparru horretan baitauka posizio erreal eta potentzialik onena alboko erdaren aldean. Ez da aringarri txikia, bestela ere, hizkuntza hegemonikoetan datorkigun uholdea txikitze hutsa. Plataforma digitalei dagokienez, etorkizuneko agertoki horretan, ikus-entzunezkoak sortu eta banatzeko zirkuituak oso bestelakoak izan litezke: liburutegi publikoak, bideoforumak, herriko zinemak, bideoklubak...

Dena dela, ez dezagun aurreko paragrafoa neurritz kanpo interpretatu. Nahiz eta etorkizuneko prospektiba hori oso

kontuan hartu beharko genukeen, ez nabil defendatzen EITBk Primeran plataforma itxi eta berehala bideoklub sare bat zabaldu beharko lukeenik. Etorkizuneko baldintza soziolinguistikoen gainean pentsatu eta etorkizun horren beharretara egokitzeaz gain, epe laburrean ere bermatu behar dugu gaurko belaunaldiak euskaraz sozializatzea, eremu digitala ahaztu gabe. Mundu digitalaren indarraldia historikoki laburra izango balitz ere, hizkuntza baten iraupenak ezin du belaunaldirik saltatu. Belaunaldi bakoitza euskaldundu behar dugu, bizi den testuinguru soziolinguistikoan, euskara hurrengo belaunaldiari helaraz diezaion. Baina, ura eskutik eskura pasatzeko ariketa kolektibo horretan, maila lokaleko harreman hurbilak bereziki zaindu beharrekoak iruditzen zaizkit. Hor bizi izan da euskara milaka urtean, hor dago bizien oraindik ere, eta, seguruenik, hor biziko da, bizitzekotan. 🍷



Historia

Cira Crespo

Gela ahaztu batean

Udaberria izango zen liburua irekitzea erabaki nuenean. *Emakumearen irudia* zuen izena; duela zenbait urte Arabako Arte Ederren Museoa eresia nuen. Museoko koadroetan ageri diren emakumezkoen irudiekin osatutako liburua da. Bertan, andereak dantzan ageri dira, edo umeak zaintzen, etxeko lanak egiten, edota fabriketan. Burgesiako emakumeak ikusten dira, baserritarrak, ijitoak eta abar. Liburua bukatzen ari nintzela ikusi nuen aipatu nahi dudana irudia.

Familiako erretratua da. Zazpi lagun ageri dira, bi emakume eta bost gizon. Deigarria izan zen niretzat, eta begira geratu nintzaion. Hasteko, han agertzen ziren gizon-emakumeak egiazkoak zirelako, ez beste margolan gehienetan gertatzen zen bezala, estereotipaturiko pertsonaiak. Beste gauza bat ere gertatzen zitzaion: margolanak euskaraz hitz egiten zuen. Eta zergatik diodan hori? Liburu guztian izenburua euskaraz zeukan bakarra zelako. Margolariak, Elias Salaberriak, bere familiaren (bera barne zuela) erretratu bat egin zuen. Oso modu kontzientean *Gu* izenburua jarri zion, eta ez *Nosotros*.

Ni ez naiz hemengoa, ezta arte historialaria ere; ondorioz, ez nuen Elias Salaberriaren berri. Horregatik, bere bizitzan murgiltzen hasi nintzen, besteak beste, erantzun batzuk bilatzeko, ea zergatik jarri zion *Gu* izena bere margoari. Aurkitu nituen zenbait erantzunek, nire uste apalean, gure gaurkotatunari buruz pentsatzeko balio diezagukete.

Nire bilaketa Googlen hasi zen, XXI. mendean bilaketak hasten diren moduan, alegia. Han, gure protagonistaren zenbait datu biografiko ezagutu nituen, baita gure hau ez zela

euskaraz hitz egiten zuen margo bakarra ere: *Nere ama, Ez lotsatu*, baziren izenburua euskaraz zeuzkaten beste batzuk. Eta jakin nuen ere Elias Salaberria 1883an jaio zela, Lezon. Bere margotzeko erraztasunak bizitza aldatu zion. Txikitant, herriko apaiza jabetu zen mutikoak bazuela dohaina, eta Madrilgo aberats batzuen tutoretza lortu zuen. Horrela, Eliasek margolari on izateko langintzari eskaini zion bizitza. Madril, Paris eta beste leku batzuk ezagutu zituen, munduko euskaldun bihurtuz.

Gauza gutxi horiek jakin eta gero, Arabako Arte Ederren Museoko liburutegira joatea erabaki nuen; inor asko joaten ez den liburutegi batera. Museoa Ajuriaenearen parean dago. Aberats auzoa da. PPK beti bozka pila irabazten dituen horietako bat. Bidean, okila ikusi nuen zuhaitz batean.

Eraikin eder hartan sartu nintzen, eta, hasteko, museoari bisita azkar bat egin nion. Beheko solairura jo nuen. Elias Salaberriari eskainitako areto txiki bat dago bertan, eta berriro ere liburuan izan nuen sentsazio bera izan nuen margolanaren aurrean jarri nintzenean. Museoko hartan, Euskal Herriko gizon-emakumeen irudi estereotipatu eta idealizatuen artean, bazen ezberdina zen zerbait: Elias Salaberriaren benetako pertsonaiak. Han ere, *Gu* margoa, bikaina. Ondoan, bere beste maisulan batzuk: *La procesión de Lezo* eta *Cambio de turno en la fábrica*. Guztietan, pertsonalitate sakonak, begirada zuzenak, ilunak, konplexuak eta duinak. Margoak zuzenean ikusi eta gero, liburutegira abiatu nintzen. Gela txiki bat da, eta hiru emakumek egiten dute lan. Mahai bat utzi zidaten, eta Elias Salaberriari buruzko liburu batzuk ekarri. Batek komentatu zidan:

– Ezagutzen duzu EMSIME webgunea? Han «Euskadiko museoen bildumak» agertzen dira, margo bakoitzari buruzko informazioaren estekekin.

– Ez, ez dut ezagutzen.

– Ba, pena da. Jende gutxik ezagutzen du, eta hori da, batez ere, guk hemen egiten dugun lana. Webgunearen informazioa osatzen eta zuzentzen dugu.

Eta pentsatu nuen, a zer nolako garaiak, gureak. Zenbat jende gela txikitlan lanean, ordenagailuei begira, idazten, eskaneatzen, digitalizatzen, proiektu interesgarriak sortzen..., eta zein interes eta baliabide gutxi ahalegin horien fruitua gizartera zabaltzen eta ezagutarazten. Baina beno, orain bada-kizue: EMSIME webgunea, *Gu* margoari edo beste zeinahiri buruzko datu biziki interesgarriak aurkitzeko.

Espainiako kritikarien arrazismoa

Hasteko, margoaren deskribapena:

Aita Juan Jose eskulangile-nekazari gisa deskribatzen digu, eta, ama Maria Josefa, berriz, andre serio, xume, fededun eta ama arduratsu gisa. [...] Gainerako taldea hauek osatzen dute, ezkerretik eskuinera: Zenon, Teodora, Venantzio, liburu batzuk daramatzana da, eta, horren atzean, margolaria ageri da, eta, azkenik, Martzelino.

Nik ñabardura batzuk gehitu edo azpimarratuko nituzke: liburuak, amaren betaurrekoak, aitaren irribarrea, hiritarren jantziak eta baserritarrenak, koloreak, eta galdera bat: zeri begira dago Teodora?

Webgune horri esker ere jakin dut *Gu* lana 1915eko Madrilgo Erakusketa Nazionalerako margotu zituen bi koadroetako bat zela. Hara joan baino lehen, Euskal Herriko kazetariei zabaldu zizkien Salaberriak bere estudioko ateak. Hauek dira idatzi zituzten kroniken zati batzuk:

Entre Pasajes de San Juan y Lezo, tiene Elías Salaverría su estudio de pintor. Un gran local, que fue dependencia de la extinguida fábrica de loza-vidrio. [...] Una manifestación de la industria sirviendo de morada del arte. [...] En su cuadro que dice que titulará *Gu*, porque, en realidad, es algo íntimo, exclusivamente de la familia de Elías Salaverría, hay una expresión, un color y una transparencia que atraen y seducen. Se miran aquellas figuras, y cuando creemos que una de ellas destaca en vigor sobre las demás, la vista se ve atraída por otra figura, se detiene en ésta, es

ésta entonces la que parece llenar todo el cuadro. [...] Salaverría nos ha pintado un cuadro en el cual la psicología se halla íntimamente ligada con el arte.

Deskribapen horretan, adibidez, estudioa fabrika zahar batean dagoela nabarmentzen da, baita *Gu* margoaren pertsonalitatea, pertsonaien psikologia eta erakutsitako intimitatea ere.

Kezkagarrikerik ezer ez lehenengo kritika horietan; garaiko prosa, eta ideia interesgarri batzuk. Gero, margoak Madrilen aurkezteko txanda iritsi zen. Gustatu ziren; arrakasta izan zuen Elias Salaberriak, eta bi artikulua berezi egin zizkioten. Ikusiko duzuen moduan, margolanaren interpretazioa ezberdina izan zen. Adibidez, *Euzkadi* egunkarian, Madrilen idatzitako artikulua horietako bat (Manuel Abrilena) Euskal Herriko irakurleentzat erreproduzitu aurretik, argigarri bat erantsi behar izan zuten, hau da, kritikari madrildarrak, euskaldunen izaerarekiko ezjakintasuna dela-eta, horiei buruz artikuluan esaten zituen kontu batzuk kentzea erabaki zutela hobe beharrez:

El conocido crítico de arte dedica a nuestro pintor un trabajo encomiástico cuyas principales partes reproducimos aquí, haciendo al autor la merced de omitir unos cuantos errores en que ha incurrido, por ignorancia, que él mismo confiesa, del modo de ser de los vascos.

Hemen daukazue *Euzkadi* egunkariko editoreek Euskal Herriko irakurleei kendu zieten arte kritikaren zati bat, *La procesión de Lezo* margoari zegokiona, non margolaneko pertsonaia argi gutxikoa, esanekoa, bere buruari galderarik egiteko premiarik ikusten ez duena eta nortasun propiorik gabekoa dela baieztatzen den:

Allí estaba el pobre hombre sin luces, inerte, que va a la procesión porque los otros van, y es su destino marchar sin preguntarse nada, sin necesidad tampoco de preguntarse nada, átomo que cumple su misión de obediencia.

Irakurleari iraingarria irudi zekiokoelela pentsatuko zuten. Beste artikulua Margarita Neklenek burutu zuen. Ez dakit ezagutzen duzuen izena, baina feminista espainiar oso

ezaguna izan zen, besteak beste 1919an *La condición de la mujer en España* idatzi zuena. Guri orain interesatzen zaiguna 1915eko kontua da, *Suma* aldizkarian Elias Salaberriari buruz idatzi zuen artikulua. Hara hemen zati bat:

Un personaje de Salaverría es un tipo representativo de su especie. Salaverría no pinta un vasco, no nos representa una escena vasca: pinta el vasco, y nos presenta Vasconia. [...] Nos presenta únicamente un número reducidísimo de aspectos: algunos hombres (viejos y jóvenes son los mismos), algunas mujeres (son las mismas hasta que mueren) y siempre un mismo paisaje, que es la visión única que se puede tener de su país. Salaverría nos ofrece, sincera y desnuda, el alma que en él mismo palpita. Y así tenía que ser. El carácter vasco no tiene matices.

Alegia, euskaldun bat margotzea Baskonia guztia margotzea da: euskaldunek ez daukate ñabardurarik, ez dira aldatzen, berdinak dira beti, zahar zein gazte, emakume zein gizon. Salaberriaren arima ere halakoxea da eta halaxe erakusten du. Zer pentsatuko ote zuen Elias Salaberriak kritika horiek irakurtzean? Hain justu berak, beti konplexutasunaren bila ibili zenak, margolari psikologo izendatu zutenak, horrelako gauzak entzun behar.

Artikulu batean zein bestean *arraza* hitza agertzen da, behin baino gehiagotan; ez, aldiz, Euskal Herrian idatzi zituzten artikuluetan. Nik ere kontzeptua erabiliko dut esateko uste dudala Manuel Abrilen eta Margarita Neklenen artikulua arrazistak direla. Artista horren konplexutasuna ikusteko ezintasuna beste ezintasun orokorrago baten adierazle garbia da: euskal gizarteak eta, beraz, euskal jendeak espainiar gizartearen konplexutasun maila bera daukala konartzeko ezintasuna. Hau da, arrazismoa.

Konplexutasun gabezia hori sinetsarazi ziguten, eta gaur egun ere, oraindik, askok pentsatzen dute euskaldunena ñabardura gabeko gizartea dela, eta bere produktu kulturalak herrikoiak soilik direla. Sentitzen dut horrela esatea, baina hori ere, gaur egun ere, hemen ere, arrazismo mota bat da (eta ezjakintasuna eta autogorrotoa).

Euskal ñabardurak

Pasa den egunean, senarrarekin hizketan, komentatu zidan bere ustez nazioen kulturaz aritzeko eskema baliagarria izan litekeela paper batean bi ardatz perpendikularki gurutzatu eta lau koadrante bereiztea, aljebran x eta y ardatzekin egiten den gisan. Ardatzetako batek *tradizionalaren* eta *modernoaren* lerroa adieraziko luke; beste ardatzak, berriz, *herrikoia*ren eta *jasoaren* arteko lerroa. Eta, hortaz, bi ardatz horien gurutzaketatik sorturiko lau koadranteetako bakoitzak eremu bat adierazteko balioko luke: nazioaren kultura tradizional jasoari dagokion eremua, kultura tradizional herrikoiaari dagokiona, kultura moderno jasoari dagokiona eta kultura moderno herrikoiaari dagokiona.

Mendebaldeko nazioen normalizazioaren adierazlea lau eremu horietako bakoitzean gizarte sormena aktibatuta egotea da, konbinazio guztiak erabili eta gozatzeko gai izatea: herrikoia/tradizionalak, herrikoia/jasoak, produktu moderno/herrikoia... Euskal kulturak ere baditu aukera horiek guztiak, kultura osoa delako, ez kultura espainolaren edo frantsesaren osagarri edo apendize estereotipatu xaloa. Oso garrantzitsua izango litzateke euskal gizarteak horren berri izatea. Gure umeez merezi dute jakitea euskal kulturaren denarik egiten dela, eta, batez ere, dena egin dezakegula; eta ez dakite.



Euskal Herria ñabardurarik gabeko herri bat dela sine-tsarazi baitigute, konplexutasunik gabekoa. Hizpide izan dudana artelana oso adibide ona iruditzen zait baieztapen hori ezeztatzeke, hor dimentsio asko aurki ditzakegulako: sakontasun maila, eta belaunaldien arteko diferentzia eta elkartasuna adierazi nahia, eta ikuspuntu eta bizimodu ezberdinen aldarrikapena. *Gu*. Margotu zuen gizona kultura jasoduna zen; koadro horretan irakasleren bat ere bazen, eta baserritarrak... zein bere etorkizun eta iraganarekin. Eta zer esan emakumeei buruz! Ez, Margarita Neklen, barkatu, baina emakume horiek ez dira beti hil arte berdinak. Hango

bi emakumeengan estereotiporik ezin da aurkitu; bakoitza leku ezberdin batera begira dago, beraien desioak eta itxaropenak ezberdinak baitira.

Ez, pintura horretan ez dago berderik batere, ez dauka Euskal Herriko turistentzako postal batean agertu behar denik ezer. Baserriz inguraturiko paisaia bateko fabrika huts eta gris batean margotutako erretratu familiarra da. Hor agertzen dena urrun dago Espainiatik eraiki duten eta hemendik, maizegi, ongarritu den Euskal Herriko jendeaz ematen den iruditik.

* * *

Beharbada, *Gu* hori, euskaraz idatzi zuen hitz labur, polit eta errotu hori, galdera bihurtu behar dugu: zein gara *gu*? Eta, orduan, erantzun pilo bat eskaini, Elias Salaberriak egin zuen moduan. 🍷



 euskadi
irratia
gertu

IZAN ZAITEZ JAKINKIDE

Harpidetuz

- Euskal Herria **60 €**
- Europa **75 €**
- Mundua **85 €**

Nola jaso nahi duzu?

- Paperean bakarrik
- Digitalean bakarrik
- Paperean eta digitalean

Harpidetuz gero, %30 aurreztuko duzu.

Babesle izanez

120€ ordainduz, Jakinen proiektu berria sustatuko duzu eta paperezko aldizkaria eta aldizkari digitala jasoko dituzu etxean.

Ekarpena eginez

Nahi duzun kopurua

EROSI

Aldizkaria

PAPERA

- Euskal Herria **14 €**
- Europa **17,50 €**
- Mundua **20 €**

DIGITALA

- 14 €**

3 urtetik gorako zenbakiak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN.

Artikuluak

DIGITALA

- Jakinkide bazara **Doan**
- Jakinkide ez bazara **3 €**

3 urtetik gorako artikuluak DOAN eskaintzen dira DIGITALEAN

Liburuak

PAPERA

- Jakinkide bazara **10 €**
- Jakinkide ez bazara **12 €**

DIGITALA

- 4 €**
- 7 €**





Jakin^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

